

•eus
Jakin 250

herria kultura hizkuntza maiatza-ekaina
2022

Amaia Lasa Alegria elkarrizketa

AMAGOIA GURRUTXAGA URANGA

GAIAK

Emakume zientzialarien protagonismoa
eta rola komunikabideetan

MAIDER EIZMENDI IRAOLA

LIBURUAK

Euskal liburugintza 2020

XABIER EIZAGIRRE GESALAGA

EGUNEN GURPILEAN

MAIALEN AKIZU BIDEGAIN

IÑIGO MARTINEZ PEÑA

Jakin^{eus}250

herria kultura hizkuntza maiatza-ekaina
2022



JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria



aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

LEHENDAKARIA

Joanmari Larrarte

OHOREZKO KIDEAK

Paulo Agirrebaltzategi • Joxe Azurmendi • Joseba Intxausti

ZUZENDARIA

Lorea Agirre

ERREDAKZIO BURUA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Lorea Agirre • Xabier Eizagirre • Idurre Eskisabel
Patxi Juaristi • Joanmari Larrarte • Imanol Murua
Andoni Olariaga • Olatz Osa • Gexan Sors

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Martin Ugalde Kultur Parkea

Gudarien etorbidea, 29

20140 Andoain

Tel. 943 21 80 92

jakin@jakin.eus

www.jakin.eus



*Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*

Jabegoa: Jakin Fundazioa. Donostia. Lege gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: 0211/495X
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

SUMMARY

5

ZUZENDARIAREN HITZAK

7

HISTORIA BIZIA

11 Amaia Lasa Alegriari elkarrizketa Amagoia Gurrutxaga Uranga

Amaia Lasa Alegria idazlearen bizitzan eta jardunean sakontzeko aukera eskaintzen digu elkarrizketak: haurtzaroa Getarian; Magisteritza ikasketak Donostian; *Zeruko Argia*-rako idazlanak; 60ko hamarkadako lehen poesia aleak; 60ko eta 70etako giro sozial, politiko eta kulturala; emakumearen eta sexu askatasunaren aldarria eta feminismoaren eztanda; Ez Dok Amairurekin eta Joxean Artzerekin izandako harremana; familia bizitzaren eta emakume sortzaile izatearen arteko talkak; irakasle lanak ikastolan zein hezkuntza publikoan; Nikaraguako egonaldia eta iraultza sandinista...

GAIAK

55 Emakume zientzialarien protagonismoa eta rola komunikabideetan Maider Eizmendi Iraola

Emakume zientzialari eta akademikoen presentzia eta horien inguruan transmititzen den mezuaeren ezaugarriak ikertu dira *Berria* egunkarian, estereotipoen presentzia eta jorratzen dituzten diziplinek zeresanik duten aztertzeke. tzen dira.

LIBURUAK

75 Euskal liburugintza 2020

Xabier Eizagirre Gesalaga

2020an euskaraz argitaratutako liburuen azterketa aurkezten da: ohar metodologikoak; liburu produkzioaren zifren iturriak; argitalgintzari dagokionez, liburu ekoizleen izaera eta aniztasuna, argitaletxe emankorrenen aipamena eta kanpoko eta bertako argitaletxeen ekoizpenaren konparaketa; argitalpenaren zenbakien inguruan, argitaratutako tituluen zifrak eta nobedadeak eta berrargitalpenak; azkenik, gai multzoen sailkapenari buruzko datuak eta azterketa.

EGUNEN GURPILEAN

101 Kultura

Maialen Akizu Bidegain

108 Glocalia

Iñigo Martinez Peña

KONTRAZALA Dom Campistron

Interview with Amaia Lasa Alegria

The journalist Amagoia Gurrutxaga Uranga conducts a wide-ranging interview with the writer Amaia Lasa Alegria, in a new issue of the *Living History* series. The interview takes a broad look back over Lasa's life: her childhood in Getaria; her teacher-training studies in Donostia; her journalistic contributions to the journal *Zeruko Argia*; her first poetry in the 60s; the social, political and cultural milieu in the 60s and 70s; the struggle for women and sexual freedom and the expansion of feminism; her relations with the Ez Dok Amairu group and with Joxean Artze; the conflict between family life and creative activity; her professional work as teacher both in *ikastolas* and state-run education; her stay in Nicaragua during the Sandinista revolution... **Amagoia Gurrutxaga Uranga**

The prominence and role of female scientists in the media

The teacher of Journalism Maider Eizmendi Iraola conducts research into both the presence of female scientists and academics in the daily Berria, and the message conveyed about them in the aforementioned newspaper –all this with a view to analysing the presence of stereotypes and how they influence all the disciplines in which they work. **Maider Eizmendi Iraola**

Basque Bibliography 2020

Xabier Eizagirre Gesalaga, a graduate in Philosophy and editor-in-chief of JAKIN, publishes appraisal of the development of bibliographical publication in the Basque language during 2020. In this year, 2,569 books were published in the Basque language, 262 more than in 2019. Most of these publications are school books (43,2%), followed by children's and young people's literature (25,1%), books on human and social sciences (12,9%) and literature for adults (11,5%). The author continues with the work involving the classification and study of Basque bibliography that Joan Mari Torrealldai first embarked on in 1976. **Xabier Eizagirre Gesalaga**

News today

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture and globalization matters. This section draws on various specialists: Maialen Akizu Bidegain and Iñigo Martinez Peña. **Various authors**

Bukaeratik hasiko gara, atzetik aurrera. Eta bukaera batekin. Kontrazalean, Dom Campistronek urte hasieran istripuz hil zen Diabolo Kiwi taldeko Leire Iribarne musikari adiskideari egin dio omen. Iñigo Martinez Peña filosofoak *Glokalia*-ko bere txokotik jarraitzen dio, *selfie*-ak eta *like*-ak eta horien beharrak eta morrontzak aztertzen, identitate likido eta sustraigabetuen garaio-tan, irudia, *selfie*-a bera –norberaren buruaren irudia beti, nonahi eta zernahi moduz–, aldi berean, paradoxikoki, sustrai erauzle eta helduleku bihurtu ote zaigun galdetzeko, eta, hortik, bizitzeko eta izateko modu garaikide oso bat eratortzen ez ote den pentsatzen hasteko.

Maialen Akizuk, berriz, *Kultura* atalean, Arantza Santestebanen *918 gau* filma, Ines Osinaga, Olatz Salvador, Itziar Garaluce eta Lorea Argarateren *Mauriziaketzdauinorhil* musika ikuskaria, Korrikaren baitan Txakur Gorria kolektiboak osatutako *Hitzekin* ikus-entzunezkoa eta Oier Arantzabalek Xabier Erkiziari *Barruan gaude* podcaste-rako egindako elkarrizketa zentzumenen eta sentipenen taxonomia zalantzan jartzeko eta zabaltzeko baliatu ditu, sentitzeko, hunkitze-ko zein ukitzeko ohiko moduak –entzun, ikusi, ukitu, usaindu eta dastatu–, agian, gutxiegi direlakoan.

«Zergatik hain gutxi?» galdera egin zuen 1965ean Alice Rossi soziologoak emakumeak zientzian duen presentziaren aurrean. Maider Eizmendi EHUKo irakasle eta ikertzaileak gurean kokatu du galdera, eta ikerketa doitu bat egin: *Berria* egunkarian, 2014-2018 tartean, emakume zientzialariak zenbat eta nola agertu diren aztertut du. Gutxi dira oraindik, gizonezkoekin alderatuta, baina goranzko joera argia da. Kopuruak emendatuz doaz, beraz. Baina zer dago kopuruen atzean? Nola ageri dira? Ondorio esanguratsu bat: albisteen titularretan oso gutxitan agertzen dira, ahotsarekin ere eskas, eta zientziaz berariaz hizketan ere behar baino gutxiago. Zenbat eta nola beti ez dira ezkontzen-eta.

Kopuruari eta nolakotasunari erreparatu dio Xabier Eizagirrek 2020ko liburugintzaren azterketan. Pandemiaren urteak izan ditu ondorioak; esate batera, euskarazko liburu ekoizpenak gora egin du %11,4 puntutan. Eta harrigarri gerta daiteke Espainiako zein

Frantziako liburuen ekoizpenak %9 egin duelako behera. Sistema desberdinak diren seinale.

Poeta fundazional bat, Amaia Lasa. Elkarriketa egin dio Ama-
goia Gurrutxagak euskal militante akrata, feminista erradikal, iraul-
tza txiki-handien eragile eta idazleari. Geure historia politiko eta
kulturalaren mataza osatzen du Lasak bere bizitzaz eta bere pen-
tsaeraz egiten duen kontaketa biziak. Behinola euskaraz eta femi-
nismotik lehen letrak idatzi zituenak memoria sentikari bat osatu
du *Historia bizia* saileko elkarriketa luzean. Historia hasieratik has-
ten baita, aurretik atzera, beti hasiera batekin.

HISTORIA BIZIA

1 1 Amaia Lasa Alegriari elkarrizketa
Amagoia Gurrutxaga Uranga

Amaia Lasa Alegriari elkarrizketa

Amagoia Gurrutxaga Uranga

Kazetaria

Nereak ez diren
lurralde hauetatik
ihes egin nahi nuke.
Nereak ez diren ur hauek
alde batera
utzi egin behar ditut
Haitz sendoaren biribiltasunean
nere bizitzaren hitza
lortu nahi nuke
Biribiltasunean
sendotasunean
haitzaren gainean
a
e
i
o
u
berri bat esan nahi nuke.

Alegrianekoa, begi urdineko etxe zuria, biribil eta sendo haitz gainean, itsasoari aurrez aurre begira. Hemen jaioa eta hazia da Amaia Lasa Alegria (Getaria, 1948). Hemen bizi da euskal kulturaren militante akrata, euskara batuaren eztabaidaren, euskal idazleen elkartearen eta udako euskal unibertsitatearen eta beste hainbat ekimenen lekuko eta sustatzaile izan dena. Hemen hasierako ikastoletan irakasle izateko prestatu eta aritu zena. Hemen emakume feminista. Hemen euskal letretara aeiou berri bat ekarri zuen poeta.

a

Aita

Legazpikoa zen. Ez zen batere borrokalaria berez, baina abertzalea bai. 1936ko uztailean estatu kolpea gertatu zenean, Getaria abertzaleen esku zegoen, eta haien esanetara aritu zen aita guardia lanetan, kolpistek herria hartu zuten arte. Orduan alde egin zuen hemendik, eta Okzitania ezarri zen, Landetako Biudos herrian, hango lagun baten etxean. Gure aita Francoren kontrakoa zen erabat. Pentsa ezazu: telebista ere ez zuen erosi hura hil arte, ez zuelako bere etxean sartzetik nahi, ezta pantailatik ere. Gu auzoarengana joaten ginen telebista ikustera. Eta nik aita xaxatu egiten nuen batzuetan. Ate ondora joan, eta esaten nion: «Zuk esaten duzu Franco diktadorea dela baina zu Franco bezalako diktadorea zara!». Zortzi bat urterekin. Gure aitaren sua eta nire ihesaldiko txistua, halakoetan...

Gizon lasaia zen, baina. Behin bakarrik jo ninduen, etxeiko sukaldean nengoen batean, Zarauzko moja *txapelaundietara* joateaz erabat nazkatuta –txapelarekin eta gorbatarekin joaten ginen hara–, esan nuelako: «Moja kotxina horiek!». Amak, orduan, deitu egin zion: «Martin! Martin! Kotxina deitu diola moja bati!». Eta gure aitak etorri eta paliza eman zidan.

Ama

Julia zuen izena. Aitarengana joan zen 1936an, erbestera, haurdun zegoela. Gero jakin dut emakume asko geratu zela

haurdun garai hartan, gizona berriro ikusiko zuen ere jakin gabe. Baionan ezkondu ziren gure gurasoak, eta han jaio zitzaien haurra. Neska zen, baina korapiloarekin etorri eta hil egin zen. Horregatik, ama gure anaia Mikel izateko jarri zenean, ospitalera joan ziren. Donostiako ospitalera. Han jaio zen gure Mikel, 1938an; horregatik dakit gurasoek bi urte egin zituztela erbestean. Gainerako senideok etxean jaio ginen.

Amaia

Nire amandrea Xole zen. Marixol izan nintzen ia-ia, beraz. Baina gure amak Navarro Villosladaren *Amaya y los vascos* leitu zuen, eta handik jarri nahi zidan izena Amaia. Sekula ez dut irakurri liburu hori.

Eta jaio naiz ni eta joan da aita udaletxera, eta Amaia izena jarri behar didala eta hango bake epaileak ezetz, Maria jartzen ez bazuen Amaiaren aurretik ez ziola utziko. «Ba orduan erregistratu gabe!» esan, eta etxera bueltatu zen gure aita hori. Hala egin nuen denbora, inon ofizialki izen emanda ez nengoela. Eta halako batean etorri zitzaion idazkari hori, eta Amaia jarri ahal zidala esan zion aitari. Halaxe egin zuen. Eta 11 urterekin, sendotza esaten zitzaiona egiteko ordua etorri zitzaidanean, etorri zen Font Andreu izeneko gotzain katalan bat, eta kristorenak eta bi esaten hasi zen, Mariarik gabeko Amaia hura nola ote zitekeen galdezka. Ze inportako zitzaion bada hari! Erritu erlijioso bat zen sendotza, eta errituaren barruan masaileko bat ematen zitzaion haur bakoitzari. Gotzain hark behar baino fuerteago eman zidan zaplaztekoa niri. Nola ez nintzen bada errebelde irtengo ni?

e

Eliza

Bueltatu dira gurasoak Landetatik Getariara 1938an, joan da gure ama mezetara, eta apaiz kabroi batek zer eta jaunartzea eman ez, haurdun ezkondu izanagatik bekataritzat zeukalakoa.

Txarrena da apaiz hark sexu harremanak zituela bere iloba batekin eta ume bat ere egin ziola. Ume hura bizkor asko ezkutatu zuten... Zuk uste duzu dretxorik badela pertsona bat horrelakoa izateko? Gu denok izuan eta beldurrean hezi, eta gero beraiek ziren –eta dira– okerrenak!

Emakume

Eskerrak neska jaio nintzen, harrika botako ninduten bestela [barreak]! Amak ez, baina aitak neska nahi omen zuen, kosta ahala kosta. Hala, ni jaio nintzen gauean gure osaba etxera

bueltan zetorrela, nire lehen negarra sentitutakoan, esan omen zuen: «Jaio da neska txikia!». Burutik pasatu ere ez hari mutila izan nintkeenik!

Lau senide gara, hiru mutil eta ni, neska bakarra. Gaez jaio omen ginen denak. Mikel da zaharrena, neu gazteena. Hamar urteko tarte dago bion artean. Haiek elkarren nahiko hurre jaio ziren; hirugarrena, berriz, zazpi urteko aldearekin; eta gero ni.

«Idazteko barruko askatasun bat eduki behar duzu, eta oso txikitatik sentitu izan dut nik askatasun hori. 10-11 urte nituenetik maite dut idaztea, eta nire bizitzako dena horren inguruan egon da ordutik»

i

Idatzi

Idazteko barruko askatasun bat eduki behar duzu, nik uste, eta oso txikitatik sentitu izan dut nik askatasun hori. 10-11 urte nituenetik maite dut idaztea, eta nire bizitzako dena horren inguruan egon da ordutik.

Irakurri

Oso ume nintzela ikasi nuen irakurtzen. Eskolara joatea ez zitzaidan batere gustatzen, baina irakurtzea, ikastea eta

galderak egitea bai. Fantasiaraz betea nintzen eta asko galdeztzen nien etxeko helduei, denari buruz. Horrelaxe hazi ginen.



Oroitzapenak

Hautzaroko nire oroitzapenak ez dira bereziki gozoak. Amak bazuen zerbait barruan gorabehera animiko asko ekartzen zizkionak. Depresiboa zen, eta horri buruz pentsatzeko jartzen naizenetan... Medikuen esanez, pilula bakarrarekin menderatu ahalko zuen bere egonezina, baina gure ama egoskorra izan eta ezer hartu nahi ez. Eta desorekatu egiten zen, pilula ez hartzeagatik.

Hor bada hari bat. Amonaren ahizpa bat bazen, Juana, sekula ezkondu ez eta beti neskame lana egin zuena. Hark ere eduki zuen izaera depresibo hori. Gero, amak; eta hurrengo belaunaldikook ere bai. Gure amaren kasuan, Baionan bere lehen umea galdu izanak ez zion batere lagunduko, seguruenik. Landetatik Getariara itzuli eta pixka batera eman zion lehen krisia, hala ere. Ni jaio gabe nengoen artean. Uste dut Usurbilgo egoitza berezi batera eramanez zutela. Pribatua zen hura, eta ama zoragarri egon zen. Gerora ere, behin baino gehiagotan izan zen han. Medikatu egiten zuten, eta ondo bueltatzen zen handik. Hurrengo krisira arte.

Sei urte bete arte bizi izan nintzen hemen, oraintxe gauden etxe honetan. Aitona-amonaren etxea zen hau, eta haien mahaiaren bueltan bazkaltzen genuen denok, hemengo osaba-izeba eta lehengusu-lehengusina piloak. Guztira, zortzi ume ginen; horietako bi besterik ez neskak. Momentu horiek oso oroitzapen ederrak dira niretzat.



Uleratu

Zer da gauzak ulertzea? Gure amaren gorabeherak ulertzea, esaterako... Umetan, zail egiten da. Sufrimendua dator

amarekin harreman natural edo normal bat ezin duzulako eduki. Ondo zegoenean, oso jatorra, alaia eta irekia zen, malgua eta azkarra. Baina pattaltzen zenean... Hari bururatu zitzaion ni *interna* bidaltzea Donostiara, aizu. Eta behin esan zidan: «Nik ez dut nahi zu ni bezalakoa izatea». Uste dut bere buruaz ari zela. Neska bakarra nintzenez, oinordetza hura nik jasoko nuela usteko balu bezala hitz egin zidan. Oso gerora ere, askotan errepikatzen zidan esaldi hori. Bel-dur hori zeukan.

Naturarekin-eta izugarrizko harremana zeukan. Ama zen bere etxeko gazteenetako bat, eta umetan harraldean orduak egiten omen zituen, zokomiran. Miresmen handiz hitz egiten zuen naturaz. Neuri bakarrik ez, denoi. Hori ulertzen diot. Naturarekin daukadan harremana hari zor diot. Ondo zegoenean, ama ez zen batere erlijioso. Jesukristo izan zela sinesten zuen, baina Jaungoikoaren semea zenik ez. Bere erlijio propioa zeukan. Hiltzeko zegoela, 91 urterekin jada, ez ekarri hari apaizik eta! Eta behin esan zidan: «Beldurra daukat hiltzeko». Eta nik esan nion: «Zuk? Ez al duzu bada natura hainbeste maite? Hara joango zara berriror!». Eta haxe baretu zen.

Sorginak itsasoa ezagutu
ez balu.

Etxe txiki batean
biziko zatekeen.

Amaia, nork altxatu zuen zure bizitzaren parte handi-handi bat ardaztu duen Alegrianekoa izeneko etxe hau?

Gure aitona Mielek, amaren aitak. Ez zekien espainolez hitz egiten. Idazten ere ez. Lakuntzatik etorri zen hona, gurdia erosita. Somorrostron ibilia omen zen, burdina batetik bestera karriatzen. Prestamista ere bihurtu zen gero. Gure osabek-eta esaten zuten gure aitona judutar jatorrikoa ote zen, *marrano* deitzen zituztenetako bat, Nafarroako erregeak

babestu zituztenetako bat. Auskalo. Kontua da dirua egin zuela. Hemengo nafar askoren negozioa, garai hartan, ardoa ekarri eta arraina eramatea izaten zen. Gure aitonarena ere bai. Eta antxoa fabrika ireki eta, azkenean, etxe hau egin zuen.

Alargunduta eta hiru umerekin etorri zen Lakuntzatik, eta bigarrenagoz ezkondu, gure amonarekin –hura neskame etorria zen hona, Goierritik–. Eliza ondoko etxean ezarri ziren. Seme-alabak izan zituzten, eta Lakuntzatik ekarritako umeetatik bi tuberkulosiak jota hil zitzaizkien. Herriko medikuak orduan esan omen zion aitonari oso etxe ilunean bizi zirela gauza onerako, eta halaxe eraiki zuen etxe hau orain dela ehun urte juxtu. 50 bat urte izango zituen.

Etxe honetan hainbat bizitza zeuden. Orain gauden solairu hau etxe bakarra zen, aitona-amonena, eta hor bizi zen dozena inguru jende. Goian, ezker-eskuin, apartamentu moduko bizitzak zeuden.

Ba al zen kultur girorik pareta hauen artean?

Etxe honetan denek irakurtzen zuten, gure amak ere bai. Liburu historikoa ugari zegoen. Gero, politikaz asko hitz egiten zuten, gerran gertatutakoaz-eta. Pentsa ezazu, gure aita urteetan egon zen elizara joan gabe, Eliza oso gaizki portatu zelako euskaldunokin gerra denboran. Amari egin ziotena ez zuen jakin ere egingo akaso, baina gerra kontuak ez zituen ahazteko.

Gogoan dut nire anaietako bi etxera etortzen zirenean aita-rekin asko jarduten zutela eztabaidan, politikaz-eta. Ni haiei entzuten egoten nintzen, ikasten. Askotan hitz egiten zuten Pio XII.ak zenbat egin zuen judutarren aurka, nola egin zuen bat azkenean Hitlerrekin... Horrelako kontuak. Auzokoez hitz egitea baino, azken batean, politikaz hitz egitea maite zuten hemen. Gerora, besteen etxera joan izan naizenetan, asko harritu izan nau besteez gaizki esaka aritzeko ohitura zabaldu horrek.

15 urterekin zinemara joaten hasi ginen. Han pelikula erromantikoak ematen zituzten, Doris Day eta Rock Hudson

ziren beti protagonistak. Zenbat denbora galdu genuen guk halako pelikulak ikusten... Komikiak ere irakurtzen genituen:

«Gure herrian, ikastera oso jende gutxi joaten zen. Dirua izanik ere, Getariako armadoreen semeak itsasora joaten ziren. Alabak ezta horra ere, eta 15 urterekin hasi nintzen Magisteritza ikasten Donostian»

Capitán Trueno eta beste. Anaia gazteena *bakero* nobelak ekartzen hasi zen, eta pixkanaka zaletu nintzen haietara ere. Baina benetan bilatzen nituen irakurketak Eliza katolikoaren *Liburu debekatuen indexa*-n zerrendatuta zeudenak ziren. Galarazita zegoena leitu nahi izaten nuen, XIX. eta XX. gizaldietako idazlerik onenak debekatuta zeudelako, Pio Barojatik beretik hasita. Haietako batzuk etxean zeuden, eta bi

anaia nagusiek liburu gehiago ekartzen zituzten. Rimbauden poesia eta Sartre haien bitartez ezagutu nituen, adibidez.

Bizitzaren errebueltak zer diren, gure Mendebalde honetan debekatu berri dituzten Dostoievski eta Tolstoi Vatikanok debekatzen zituen orduan.

Familian bertan bazenuten idazle bat: Blas Alegria. Zu jaio baino urtebete eskas lehenago hil zen.

Aitona Mielen lehengusu propioa zen hura, eta tarteka etortzen omen zen hona. Behin ere ez dut haren libururik irakurri. Abertzalea zen eta euskaraz idazten zuen. Hark ekarritako euskal liburu asko omen zen etxe honetan, gerra denboran hartu eta denak itsasora bota zituzten arte, beldurraren beldurrez.

Zure haurtzaroa euskaraz izan al zen?

Kalean bai, erabat. Baina eskolara joaten ginen, eta han dena espainolez zen. Erdaraz egitea askoz finagoa zela erakusten ziguten. Mojetan nenbilenean, gerra euskaldunon erruz luzatu zela esaten ziguten. Halakoxeak ziren. Bazen han bat,

Madre Maria Jose, euskara zoragarri entenditzen zuena, eta niri behin okurritu beste batekin euskaraz hitz egitea, eta moja hark zer esango eta «ezin da!». Nik erantzun nion: «Ulertzen duzu-eta!». Baina hark berean segitu zuen: «Ezin da». Halaxe zen dena, ezin hutsa.

Gogoan al duzu zein izan zen irakurri zenuen lehendabiziko euskarazko liburua?

Gure etxean Itxaropena argitaletxearen Kulixka Sortako aleak izaten ziren, gure aita harpideduna zelako. Euskaraz leitu nuen lehen liburua, baina, *Kristau ikasbidea* izan zen, du-darik gabe.

Gero, 11 urterekin Donostiara *interna* joan nintzenean, aitaren gutunak irakurtzen nituen liburuez gain. Euskaraz idazten zizkidan, erdarazko itzulpen zehatz eta guzti, mojek irakurri egiten baitzizkiguten gutunak. *Misioneras del Sagrado Corazón* ziren haiek. Lehen esan bezala, amaren ekimenez bidali ninduten internatura.

Gure herrian, ikastera oso jende gutxi joaten zen. Dirua izanik ere, Getariako armadoreen semeak itsasora joaten ziren. Alabak ezta horra ere, eta 15 urterekin hasi nintzen Magisteritza ikasten Donostian. Nekien gauza bakarra zen idatzi egin nahi nuela, eta halaxe joan nintzen Magisteritzara, oporrak edukiko nituela eta oporretan idazteko aukera izango nuela pentsatuta.

Etiket neraman euskararekiko maitasuna, eta maitasun hori areagotu egin zitzaidan Magisteritza ikasten hasi eta pixka batera, 1964an, hango ikasleontzako ostatu bat ireki zutenean. Nerabe nintzen orduan.

Joannes Etcheberry Andereñoen Erresidentzia.

Hala al zuen izen osoa? Andereñoen Erresidentzia deitzen genion guk. Manterola kalean zegoen aurrena, Zabaleta kalera aldatu zen gero. Magisteritza eskolan egiten ari ginen ikasketen osagarri, formakuntza moduko bat ematen hasi zitzaizkigun bertan. Euskara, euskal literatura, Euskal Herriaren

historia, garaiko pentsamendu korronteak, pedagogia, psikologia..., kultura orokorra ematen ziguten, euskal ikuspegitik. Han hasiko nintzen euskaraz benetan irakurtzen. Arratsaldean, irakasle bat etortzen zitzaigun euskara erakustera, gu alfabetatzera. Rikardo Arregi ere hara etortzen zen. Baita Karlos Santamaria eta Anjel Goenaga izeneko jesuita bat ere. Azken horren arreba batzuk Valladoliden zeuden moja, komentuan, eta komentu hartan babesa ematen zieten ETako kideei.

Koldo Mitxelena, Jose Migel Zumalabe eta Santamaria ziren erresidentziaren sustatzaileetako batzuk. EAJkoek eta EAJkoak ez ziren euskaltzaleek jartzen zuten dirua horretarako, guk merkeago egin ahal genitzan ikasketak. Niretzat oso inportantea izan zen ostatuko formakuntza paralelo hori, gure etxean Lizardi, Lauaxeta eta beste gurtu egiten zirelako, eta haietaz hitz egiten zigutelako. 36ko gerran galtzaile izandakoen ondorengo belaunaldia ginelako nolabait, jakina.

Zein ziren ostatu haren arduradunak?

Agirretxinas deitzen zitzairen talde bat sortu zuen Eugenio Agirretxe fraide frantziskotarrak: Arantzazuko Amaren Misiolariak [Arami]. Elkarte horretako emakumeen eskuetan zegoen ostatu hura, eta beren buru Pakita Arregi egiten zen. Haren anaia Mikel ere poeta zen.

Garai hartan hasi nintzen irakurtzen Mogel, Leizarraga eta gainerako klasikoak, mojen pentsio hartan nengoela, ikasketak egin bitartean. Axularren *Gero* sekula ez nuen lortu bukatzea, haserretu egiten nintzelako irakurtzen hasi orduko. Euskara eder-ederra bai, baina *geroko bekatuak* eta beste, sutan jartzen ninduen.

Axularrek ez ezik, Eliza kutsuko orok jartzen zintuen zu sutan, ala?

Bai. Guk bizitako erlijioa terrorista zelako. Edozer gauza egiten zenuela, bekatu zen, eta bekatuan hiltzen bazinen, infernura joango zinen. A zer nolako infernura, gainera! Liburu mordoa zegoen horri buruz eta irakurri egiten genituen.

Horregatik, mezetara gehiago ez joatea erabaki nuen behin. Egun hartan, erresidentziako nire gelan geratu nintzen, ohean, bekatuan noiz hilko zain.

Internatuko itxitura hartatik bala baten moduan atera nintzen, disparatuta. Nagusi ziren iritzi eta konbentzio sozial guztien aurkako erreakzioa izan zen nirea, hasi sexu arloan eta segi gainerako guztietan. Eta klasera ez joaten hasi nintzen. Eta handik beste ostatu batera aldatu nintzen, *Zeruko Argia*-n nengoen garaian.

Nondik atera zenuen ostatu berria eta beste ordaintzeko dirua?

Etiket. Txikiena izatea ondo etorri zitzaidan beti. 17-18 urterekin bukatuta behar nuen ikasketa lerro hura, baina ingeniaritza baten pare luzatu zitzaidan, kulturari eskaintzeko eten bat egin nuelako. Idatzi, pentsatu, manifestazioetara joan..., *vivalavida* bizi nintzen ni. Akordatzen naiz behin, 18 urte nituela, banku batean eseri eta libre sentitu nintzela. Horrelaxe nahi nuen bizi, gero askorik lortu ez banuen ere.

Beti izan naiz pixka bat xelebrea, hitzaren zentzu onean. Nire munduan egon ohi nintzen. Bi urte egin nituen zoragarri bizitzen, bada, kulturalki nire burua janzen. Horretarako giro aproposa zegoen Donostian, gainera: bertako kultur piztaldiaz gain, Maurice Béjart dantzaria etorri zen emanaldia egitera, Carlos Castilla del Pino psikologoa ere bai hitzaldiak ematera... Halakoekin joan zitzaizkidan hilabeteak eta hilabeteak, nire magisteritza partikular hartan. Eta etiketik, buka nezala eta buka nezala esaten zidaten. Halako batean, esan nien: «Bukatu dut ba!».

Eta gezurra izan.

Pakita Arregirengana joan zirenean jakin zuten gurasoek ez nuela ikasketetako ezer egin azken bi urteetan, eta orduan komeriak! Bi Magisteritza klase zeuden garai hartan: Elizarena bata eta normala bestea. Elizarenera sartzeko ez zen batxilergorik behar, eta normalerako bai. Ategorrietako

erlojuaren atzean zegoen Magisteritza Eskola Normalera pasatzea lortu eta bukatu nuen azkenean.

Itzul gaitezen zure bi urteko etenera, baina. Emankorra izan al zen?

Bi urte horietan hasi nintzen *Zeruko Argia*-n kolaboratzen, *Gazte naiz* atalean, Mari Karmen Garmendia eta besterekin. 1967koak dira nire lehen artikulua. Arantxa Gurmendi ere han zebilen bueltaka, baina hura kantari eta antzerkilari gisa daukat gogoan gehiago. Bidaia agentzia batean egiten zuen lana. Xabier Lete, Ramon Saizarbitoria eta beste ere han ari ziren. Elkartzen ginen, baina nik denbora gutxi egin nuen sail horretan, han ere bazebilen Rikardo Arregik *Herriak eta gizonak* atala sortu zuelako, eta hara aldatu nintzelako. Nazioarteko albisteak ziren. Aldizkari frantsesetako artikulua hartu, flexeatu eta argitaratu, horixe egiten genuen. *Politique Aujourd'hui* izenekoa eta halakoak; izango dut aleren bat oraindik ere etxean.

Nik banekien frantsesez, gure etxean frantsesa hirugarren hizkuntza izan delako. 800 pezeta ematen zizkiguten eta haiekin mugaz bestaldera joaten ginen. Taldeko hiruzpalau lagun izaten ginen. Han bazkaldu eta liburuak eta aldizkariak osten saiatzen ginen, 800 pezeta haiekin. Eta hainbat kultur-gilerekin elkartzen ginen: Daniel Landart, Manex Pagola eta besterekin. Batera eta bestera nenbilen. Ez naiz sekula talde batean sartuta egon, hala ere. Ezin nuen, ez dakit nik zergatik. Harremana denekin neukan, baina, izaeraz, taldean ezin.

Hala ere, ez zara bakarka ibili. 1969ko apirilean, esaterako, Rikardo Arregi, Ibon Sarasola, Xabier Lete, Ramon Saizarbitoria, Xabier Kintana, Gabriel Aresti, Antton Santamaria, Rafa Eiguren eta Joxemi Zumalaberekin batera, Antonio Labaienena eta Basarriren «herrikoikeria» eta antibatasuna salatzeke gutun irekia sinatu zenuen. Zer izan zen hura?

Ez dut oso gogoan, baina *Zeruko Argia*-n ibiltzen ginen sinatzaileetako gehienak, eta eztabaida handiak izaten genituen

katoliko fundamentalista eta atzerakoekin. Garbizaleak izateaz gain, euskara batuaren kontra jarri ziren. Arestik garai horren bueltan argitaratu zuen *Batasunaren kutxa* liburua, eta haren alde ere sinatu genuen. Baliteke harekin lotuta egotea testu hori ere. Garai hartako denak nahiko lanbrotuta dauzkat.

Polemika batzuk izango dituzu gogoan, hala ere. Sesioari, behintzat, ez zenioten beldur handirik.

Horren beldur ez ginez, ez. Gaur egun, linguistika, psikologia, biologia..., jende askok dauka formakuntza, eta ez gizonetzkoek bakarrik, garai hartan bezala. Beraz, eztabaida bat izan dezakezu, baina aurrean duzunak ikasitakoa ere errespetatzen duzu. Gure gazte garaian, baina, bakoitzak ahal zuen moduan janzten zuen bere burua. Joxemi Zumalabe bera arkitektura ikastera joan zen Bartzelonara eta bigarren urtean bueltatu zen, bukatu gabe. Rikardo Arregi, berriz, ekonomia ikasketak egiten hasi zen, baina, hainbeste kontutan sartuta zegoen, ez zuen bukatu karre-
ra. Koldo Izagirrek berak ere filologia ikasketak hasi zituen, baina ez dakit bukatu zituen. Neronek ere bi urte egin nituen gero EUTGn, jesuitek Donostian zuten unibertsitatean, Patxi Altuna, Anjel Goenaga eta enparauekin filologia ikasten, baina poemak ere idatz-
tzi nahi nituen eta lana egin behar zen bizitzeko. Dena ezin, beraz. Hor onartu behar izan nuen lehen aldiz ez naizela *superwoman*.

«*Zeruko Argia*-n kolaboratzen hasi nintzen, *Gazte naiz* atalean, Mari Karmen Garmendia eta besterekin. Xabier Lete, Ramon Saizabitoria eta beste ere han ari ziren»

64ko belaunaldikoa omen zinen. Zure lehen poesia aleak 1969an argitaratu zenituen, Juan San Martinek prestatu zuen *Uhin berri (1964-1969 bilduma)* antologian. Noiz ezagutu zenuen San Martin?

Euskal Idazleen Elkartearen hastapen bileran-edo ezagutuko nuen seguruenik, Baionan. Hogeita bat urte izango nituen. Gogoan dut bilera hartako lehen galdera izan zela ea nor kontsideratuko genuen euskal idazle eta nor ez. Atera kontuak eztabaidaren mailaz. «Liburu bat argitaratuta daukana», zioten batzuek. Eta gutako ia inork ez zuen betetzen baldintza hori. Txillardegik, Arestik eta inor gutxik gehiago.

Nik argi neukan ez nintzela idazteaz biziko. Uste dut orokorra zela pentsamendu hori. Eta ez bakarrik euskarari dena doan eman behar geniolako ustea nagusi zelako. Ez zegoen ezer, ez biderik eta ez egiturarik, nolabaiteko profesionalizazioari eutsiko zionik. Sortzeko zeuden denak. Lur argitaletxea urte hartan bertan sortu zuten, eta euskaraz lan egiteko aukera bakarra irakaskuntzak ematen zigun, ikastolen bitartez.

Euskal literatura zer zen ez zenuten eztabaidatu bilera haietan, eta ez da gutxi. 60 urteren buruan, izan ere, erdaraz idatzitakoa ere euskal literatura dela diote batzuek.

Hor bada zer argitua. Ados egon gaitezke esatean Euskal Herrian euskaraz eta erdaraz idazten dela literatura, eta badakigu zergatik idazten den hainbeste euskaraz eta zergatik hainbeste erdaraz, baina Mitxelenak ere esaten zuen: «Euskal literatura da euskaraz idazten dena». Beti jartzen dut Julio Cortázarren adibidea: 30 urte egin zituen Frantzian eta han idatzi zituen liburu gehien-gehienak. Inork ez du kontsideratu sekula frantses literaturako partaide.

Duela mende erdi falta ziren kultur tresna eta egitura batzuk badira egun, eta *kultur industria* kontzeptua gero eta gehiago aipatzen da.

Baina egile edo artista lanetik bizitzea ezinezkoa da ia-ia denentzat. Gaur egun ere bada zeregina. Gutxienez, belaualdi berrietakoak ere sorkuntzari emanda duin bizi ahal daitezen. Ez da lehentasuna, baina, ematen duenez. Bilbon itsas museoa berritu behar dute, esaterako, eta diru asko bideratuko dute horretarako ere. Halakoetarako beti bada

dirua, baina, sortuko duen jendearentzako, apurrak besterik ez. Guggenheim egin zutenean horixe izan zen kritika, hain zuzen ere, eta museo horrekin kritiko izaten jarraitzen dut.

Urdaibain bigarren bat egin asmotan dabiltza.

Horren kontra egin beharko dugu ba, ezta? Horrelako eraikinak merkaturako ikurra besterik ez dira. Gero, gainera, kulturaren arrakasta izan dela entzun behar... Guggenheim Fundaziokoentzako izango zen arrakasta, eta turismotik bizi direnentzako-eta. Zeinek irabazten du horrekin, izan ere? Euskal kulturak? Benetan? Zein da gure agintarien kultura kontzeptua, baina? Zer da sustatzen dutena, hedabide publikoetatik ere? Hor dago arazoaren benetako muina, nire ustez. Handikeria eta handikeria artean, zenbat diru eta azpiegitura bideratzen da benetan gure kultur txikitu honen sustapenerako?

Gizon haiek
beren indarrak, haragiak, lurra, heriotza bihurtzen...
gizon haiek
izardi saminean
denak batean, bat eginda, mundu bat egiten
ikusi nituenean...
Lotsa sentitu nuen,
ni, han, neure arazoarekin,
neure pentsamenduarekin,
neure biziarekin,
ni, neure buruarentzat aurkitu nintzanean...

Are txikituago zegoen kultura zure lana argitaratzen hasi zutenean. Testuinguru hartan, nola hartu zuten zure poesia?

San Martinek argitaratu zituenak, oso ondo. Beste kontu bat izan zen Mikel anaiarekin batera *Poema bilduma* argitaratu nuenean, 1971n. Hango poemak gordinegiak zirela ebatzi zuen orduko gizon kultu askok. Lizunegiak omen; nireak, neskarenak, bereziki. Nola ez ba!

Poliki-poliki heltzen gindoazen neurrian, ez ginen gure aurreko haien irizpideen arabera bizi, eta hor talka izan zen, hezten gintuzten garaietan ez bezala. Talka hori azaleratu egin zen. Gaur egundik begiratuta, uste dut kulturalki ez zegoela jauzirik, transmisio logiko bat bazegoela nolabait esatearren. ETArekin egon zen arazoa, ETaren aurka egon baitziren gure aurreko belaunaldiko gehien-gehienak; aurkakotasun aktiboa eginez, gainera. Borroka armatua heldu aurretik ere, ETAk hasieratik izan zuen ezkertiar kutsu bat, eta horrekin jada gehienak ez zeuden ados. Gure aurreko progresistenetakoak ere kritikoak ziren ETaren sorrerarekin eta borroka moldeekin. ETAko jendea muturrekotzat jotzen zuten, baita Koldo Mitxelenak berak ere, nik uste, eta hor sortzen zen arrakala.

Arrakala hitza *h* gabe idazten da, bada, baina hizki horrek ere sortu zuen zulo galanta, eta Mitxelenaren tarteko.

Bai, neska! Euskara batuaren inguruan izugarritzko iskanbila sortu zen, gaurtik begiratuta harrigarria egiten dena. Hura zen hura eskandalua, hizki bakarraren kontura! Eta nori eta

Mitxelenaren tamainako hizkuntzalari bati, Euskal Herrian zein nazioartean aski onartua zenari, kontra egiteko! Horrelako zenbat garai hartan!

Zenbat hitzaldi eman zuen Mitxelenak... Hark esaten zuen euskalkiak hizkuntzaren ahultzearen seinale zirela, guk aberastasun bezala ikusten genituenean. Hark zioen, baita ere, Bilbo euskalduna izan balitz Bilboko euskalkia hartuko zela eredu, baina ez geneukanez halakorik, lapurtera, gipuzkera eta beste hartu zirela. «Gure

«Gerra galdu zutenen umeak ginen, eta politizatu beste aukerarik ez genuen izan. Gauza bat nabarmendu behar da, baina: gure erreakzioa gurearen alde egitea izan zen, ez besteenaren kontra. Euskararen alde, askatasunaren alde...»

hau proposamen bat besterik ez da. Azken hitza, beti, erabiltzen duenarena izango da», esan zuen behin, andereño dezenteko eta ikasle asko aurrean gintuen egun batean, Donostiako Seminarioan. Hitzaldi hura gogoangarria izan zen. Izena eman behar zen entzule joateko. Negua izango zen. Gu joan, eta hara non hasten den bere azalpenak ematen, eta Ambrosio Zatarain ingeniaria, euskaltzaina bera, Mitxelenarekin eztabaidan sartzen den. «Espainola ere galtzen ari da orain Filipinetan», esan zuen Zatarainek. Eta Mitxelenak erantzun: «A bai? Eta zuk ba al dakizu zein den Filipinetako hizkuntza? Tagaloa da, ba! Eta hori bai galdu dela!!». Niri asko gustatzen zitzaidan Mitxelenaren azalpenak entzutea, bizi-bizia zelako. Zientzialaria zen eta batuaren alde zegoen. *H* famatuaren alde egiten zuen, hizki hori komunista bihurtu zen garaietan.

Politikak den-dena zipriztintzen zuen garai hartan.

Gaur egun ere bai, baina orduan gutxi ginelako izan zitekeen, uste dut. Aurreko belaunaldikoak, Kepa Anabitarte buru zuten *eladioak*, ETak eta denak... Eladioak EAJren albotik sortuak ziren. Iñaki Aginaga *Bonzo* ere oso ezaguna zen.

Manifestazioak aipatu dituzu aurrerago. Zer eskatzeko egiten zenituzten?

Gerra galdu zutenen umeak ginen, eta politizatu beste aukerarik ez genuen izan. Gauza bat nabarmendu behar da, baina: gure erreakzioa gurearen alde egitea izan zen, ez besteenaren kontra. Euskararen alde, askatasunaren alde... Manifestazio finkoak bi izaten ziren: Maiatzaren Lehena eta Aberri Eguna. Aberri Eguneako manifestazioa non egingo, urtetik urtera aldatzen zen.

Urte batean [1966an], Aberri Eguneako deialdia zatitu eta bi tokitan egin zuten: EAJk Gasteizen eta ETak Irunen. Ni Irunera joan nintzen, eta sekula ez zait ahaztuko nola atxilotu zuten han mutil bat, euritako txamarra zuri-zuri batekin. Soinean zeraman xira bera baino zurbilago jarri zen harrapatu zutenean.

Gogoan dut beste Aberri Egun bat, Donostia osorik itxi zuten [1968koan izan zen]. Helikopteroak hegaka ibili ziren egun hartan, Askatasunaren Etorbidean zegoen jendeak «bota bonbak!, bota bonbak!» oihukatzen zuen bitartean. Grisak [Espainiako Polizia Armatua] zaldi gainean atera ziren. Txantxa bat ere egiten zen haiei buruz: «Zertan bereizten dira grisak eta beren zaldiak? Zaldien begirasun noblean».

Gero, Donostian beti izaten ziren istiluak. Maiatzaren Lehen batez, Donostian baita ere, ezkaratz batera sartu ginen ihesean, eta bertan atxilotu gintuzten poliziek, pistola eskuan. Izugarrizko beldurra pasatu nuen. Gobernu Zibilaren behealdera eraman gintuzten. Atxilotuetako asko oso gazteak ziren eta Venezuelan jaiotakoak ere gutxi ez. Hara joandako euskaldunen seme-alabak ziren, eta gogoan dut haietako neska bat kantari hasi zela, jendea deklaratzera eramaten zuten bitartean. Atxilotuetako batzuk polizien buru egiten zen Meliton Manzanasen aurretik pasatu ziren. «Hemen berriz azaltzen bahaiz, arima ere txikituko diat», esan zion gutako bati. Ni libratu egin nintzen horretatik, beste polizia batengana eraman nindutelako.

1968ko Maiatzaren Lehena izango zen orduan, berandue- nez, Manzanas urte hartako abuztuan hil baitzuten.

Ez dakit zein urtetan izan ote zen, oso buru txarra dauka-
dalako datetarako. Dakidana da 3.000 pezetako isuna bota
zigutela, eta, pagatzeari uko egin genionez, kartzelara joan
ginela hilabetez.

Erakunderen batean al zeunden militatzen?

Ez zen erraza jakiten. ETako militante bat etorri zitzaidan
behin, ea bertan militatu nahi nuen galdetuz. Dena ETA zen
garai hartan, eta ikasketak egiten ari zen jendea inguratu
nahi izaten zuen. Zatiketa egon zenean ere [1966-1967an],
ETA Zaharra eta ETA Berriren artean, gu ETA Berrin geratu
ginen, modu ez oso kontzientean.

ETA Berri *obreristek* osatu zuten: diktaduraren kontra-ko motor gisa, askapen nazionalerako borrokaren ordezt, klase borroka jartzen zutenek. Espainia eremutzat zuten hainbat erakunderekin zubiak eraikitzea egoki ikusten zuten haiek, Euskal Herriko abertzaletasunaren parte handi bat burgeztat jota. Zu hor geratu zinen?

Bai. Baina gehiegi jabetu gabe. Saltsan ibiliko nintzen, seguru, baina ez nintzen bilera zalea. Akrata samarra izan naiz beti. Ni Magisteritza ikasten ari nintzen, baina asko ibiltzen nintzen EUTGn sortu zen talde batekoekin. Ikasleak ginen denak. Gazteria hezi nahi zuen talde hark, eta guri marxismo ikastaroak ematen zizkiguten. Erdaraz. Paul Marlor Sweezy ekonomialariaren lanari buruz eta bestez hitz egiten ziguten. Itziar Barriola oso lagun nuen –Seaskako ikastoletako irakasle historikoetako bat izan zen gero–, eta biok joaten ginen. Javier Ortiz, Luis Aizpiorea, Ibon Sarasola eta beste ere tartean zebiltzan. Eugenio del Rio zen taldeko buruetako bat. EMK Euskadiko Alderdi Komunistakoak egin ziren gero hura eta talde hartako gehienak.

Zu ez.

Bueno, ordurako irtenda nengoen. Nire izaeragatik, esan dut lehen, asko kostatzen zait talde batean egotea. Lagun maiteak asko izan ditut, baina kuadrillarik ere ez dut izan sekula. Nire kasa asko ibiltzen nintzen. Irakurri ere, ahal nuen guztia irakurtzen nuen. Gauza bera idaztearekin ere. Ni hemen hasi nintzen idazten, Getarian. Gero, Donostiara joan, eta talde haietan bazen euskaltzalea ez zen jendea. Eta nik euskaraz idatzi nahi.

Euskalduna eta abertzalea burges txikiarekin identifikatzen ziren giro haietan, eta, gu ez bezala, langile klasekotzat jotzen zuten beren burua ez abertzaleek. Guri lotsa ematen zigun abertzale ginela esateak, beraz, zeharo gaizki ikusia zegoelako. Atzerakoi eta folkloristatzen jotzen gintuzten. Eta burla ere egiten ziguten. Euskara jakin gabe, euskara zenbait arlo jorrazteko ez zela gai errepikatzen ziguten.

Gaur egun, euskaldun jaiotzeak pribilegiatu egiten gaituela errepikatzen da gero eta gehiago.

Orduan ere entzuten genituen halakoak. Baina logika horren arabera, euskaldun ez direnak ere pribilegiatuak dira, esaterako, Afrikatik abiatu eta bidean itotzen ari diren horien guztien aldean, eta horrek ez ditu indargabetzen euren borrokak; ala bai? Nazio zapaldu bateko kide izatea ez dela nahikoa arrazoi borrokarako, baina langile zapaldua izatea bai, duela mende erdi luze, ohiko errepika genuen.

Ni, zuekin, denokin
oheratuko nintzateke.
Munduko udazken guztietan
izango nintzateke
ikusirik
nola berdea
urrearen antzo
gorritzen den.
Ni,
uhin gainean
uhin handiaren apar artean
herioaren beldurrik gabe
izango nintzateke.
Ni,
airean
nire herriko karrika artean
igeri ibiliko nintzateke.
Ordez,
gauza hoiek
hala ez diren bitartean.
Berarekin oheratzen naiz.

Lehen aipatu duzu, duela mende Erdiko jazarpen-erreakzio dinamikan, sexu askatasunaren aldarria ere zure egin zenue-la. Benetan askatzailea izan al zen aldarri haren gauzatzea?

Nik uste dut hura zela, gutxienez, sexu askatasunaren hasiera. Nahi dutena esango dute, gainera, baina antisorgailuak

zoragarriak izan ziren. Ni 18 urteez geroztik hasi nintzen hartzen. Ovopausinol, izenarekin akordatzan naiz oraindik ere. Hainbeste hormona ziren, bizarra ez zitzaigun atera ez dakit zergatik [algaraka]. Gero hasi ziren Euginol eta beste batzuk. Eta Emilio Lopez Adan Beltza ezagutu genuen eta dena errazago pasatu zen. Haiek ziren hasierakoak.

Askatasunaren hastapenak ziren haiek, bai, eta ez gizonentzako bakarrik, guretzako ere bai. Nik ere plazera sentitzen nuen. Batzuek esaten zuten etxekoandre onena plazerik sentitzen ez zuena zela, argia itzalita egin behar zela larrutan eta beste. Eta nik ere orgasmoak sentitzen nituen eta aldarrikatu egiten nituen. Hor bai egon zen aldaketa bat.

Bazen beste gauza bat ere hor: alkohola edatea. Nik kontzientzia bat baneukan: besteak gaixo daitezkeen bezala, neu ere gaixo nintekeela. Baina mozkortzea ez zitzaidan batere inporta. Ez ginen egunero mozkortuta ibiltzen, baina mozkortzeko beldurrik gabe edan ahal izatea askatasunarekin lotzen nuen, gizonak bezala izatearekin. Gero konturatu gara kontua ez dela gizonak bezalakoa izatea, gure bide bat egitea baizik, baina hori dena gertatu zen.

«Nazio zapaldu
bateko kide izatea ez
dela nahikoa arrazoi
borrokarako, baina
langile zapaldua izatea
bai, duela mende erdi
luze, ohiko errepika
genuen»

Zure kasuan, gainera, pertsonaia publikoa zinen, emakume idazle bakanetakoa.

Arantxa Urretabizkaia heldu zen arte, inor gutxi zegoen. Pantxika Erramuzpe ere agertu zen San Martinen poesia bilduman, baina ez nuen haren idazlanen berririk izan gehiago. *Zeruko Argia*-n idazten genuenean, gainera, Rikardo Arregi-ekin-eta, ezkerretik jotzen genuen. Marx irakurtzen genuen. Generoagatiko markari, beraz, ideologikoa erantsi genion.

Ezkertiarra eta neska gainera... Pentsa ezazu! Eta EAJkoak erabat antimarxistak ziren. Euren geneetan dakarte hori.

Poesia idazten hasi nintzenean, bada, zer egingo nuen nik? Marx gora eta Marx behera hasi! Poesia soziala beti gustatu izan zait, gainera. Baina kaka. Azken batean, poesia sozial ona egitea, beste poesia guztiak bezala, ez da erraza. Eta urtebeteko nire poesiagintza osorik ezabatu nuen, lotsa ematen zidalako emaitzak. *Uhin berri* bilduma baino lehenago izan zen hori. Orduan pentsatu nuen maitasunaz idazteak ere bazuela garrantzia. Ez dakit *iraultzailea* hitz egokia den, baina maitasuna ere gai soziala dela pentsatu nuen, inportantea dela. Orduan hasi nintzen idazten benetan, barrutik.

Gonak erori zaizkigu
eta galtzak jantzi ezinik gabiltza.
Lehen zen histeria
izan zen misterioa
ez dugu berri paranoia
argitzen ari da historia.

Ezizenik erabili al duzu inoiz?

Behin bakarrik, Andoainen emakume batek alutik perrexila sartu eta abortatu zuenean. Hil egin zen, sortu zitzaion infekzioaren ondorioz. Abortuaren alde idatzi nuen horren harira, eta ez zen erraza. Nire laugarren abizenarekin sinatu nuen artikulua, Muruarekin. *Argia* garaian izan zela esango nuke. Abortuaren gaia jorratzen hasiak ginen gure amatasuna aske bizitzeko eztabaidaren barruan. Feminismoaren booma gertatzen ari zen hemen.

Non harrapatu zintuen eztandak?

Joxean Artzerekin ezkondata. 26-27 urte nituen kontzienzia feminista hartu nuenean. AEBetan titi-poltsak erretzen ibiliak ziren ordurako, baina Frantziara begiratzen genuen guk batez ere. Simone de Beauvoirrek eta beste 342 emakumek abortatzeko eskubidearen aldeko manifestu publiko

bat sinatu zuten 1971n, *Nik abortatu dut* izenburupean. Eta Shere Hite estatubatuarrak bere txosten ezaguna argitaratu zuenean, 1976an, emakumeon sexualitateari buruz, argi geratu zen emakumeok sexualki ere bageneukan ahal handia.

Donostian ere egon zen mugimendua, baina dena erdaraz zen. Kontzientzia faltagatik zela esango nuke, ez gogo txarragatik. Madrildik etortzen ziren asko. Hala elkarrizketatu nuen *Argia*-rako Lidia Falcón, Euskal Herrira etorri zen batean. Eva Foresten lagun handia zen hura, gero aldendu egin ziren arren. Maria Aurèlia Capmany ere elkarrizketatu nuen. Idazle katalan hura feminista eta ezkertiarra zen oso.

Mariasun Landa, ni neu eta beste pare bat izaten ginen halako guztietan. Bilerak ere egiten genituen tarteka. Bilera batera joan nintzen batean, Leioan, han ere dena erdaraz, dena erdaraz, eta halako batean marrua egin nuen: «Eta euskara non?». Eta Amaia Zubiriak altxatu eta *Loa loa* kantatu zuen. Halaxe tokatu ginen biok toki berean, bakoitza bere aldetik joanda. Zorionez, euskararen gaia asko aldatu da gaur egun mugimendu feministan.

Eta nolakoa zen gizonen jarrera duela mende erdi?

Aurrerakoia zirenak aliatu-edo genituen, baina feminismoa gure gauza zen, ez eurena, eta bakean uzten gintuzten geuk bakean uzten genituen neurrian. Martxoaren 8ko manifestaziora eurekin joaten ere hasi ginen. Txantxa egin zuen marrazkilari batek, manifestaziotik bueltan gizona etxeko sofán irakurtzera eseri eta «maitea, afaria egingo didazu?» galdetzean «bai, laztana» erantzuten zion emakumea marraztuta. Halako kontraesanak hamaika genituen, neuk ere bai. Patata tortilla beti guk egin beharra... Gaur egun ere baditugu gure kontraesanak, baina orain liberatua sentitzen naiz. Garai batean bakarrik eta nire kabuz bizi nahi nuen, baina askatasunak indar asko eskatzen du.

**Zuk Artzeri egiten zenizkion tortillak, Ez Dok Amairuko bu-
ruetako bati. Zenbateraino ezagutu zenuen proiektu hura?**

Ni han ibiltzen nintzen, harantz eta honantz, eta kito. Euren kontua zelako, jakina, eta ni ez nintzelako euretakoa. Nire iritzia da euskal kantari eta musikari talde eder bat zirela. Ikuskizun moduan antolatzen zituzten beren emanaldiak, eta oso emaitza politak izaten ziren. Herriz herri ibili ziren. Baita atzerrian ere. Akordatzan naiz behin Britainiako jaialdi batean elkartu ginela, esaterako, estatutik gabeko herrietako jendea: okzitaniarrak, bretoiak, euskaldunak... Han ez zen frantsesik.

Nola ezagutu zenuen Artze?

19 urte nituela hasi nintzen harekin ligatzen. Afari baten harira izan zen, Luis Nuñez, Victor Suinaga eta besterekin. Haiek bazuten harremana kultur munduko jendearekin. «Goazen Artze bisitatzer», esan zuten, eta halaxe ezagutu genuen elkar, Usurbilgo bere etxe zaharrean. Hantxe zegoen, bere burutazioekin. Ezagutu nuenerako egin zuen Europako buelta; Suediaraino joana zen Jose Luis Zumetarekin. Joxean espeziala zen benetan.

Lehen topaketa hartan ez ginen ez lagun ez ezer egin, baina handik pixka batera Getariara azaldu zen, nitaz galdezka, eta etxera ekarri zuen gure anaiak. Ni erdi lotan nengoen, herriko festak zirelako, eta ez nintzen jaiki ere egin.

Hurrengo batean elkartu zineten, bistan denez.

Interesantearena egitea gustatzen zitzaion. Eta ni tuntuna, gerora arte ez nuelako ikusi atzetik joaten bazintzaizkion paso egiten zuela zutaz, baina zuk beraz paso egiten bazenuen atzetik etortzen zitzaizula. Hamar urte egin genituen elkarrekin. Lehen biak, Usurbilen, bere familiarekin. Itomena sentitzen hasi nintzen arte. Handik alde egin behar nuela-eta, pixkanaka, nire gauzak etxetik ateratzen hasi nintzen. Konturatu zenean, nirekin segitu nahi zuela eta segitu nahi zuela, eta baldintza bakarra jarri nion Joxeani: geu bakarrik bizitzea. Onartu egin zuen, eta etxe zoragarri bat topatu nuen Kale Zaharren. Hara joan ginen bizitzera. Gela bana jarri genuen,

bakoitzak berea idatzi ahal izateko. Han bi urte egin genitue-nean, proposatu zidan bera idaztera bakar-bakarrik jartzea eta ni lan egitera eta idaztera.

Eta zer erantzun zenion?

Baietz, nola ez. Horixe espero zen nitaz, azken batean. Baina hor ere ito egin nintzen.

Zuk ere idatzi nahiko zenuen-eta.

Bai ba! Zeinen tuntuna izan nintzen...

Zer iritzi zenuen haren poesiaz?

Egia esan, Joxeanen poesia ez zitzaidan gustatzen. *Txoria txori* beti gustatu izan zait, baina askoz gehiago ez. Gustukoago nuen Xabier Lete bera, esaterako. Eta Gabriel Aresti. Aurrekoen artean, Lizardi maite nuen bereziki.

Eta nolako harreman intelektualaren zenuten?

Bazegoen harreman intelektualaren, jakina, gure artean. Beste askorekin ere bai. Gai askoren inguruan aritzen ginen hizketan, irakurketan, eztabaidan.

Baina nik ere idatzi nahi nuen, eta nik idatzitakoari ere balioa ematea. Eta ez zen hala. Nik idazle ibilbide bat egin nuen harekin hasterako, neure bizitza ere bai, baina uste dut ez gaituztela kontuan hartu, zergatik eta emakume izateagatik.

Gogoan dut lagunarteko afari bat, esaterako, denak gizonak eta neu emakume bakarra. Poetek idazten hasteko zeuzkaten maniei buruz hasi ginen hizketan. Beste guztiek idazteko beren erritualak esplikat

«Bazegoen harreman intelektualaren, jakina, Joxean Artze eta nire artean. Beste askorekin ere bai. Gai askoren inguruan aritzen ginen hizketan, irakurketan, eztabaidan. Baina nik ere idatzi nahi nuen, eta nik idatzitakoari ere balioa ematea. Eta ez zen hala»

zituzten, eta niri ez zidaten galdetu ere egin nireaz. Ez nintzen idazlea haien begietara! Arestik eta San Martinek zerbait bitxi bezala ikusi ninduten, baina gainerako gehienek ez dut uste.

Urteoro, urteoro, otsailaren 3an
San Blas eguna.

1977ko otsailaren 3an bigarren liburua
argitaratu nuen.

1978ko otsailaren 3an senarrarengandik bereiztu,
bizialargun bihurturik.

Hitz nahastuak argitaratu eta urtebetera eten zen erabat Artzeren eta zure arteko harremana.

Neuk ere poesia buru-belarri idazten hasi nahi nuenez, nork ekarriko zuen ogia etxera? Hortik sortutako eztabaidaren haritik, gure arteko maitasuna hautsi egin zen, eta etxetik alde egin zuen. Joxeanekin egindako urteetako ezer ez nuen gorde, ez argazkirik ez ezer, eta azaldu izan balitz puskatu egingo nuke, halakoxea naizelako. Joxeanekin ezkontzeko erosi nuen urre zuriko eraztuna ere halaxe bota nuen itsasora Donostiako Paseo Berritik. Sinbolo bat zen, eta askatasun bila bota nuen.

Bizitza zer den, duela ez asko, Artze eta biok elkarrekin gaudeneko erretratu bat agertu da zaborretara botatako argazki multzo batean, Villabonan. Zaborretatik erreskaturatu zuen mutil batek, Mikel Laboa, Artze eta beste argazki haietan ezagututa. Kasualitatea, mutil hori nire iloba baten oso gertukoa da, eta aurkikuntza egin zuela esanez erakutsi zizkion argazkiok. Eta han neu ere. Halaxe jaso dut duela gutxi Artzerekin daukadan argazki bakarra. Pixka bat handitu, markoan sartu eta hor dago orain [egongelako apalategia seinالاتu du eskua luzatuz].

Argazkiotan Ez Dok Amairuko zenbait kide ere ageri da. Euskal kultur giroa nabarmen astindu zuten haiek. Kontrako ahotsak ere harrotu zituzten. Emanaldiak kobratzea erabaki zutenean, esaterako.

Eskandalua izan zen horrekin, bai. Beraiek ez zuten diru asko irabazten. Astorian jotzen zutenean, esaterako, Astoriak kobratu egiten zien beraiei ere. Gogoan dut Parisera joan ginen batean gertatutakoa: izugarrizko muntaia zeukan antzezlan bat ikusi genuen; han lanean ari zen euskaldun batek atera zigun Ez Dok Amairuren kontua, kritika moduan, kobratzen hasi zirela eta beste. «Zuek ere kobratzen duzue», esan genion guk. «Baina guk antzokia eta muntaia, dena pagatu behar dugu», hark. Eta guk: «Baita Ez Dok Amairukoek ere! Zer uste duzu egiten dutela haiek?». Astero-astero biltzen ziren eta!

Nire ustez ondo egin zuten kobratzea erabaki zutenean. Momentu hartan, bere gaixotasunagatik, Lourdes Iriondok ez zuen lanik egiten. [Jose Angel] Irigarai medikua zen eta Laboa haur psikiatra. Joxeanek, berriz, Usurbilen harategia zeukan anaiarekin batera. Benito Lertxundi zen kantugintza hutsetik bizi zen bakarra. Lete ere, hortxe-hortxe.

Zergatik puskatu zen Ez Dok Amairu?

Irigarai eta Artze egiten ziren buru eta guru han, pixka bat. Joxean beti zebilen «Jaungoikoaren barrabilak» eta halakoak aipatzen, eta Irigaraik ez zituen gustuko. Garai berriak ate joka zetozen eta hura EAJrantz begira zegoen neurri batean; Artzek, berriz, halakoak egiteari ez ziola utziko zioen. Hala-ko kontuengatik zatitu zen Ez Dok Amairu, eta, azkenean, kontua zer da eta Artzek errosarioa errezatzen eta mezetara joaten bukatu zuela, eta Irigaraik moderatuago-edo!

Poema
sinboloz eta mitoz
hustu zenean
zu zeunden
poema hutsaren hondoan,
biluzik
behargorri
negarrez
maitasun eske.

Zer sentitzen du batek bere poesia fundazionaltzat jotzen dutenean, Amaia?

Ez dut neure buruaren uste handirik horregatik, besteen buruarena ere ez dudan era berean. Ez naiz batere mitomanoa, alde horretatik. Baina beste alde batetik, pozten naiz euskal literaturaren partaide izateaz eta poetatzat hartua izateaz. Mariasun Landak bere garaian idatzi zuen artikulua bat *Egin-en*, *rara avis* bat eta beste nintzela esanez. Nire poesia fundazionala delakoa Koldo Izagirrek idatzi zuen, eskaini zidan xx. Mendeko Poesia Kaieran.

Jaungoiko guztiak ukatzen dituen emakume bat naiz ni idatzi nuen, bai, denak otoitzean zebiltzanean. Idazle izatea, nik erabili nituenak bezalako hitzak erabiltzea, barrutik ateratakoak izanik ere, eta zenbait jarrera publikoki erakustea, ondo ordainaraziak izan dira. Nire poema haiek argitaratutakoan pasatu nituenak ikusita, fundazionala ez dakit, baina aurrenetakoa izan nintzela esatea ez da harrokeria izango.

Zer pasatu zenituen, bada?

Oso kritikak sentitzen nintzen. Zentzu askotan. Janzkera-gatik, esaterako. Joxeanekin hasi nintzenean ere, aste-bukaera batean haren etxera joan nintzen. Nik 19-20 urte nituen eta

«Idazle izatea, nik erabili nituenak bezalako hitzak erabiltzea, barrutik ateratakoak izanik ere, eta zenbait jarrera publikoki erakustea, ondo ordainaraziak izan dira»

hark bederatzi urte gehiago zituen nik baino. Haren gurasoak hilda zeuden, eta ni etxe hartara asteburu pasa joan izana oso gaizki ikusi zuten batzuek. Magisteritza bukatzeaz nengoen. Usurbilgo guraso batzuek galdetua zidaten ea joango nintzen hango ikastolara irakastera, eta nik baie-tza emana nien. Ez ninduten

hartu azkenean. Seguru nago Joxeanen etxera joan izanarekin izan zuela lotura erabaki horrek. Zertan aritu ginen

imaginatzen ibiliko ziren denak, eta asmatu egingo zuten gainera, baina zer inporta zien haiei? Horiek denak gertatzen ziren orduan. Ikastolen mundua oso konplexua izan zen zentzu batean. Gure herria oso itxia zen, baita ezkerreko jendea ere, eta oso gaizki ikusia zegoen inorekin juntatzea bat. Bonba bat bezala erori nintzen Usurbilen ere.

Horregatik ezkondu al zinen Elizatik Joxeanekin?

Bai. Nigmatik. Ikastolagatik. Nik gure egoera ofizializatu nahi nuen, eta orduan ez zegoen ez ezkontza zibilik eta ez beste ezer. Beti esaten nuen ez nintzela ezkonduko, eta azkenean ezkondu! Elizatik, gainera!

Zuriz?

Ez [barreak]! Soinean traje urdin ilun bat nuela ezkondu nintzen, Usurbilgo San Estebango elizan. Joxean oinez igo zen hara, botekin, eta ni kotxean. Gure ama ez zen batere handinahia, baina edonola jantzita ez nintzela ezkonduko esan eta Zarauzko Rochasenera eramanez ninduen. Han erositako trajea eta blusa jantzita ezkondu nintzen. 25 urte nituen.

Oso jende gutxi ginen elizan. Mikel Laboa eta Marixol Bastida bai. Mikelek *Txori erresiñula* kantatu zuen. Ez nuen halakorik espero. Jose Luis Zumetak eramanez zituen arrak, berak buztinez eginak. Ez dakit non dauden gaur egun.

Jakin izan banu nik ze komeria izango nituen gero, apartatzeko! Tranpa hutsa baitzen ezkontza. Eskandalurik ez sortzeko ezkontzen zinen, baina dibortziorik ez zegoenez garai hartan, apartatzeko prozesua ere eskandalo hutsa bihurtzen zen. Ez daukat orduko sufrimendua gogoratzeko ohiturarik, hala ere. Gauzak etorri ahala gainditzeko eta aurrera begiratzeko joera daukat. Nahi dutena esatea daukate, gaur egun ere.

Esanak esan, lanean aritu zinen beti. Zein zentzu hartzen zenion irakasle lanari? Moja misiolariz zuzendutako Donostiako ostatu hartan, zeuok ere misio bat zenutela barneratu al zenuten?

Ez ez ez. Guretzat inportantea zen gerorako formakuntza bat jasotzea, eta ez dakit nola aprobatu nuen, hori ere egia da. Filosofia asko gustatu izan zait beti, baina Tomas Akinokoa-ren pentsamenduaz ari zitzaizkigun, guk Jean-Paul Sartre eta Simone de Beauvoir irakurtzen genituen garaian. Eta desastre hutsa nintzen matematiketan. Malcolm X-k behin esan omen zuen ez zitzaizkiola matematikak gustatzen zenbakien mundu horretan gauzak era bakarrean izan daitezkeelako, eta erabat ulertzen dut pentsamendu hori, irudimenezko munduan aukerak hamaika izan daitezkeelako.

Nola ulertzen nuen nire jarduna testuinguru hartan, beraz? Kubako egungo medikuenaren tankeran. Kuban ikasketak ordaindu egiten zaizkio jendeari, izan ere, eta, alderdikoa izan ala ez, mediku ikasketak egin dituenari bi urtez lana Kuban egitea eskatzen zaio. Nik ondo ikusten dut hori. 23 urterekin bukatu nuen Magisteritza ikasketa bidea. Ikastole-tan lan egiteko konpromisoa geneukan, ez zegoelako jende formatu askorik haietan aritzeko. Bederatzi urte egin nituen guztira lan horretan.

Nola gogoratzen dituzu hasierako lan urte haiek?

Artean homologatu gabeko ikastetxeak ziren, baina etxe partikularretako geletatik irtenda zeuden ni hasi nintzenerako. Usurbil-Lasarten aritu nintzen eskolak ematen, eta, Lasarteko Zubietan ikastola eder bat egin zutenean, han ere bai. Bizi genuen egoerari neurria har diezaiozun: hara azaldu zitzaigun behin inspektore bat, umeei politikaz hitz egiten ote genien galdezka. Egia esan nion nik, ezetz, eta mapa bat marraztu nion, hala moduz. Beldurrez ginen inspektoreak noiz etorriko. Ume guztien izenak espainiartuta jasotzen genituen eskolaratze agi-rietan. Diktadura batek halakoak ekartzen ditu, azken batean.

Tituluak hain maiteak dituen gaur egungo ikuspegitik entenditzen ere lanak, guraso batzuek homologatu gabeko ikasketak egitera bidaltzea beren umeak. Zuen lan baldin-tzak ere hala moduzkoak ziren.

Gu ez geunden izen emanda Gizarte Segurantzaz. Egindako lan urte haiek ez genituen kotizatu, beraz. Baina guri bate-re inporta ez orduan. Gaurko mentalitatearekin, ulertezina gerta daiteke gehienentzat, bai langile ikuspegitik, bai guraso ikuspegitik, bai ekintzailatza ikuspegitik.

Ikastolak auzolanean eraiki ziren, fisikoki eraiki ere. Hortik ere kritikak etorri ziren, baina. Legezkoak ez zirenez, pagatu egin behar ziren haiek, nahi eta nahi ez. Orduan ere, burges deitu ziguten. Ez bereiztea herri ekimen bat zela eta ordaindu egin behar zela orduko gobernuak ez zuelako dirurik eman nahi... Lasarteko ikastola, gero, publikatu egin zen. Baina horrek ez du desagerrarazi herriko beste eskola, lehengo eskola nazionala.

Burgesak gineneko kontu haiek entzuteaz gain, guraso fundamentalista batzuk ere ezagutu nituen urte haietan, esan dizut lehen zergatik ezkondu nintzen. Bata komunista zela eta bestea ez-dakit-zer zela esaten aritzen ziren. Mamuz beteak zeuden. Eta New Yorkera joatea erabaki nuen.

1979an joan zinen hara. Aurretik, 1977an, *Euskal idazleak, gaur* liburua plazaratu zenean, emakume batzuek protesta egin zenuten.

Joan Mari Torrealdaik Arantxa Urretabizkaia eta biok aipatu gintuen lan horretan, idazle garaikide gisa. Gizonezko idazleak, berriz, argazki eta guzti atera zituen. Eta kexatu ginenean, burla egin ziguten. Betikoa da. Idazten utzi ez, eta idatzi dugunean gure literatura intimista dela esan izan dute, sinplea dela ere bai, gutxiesteko. Ez dakit nik zer daukaten txarretik intimitateak eta sinpletasunak. Eta sinpletasuna eta sinplekeria ez dira gauza bera.

Nire zortzi deiturak ez dira euskaldunak.
Nire euskara ez da garbia.
Nire hitzak ez dira txukunak.
Nire sinesmenak ez dira heurenak
hala ere
Euskal Herria sortzen ari gara.

1960-1970 urteetako protagonista batzuk aipatuko dizkizut. Lehena: Gabriel Aresti.

Oso eskuzabala izan zen idazten hasi ginenokin. Ez dakit denoi, baina askori bai, animoak eman zizkigun. Hark idatzi zuen etorkizuneko euskal idazleak Mikel anaia eta biok izango ginela. Behin bakarrik afaldu nuen harekin eta emaztearekin, baina bateren baten bitartez helarazi zidan mezua

«Gabriel Arestik
euskaraz idatz zitekeela
argi utzi zigun. Ez
zeukan inolako arazorik
erdarakada bat sartzeko
ere. Euskara hizkuntza
sakratua-edo zela
ematen zuenean, hori
dena puskatu zuen»

esanez nire idatziek indarra zutela eta ez uzteko idazteari. Gehiagotan ere jaso nituen haren mezuak. Halako kultur dinamizatzailerik egin zuen.

Hizkuntzaren aldetik ere izugarritzko eragina izan duela uste dut, eta ez bakarrik batuaren alde egin zuen lanagatik. Euskaraz idatz zitekeela argi utzi zigun hark. Haren poemak irakurri nituenean, izugarria izan zen. Ez zeukan inolako arazorik erdarakada bat sartzeko

ere. Euskara hizkuntza sakratua-edo zela ematen zuenean, Arestik hori dena puskatu zuen. Sormen aldetik oso aberatsa zen. Antzezlanak, poesia, hitzaldiak..., denetarik idatzi zuen.

Sozialista zen eta EAJrekin izugarritzko enfrentamendua izan zuen. Bulegoko lanean oso gaizki pasatzen zuela esan zidan behin Juan San Martinek.

Juan San Martin.

Oso gizon modernoa zen. Sozialista eta euskal kulturarekiko izugarritzko errespetua eta mira zeuzkan. Jose Luis Lizundiarren eta Koldo Mitxelenaren ondoan dago, esaterako, Arantzazun 1972ko uztailan euskara batuaren aldekoek egin dako bilera eguneko argazkian. Argazkian gizona besterik ez da ageri, hori ere hala da. Emakume bakarra ere ez zuten deitu bilera hartara. Ezta bururatu ere! Karmele Rotaetxe

hizkuntzalaria daukat gogoan nik. Bilbotik etorri ohi zen bilera guztietara, bere Seat 600 txikian. Hura ere hor ibiltzen zen, eta izango zen gehiago ere, baina zertarako deitu haiei?

Rikardo Arregi.

Pertsona jatorra eta langilea oso. Eta progresista, baina bes-teak baino *normalagoa*, itxurakeriarik gabea. Oso azkarra eta interesgarria zen eta asko irakurtzen zuen. *Herriak eta gizonak* atalean hasi nintzenean, astero-astero elkartzen ginen hura, Antton Santamaria eta beste. Frankismoarekin ez zegoen espaziorik hemen alderdi politiko bat sortzeko, baina espaziorik izan balu uste dut sortuko zuela zerbait, mugimenduren bat-edo. Pentsa ezazu: alfabetatze kanpaina sortu eta abian jartzeko gauza izan zen. ETAn egon zen, hasierako ETA Zahar famatuan. ETA Berrirekin ez zela fidatzen zioen, eta arrazoia zeukan nolabait, ezta? Batzuek hainbeste azpimarratzen zuten *abertzale ala sozialista* dikotomia hori ez zuen ikusten.

Mikel Laboa.

Lotsatia zen oso-oso-oso. Eta maitekorra. Taldean norbait galduta ikusten bazuen, harengana joaten zen beti. Ez zen asko hitz egitekoa, baina pisu handia zeukan Ez Dok Amairun. Haren kantuak zoragarriak dira. Ahots tinbre oso berezia zeukan. Lehen aldiz entzun nuenekoa gogoan dut; asko hunkitu ninduen. Bartzelonan grabatu zuen lehen diskoa. *Azken* zuen ezizena garai hartan, beti azkena iristen zelako toki guztietara.

Txillardegi.

Ondo konpontzen nintzen harekin ere. Baionako idazleen biltzarrerara Belgikako erbestetik etorri zen. Han gorriak pasatuko zituztela pentsatzen dut. Ezingo nuke baloratu idazle bezala; zaila egiten zait nire garaikide gehienen lanak baloratzea. Euskara batuaren auzian-eta erabakigarria izan zen. Ez zaio aitortu oraindik. Haren emazte Jone Forcada ere asko apreziatzen dut; ikastolen mugimenduan ekarpen handia egina da.

Amaia Zubiria.

Lagun min-mina dut. Usurbilen ezagutu nuen, Joxeanekin bizi nintzela, haren arrebaren ile-apaindegira etortzen hasi baitzen ofizioa ikastera. Harreman handia izan dugu beti. Gaur arte. Nahiz eta kantari bezala profesionalen pare aritu, zaila izan zaio hortik ondo bizitzea.

Lourdes Iriondo.

Lehenengo protesta kantaria izan zen. Euskal kantari gisa azaldu zenean kultur panorama astindu zuen, eta hori aitortu egin behar zaio, zalantzarik gabe. Elkar ezagutzen genuen eta miresten nuen bere lana, baina ez gentozen bat gauza askotan.

Arantxa Urretabizkaia.

Lur argitaletxeko taldean sartu zen. Denbora eta herri ezberdinetakoak izan garelako, ez dugu askotan topo egin.

Mariasun Landa.

1974an ezagutu nuen, feminismoaren boom horretan. Oso intelektuala da. Ezagutu eta gerora hasi zen euskaraz idazten, eta bere ipuinak gure seme-alabei irakurri izan dizkiet.

Jon Mirande.

Ai, Mirande... Asko-asko miresten nuen. *Haur besoetakoa* irakurri nion, eta liluratu egin ninduen. Arestik argitaratu zuen lehen aldiz. Gero, liburu horrek 50 urte bete zituenean, irakurraldi bat egin zitzaion Bilbon, eta batek kritika egin zion, Mirande pederasta zela esanez nolabait. Baina nik irakurri nuenean ez nuen pederastiaren apologiarik ikusi liburu hartan, baizik eta gizarte patriarkal baten emaitza den gizonetzko protagonista bat, birjintasuna asko baloratzen duen giro sozial batekoa, 11 urteko haur batekin maitemintzeraino. Niri asko gustatu zitzaidan nobela. Ona iruditzen zitzaidan, eta euskara oso ederrean idatzia. *Lolita* idazteak pederasta bihurtzen al du Nabokov? Nire ustez, ez.

Idazle bezala maite egiten nuen, eta pena handiarekin geratu nintzen haren heriotzaren berri izan nuenean. Ez nuen aurrez aurre ezagutu, saiatu nintzen arren. Txomin Peillen ezagutu nuen, eta, oso lagunak zirenez, han abiatu nintzen behin Parisera, sagardo botilak hartuta, Peillen bera lehenik, eta, ondoren, Mirande ere bisitatzekotan. Ailegatu nintzeneko ospitaleratua zegoen, baina, eta bisita egin gabe geratu nintzen. Handik pixka batera egin zuen bere buruaz beste. Bere literaturaren bitartez bakarrik ezagutu nuen, beraz.

Esaten zuten miresmen handiarekin entzuten zituela Hitlerren predikuak. Nik ez dut Hitler defendituko sekula, jakina, ezta Franco ere, baina beti akordatzen naiz Miranderen ekarpenarekin. *Igela* aldizkaria ere oso balekoa izan zen, bere umore beltz harekin. Nik Mirande idazlea aldarrikatzen dut.

Mirande 1972an hil zen. Franco diktadorea, berriz, 1975ean. Haren heriotza ere gogoan al duzu?

Nola ez ba! Mikel Laboaren eta Marixol Bastidaren etxean ospatu genuen, kristoren afariarekin. Casa Nicolasako seme Evaristo Urrestarazuk eraman zituen jatekoak; baita Frantziako xanpain botilak ere. Urrestarazuren alia *Frantses* zen. Oso torturatua izan zen 1960ko abuztuan, Julen Madariaga, Rafa Albisu, Imanol Laspiur eta beste ere atxilotu zituzten sarekada batean. Laboaren lagun handia zen Jose Ignacio Aiestaran *Baroja* ere ospakizun hartan zen. EGIN ibilia zen hura; ELA-Berriren sorreran parte hartu zuen. Gure anaia Mikelek adiskidetasun handia egin zuen harekin. Joxean eta biok joan ginen afari hartara.

New Yorkera ez zinen Joxeanekin joan.

Ez, Hectorrekin joan nintzen, nire bigarren senarrarekin. 1979an.

Nola ezagutu zenuen hura?

Suitzan, Friburgon. Mikel anaia han zegoen irakasle, eta harengana joan eta urtebete egin nuen bertan. Unibertsitateko

jangelan zerbitzari lanetan aritu nintzen. Han ezagutu nuen Hector –Artola zuen abizena–, Joxean artean nobio nuela eta Magisteritza ikasketak bigarren maila batean utziak nituela. Aita Foucaulden Anaidikoa zen Hector. Hemengo apaiz obreroen tankerako zer bait ziren, kale etxeetan bizi ziren. Ikasketa guztiak egin ostean apaiz sartu zitezkeen, baina ez zeuden horretara derrigortuta. Ezagutu nuenean, Hector ez zen apaiza. Oso liberala zen, [Jorge Rafael] Videlaren diktaduratik ihes egindakoa.

Handik urteetara elkartu zineten berriro.

Joxeanek ni utzi eta Getariara bueltatu nintzenean, hain zuzen ere. Uda zen, eta gutun bat bidali zidan Hectorrek. Mexikon zegoen, eta han zegoen montonero batek erbesterratu argentinar guztien babes sarearen arduradun jarri zuen. Ez zen lan makala, asko baitziren Mexikora alde egindako argentinarrak. Bi urte egon zen han, eta New Yorkera joan zen. Harengana joatea erabaki nuen, bada, eta han hilabete egon ostean, hona itzuli nintzen, laneko kontuak zuzentzera. Hector ere hona etorri zen, eta Donostian ezarri ginen. Hark ez zuen hemen geratu nahi, eta atzera New Yorkera joan ginen. Han denbora dezente egin genuen, Nikaraguara joateko pasajea lortu arte, eta halaxe joan ginen biok.

Itsasoak
zeharkatu ditugunean
Hodeiak
gureganatu ditugunean
ilargia
menderatu dugunean
Bakar bakarrik
hil zara
gosez
Julio Verne-ren
ametsak
egi bihurtu diren
mundu hontan

Gosez hil zara
bakar bakarrik
bederatzi urtekin

Zer aurkitu zenuten Nikaraguan?

Izugarrizko pobrezia. Hiru urte egin genituen han. Matagalpan ezarri ginen eta irakasle lanetan aritu ginen Hector eta biok. Hector, errekisatutako etxe batean, alfabetizatu berri ziren baserritarrei traktoreak nola konpondu erakusten. Ni, berriz, moja batek zuzentzen zuen kolegio batean hasi nintzen literatura irakasten. Sandinistek ordaintzen zuten eskola hura; lehen hezkuntzatik batxilergora arteko ikasleak zituen.

Kattin alaba han eduki nuen, eta han idatzi nuen *Emakume beltz bati omenaldia*, haurraz erditzen lagundu zidan obstetrari eskainia. Kubatarra zen Silvia, emakume fin-fin-fina, beltza. Oraindik ere badut harremana harekin. 85 urte ditu gaur egun.

Bizitza zer den, Nikaraguan berriz egin nuen topo Donostiako nire lehen internatuko *Misioneras del Sagrado Corazón* delako ordenarekin. Kolegioko zuzendaria, Marta, ordena horretakoa zen. Gerra garaian lubakitik lubakira sandinistentzako informazioa garraiatzen ibilia zen moja hura. Arerioek uste zuten zaurituei laguntzen ari zela, besterik gabe, baina bai zera! Iraultzailea zen hura. Gerra bukatutakoan hartu zuen kolegioa. Oso ondo egon ginen han, haren ordenako espainiarrak agertu ziren arte.

Etorri orduko nabarmendu ziren moja haiek sandinisten kontra. Nik eskola utzi nuen eta Martak abitua erantz zezan saiatu nintzen. Ez dakit gehiago hari buruz.

«Nikaraguan izugarrizko pobrezia aurkitu genuen. Hiru urte egin genituen han. Ni moja batek zuzentzen zuen kolegio batean hasi nintzen literatura irakasten»

Iraultza sandinistan parte hartu zuen Daniel Ortega dago agintean gaur egun Nikaraguan.

Eta tirano bat bihurtuta dago bere emaztearekin batera, baina uste dut iraultza sandinista positiboa izan zela. Anastasio Somoza jaun feudal bat zelako, azken batean, eta iraultza sandinistak hori hautsi zuelako. Parlamentu bat, alfabetatze kampainak ingelesez eta gaztelaniaz, osasun eta hezkuntza sistema unibertsalak..., horiek denak antolatu zituen sandinismoak. Iraultza guztietan bezala, baina, Nikaraguakoan gorabehera handiak izan dira. Azken urteetan, batez ere. Orain dela gutxi hil da, esaterako, Hugo Torres jeneral sandinista, 1974an Ortega kartzelatik ateratzea lortu zuen iraultzaileetako bat. Ba al dakizu non hil den? Kartzelan, berak libratu zuena agintean dela. Historia, aldiro, ikaragarria da. Eta 25 urterekin [1979an] León hiria hartu zuen Dora María Téllez komandante sandinista ere kartzelan dago egun egoerarik penagarrienean.

Oso ondo hartuak izan ginen Nikaraguan, eta bere momentuan iraultza eredugarritzat geneukan. Espero dut hango herriak jakingo duela iraultza berriro ere bideratzen.

Nikaraguatik Getariara bueltatu zineten.

Ondoko etxera, bai. Hor segitzen zuen Lasarteko ikastolak, baina D ereduko publikora aldatu nintzen. Lantegia aldatu nahi nuen. Eta lur sail bat hartu genuen Getarian, berotegiak ezarri eta nekazaritza lanak-eta egiteko; baina Hectorrek ez zuen bere burua hemen ikusten, eta azkenean joan egin zen, 1999an. Harremana ez dugu sekula eten erabat; bi seme-alaba ditugu elkarrekin. Azkenekoz harekin egon nintzenean, abortuaren kontra zegoen eta Biblia aipatzen zuen. Orain apaiz egin da. Pixkanaka-pixkanaka, fundamentalismora lerratu da, Joxean bere garaian bezala. Joxean ni baino 9 urte zaharragoa zen; Hector, 11 urte nagusiagoa. Beti babes bila ibili naiz, antza, baina babesak berak ito egiten ninduen nolabait.

Itzuli zinetenerako desagertzen hasia zinen euskal letren panoramatik?

Bai, baina ez idazten ez nuelako. Ez al zaigu hori emakume askori gertatzen, amatasuna aukeratu izanari lotuta? Poesia

idazteari ez nion utzi sekula. Urtean ale nire ustez on bat ematea sikiera, hori nuen helburu, eta udararo idazten nuen. Baina hori gauza bat da, eta bestea bileretara-eta joateko denbora izatea. Nik ez neukan, eta bileretara ez bazoaz plazatik desagertzen zara. Hector joan eta gero berpiztu nintzen berriro ere idazle bezala, neurri batean, Felix Maraňak zuzendutako *Geroaren aurpegia* [EHU, 2000] antologiarekin. Eta baita Senpereko Hatsaren Poesiarekin ere.

Kritika latzak ere jaso zenituen gero.

Malintxearen gerizpean [1988] ipuin liburuaren harira izan zen hori. Lana argitaratzeko presak, seguruenik, ez zidan edizioa borobiltzeko betarik eman, baina hango ipuin batzuk baliagarriak direla uste dut orain ere. Besteak beste, *Getariako bale gorria*. Ez dakit nik gizonezkoa izan banintz horrenbeste azpimarratuko ote zituzten liburuaren akatsak. Ez ditut halako asko ikusten, behintzat.

Kritikak kritika, idazten segitzen duzu. Itzultzen ere bai. Zer ematen dizu literaturak gaur egun?

Itzulpenak zirkunstantzialak izan dira, momentu jakin batekoak. Poesia, berriz, beti bezala, euskarri zait bizitzan.

Zerk sentiarazten zaitu askeen orain, Amaia?

Bakarrrik bizitzeko gaitasuna dudala jakiteak. Lagunak behar ditut, noski, eta senideekin ere oso ondo moldatzen naiz, nahiz eta eurekin diskutitu; baina orain nire ideiak ditut gainera, edozeinen aurrean azaltzeko. Egia esan, horretarako arazorik ez dut izan sekula, baina nire nitasunaren afirmazioa egiteko ahal handia sentitzen dut. 60 urtetik aurrera lortu dut hori, bi senarrek ospa egin ostean. Psikologo batek esan zidan behin: «Zeuk bidaliko zenituen, agian, konturatu gabe». Ez dakit... Joxeaneke alde egin zuen eta Hectorrek ere bai. Hori datu bat da.

Hector joan zenean, gainera, bi umerekin eta aita eta ama goian bizi zirela geratu nintzen, jo eta ma. Oso-oso gaizki

pasatu nuen. Batez ere, umeengatik. Lanean ari nintzen eta oinarri-oinarrizko faktorea izan zen aurrera egiteko. Tira, oinarri-oinarrizkoa izan da hori beti. Horregatik, Silvia Federiciri irakurtzen diodanean ea zergatik joan behar dugun kanpora lana egitera, ez nago ados berarekin. Joan behar dugu, gutxienez, sozializatzeko; nire arazoak besteenak ere badirela jakiteko, baita ere; eta abar luze baterako.

Adina, urteetan aurrera egitea, ez al da faktore askatzaile bihurtzen emakume askoren kasuan?

Ni beti akordatzen naiz Mariana Young idazle venezuelarrarekin. Hark esaten zuen nahiago zuela zahar jakintsua

«Bere garaian ez nuen sekula irudikatuko emakumearen askapenean gaur egungo egoera hau. Gauzak azaleratuta daudelako, gutxienez, arazoez hor segitzen duten arren. Asko aurreratu da»

izan zahar petraldua baino. Gaizki ikusiak izan ginen garai batean, eta horren ondorio bat ere bada, nik uste, egungo egoera lasaitasunez bizitzea. Nire adineko emakumeak oso jatorrak egiten zaizkit, afektiboki. Getarian bertan. Ez daukagu zerikusirik, baina halaxe ikusten ditut. Herriko zoroa izateko titulua lortu dut, eta ez zait gutxi iruditzen. Ez naiz deseroso sentitzen, behintzat.

Eta nola ikusten dituzu emakumearen askapenerako egungo aldarriak?

Ba begira, aurrekoan egon nintzen pentsatzen bere garaian ez nuela sekula irudikatuko gaur egungo egoera hau. Gauzak azaleratuta daudelako, gutxienez, arazoez hor segitzen duten arren. Asko aurreratu da. Pixka bat kritiko ere banaiz, baina. Gizarte heteropatriarkalaz mintzo direnean, heterosexuala izatea zapaltzaile izatearen sinonimo bilakatuz, ba ez nago ados. Emakume heterosexualek ere ederki sufritu genuen zapalkuntza, heterosexualitatearen garaiko ikuspegi

itxia puskatzen saiatzeagatik. LGBTBI+ kolektiboetako kideen modu eta intentsitate berean ez, ados, baina sufritu genuen geuk ere. Eta sufrimendu hori ez da bukatu oraindik, ezta gutxiago ere. Jendarte hau patriarkala da? Bai. Matxista da? Hori ere bai. Ados nago egungo aldarrikapen askorekin, hori esan gabe doa, baina hetero izateko eskubidea ere izango dugu, ezta? Ala denak berdinak izan behar dugu?

Eta irakaskuntza mundua?

Hezkuntza sistema izugarri aldatu da. Garai batean bazeuden hau eta beste metodo pedagogiko, eta aukeratzen zenuen metodoaren arabera lan egiteko zirrikituak; baina gaur egun dena bertikala da, goitik beherakoa. Orain kontrola eta lehia besterik ez dago. Eta burokrazia, burokrazia asko.

Lehia pertsonak suntsitzeko makina bat da. Gizarte osoa dago hala antolatuta, eta nik hortik kanpo kokatu nahi dut nire burua. Ezin ditut indarrak galdu besteei irabazten, neure buruari indarra ematen eta hobetzen baizik. Hori printzipio bat da niretzat.

Gure kulturaren oso garrantzitsuak izan diren ekimen askoren hastapenetan parte hartu duzu; ez dituzu bereziki nabarmendu elkarrizketa honetan, zure ibilbideari buruz hitz egiterakoan. Zure sentimenduen memoria azaldu duzu batez ere.

Nork gordetzen du bere bizitza gogoan datu eta data soilen errenkada gisa, baina? Nik ez, behintzat. Niretzat garrantzitsuak diren gauzak gogoratzen ditut oraindik, eta hori da kontua. Gure aitaren lehengusu batek esan zidan behin: «Idazteko dirua behar da». Ez nago ados. Eta ETBko kaze-tari batek, gero, idazle ote nintzen galdetu zidan. «Idazten duen emakume langile bat naiz», erantzun nion. Eta halaxe segitzen dut. 🍷

GAIAK

- 55** Emakume zientzialarien protagonismoa
eta rola komunikabideetan
Maider Eizmendi Iraola

Emakume zientzialarien protagonismoa eta rola komunikabideetan

Maiden Eizmendi Iraola

UPV/EHUko Kazetaritza Saileko irakaslea

1 965ean, Alice Rossi soziologoak «zergatik hain gutxi?» galdera egin zuen, emakumeek zientzian duten parte-hartzea ahotan hartuta. Eragin sozial eta psikologikoak aipatu zituen autore horrek arrazoi modura. Mende erdia baino gehiago igarota, unibertsitateko sarbide datuei erreparatu gero, Mendebaldeko herrialdeetan, bederen, emakumeak gizonezkoak baino gehiago dira, eta akademian lanean ari diren emakumeen kopurua ere nabarmen handitu da.

Gaur-gaurkoz, ordea, genero desparekotasunak ez dira desagertu zientzia eremuan; ikasketa sarbideari dagokionez, trabak lausoagoak dira, baina emakumeek ibilbide akademikoan aurrera egiteko eta erantzukizun karguetara iristeko dituzten zailtasunak agerikoak dira.

Administrazioek eta zientzia alorreko eragileek, zientzian berdintasuna bermatzeko, emakumeek jakintza sortzaile gisa duten tokiari erreparatu diote. Hala, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak 28. artikuluan jaso du hezkuntza politika publikoek sexuaren arabera estereotipoak eta rolak baztertuko dituen garapen integrala bermatzen duen hezkuntza eredua bultzatu beharko dutela.

Arau bereko 29. artikuluan, bestalde, ikasleak, aukera akademikoa egiten dutenean, generoan oinarritutako baldintza-penak kontuan har ez ditzaten trebatzea arautu da.

Ildo berean, 2015eko abenduaren 22an, Nazio Batuen Erakundeak, A/RES/70/212 ebazpenean, otsailaren 11 Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna izendatu zuen, eta estatuei dei egin zien heziketa eta sentsibilizazio ekintzak antola zitzaizen emakumeek zientzia arloan duten parte-hartzea areagotzeko, neskek zientzia arloko ikasketak hautatzeko duten joera handitzeko eta aitzindariak izan diren emakumeen lorpenak aitortzeko. Horrenbestez, nazioarteko erakunde horrek jada akademiak zein administrazioetako legediak nabarmendua zuten gabezia bati erantzuteko mar-koa jarri zuen. Lege egitasmo gehienek bokazioen eremuan jarri dute arreta, eta, hala, ikasketa desberdinetarako sarbi-dea berdintasunean gauzatu dadin lortu nahi dute batik bat.

Eurostaten datuen arabera, Europako Batasuneko estatuen artean, batez beste, zientzia eta ingeniari-tza arloetan aritzen diren ikertzaileen %59 gizonezkoak dira; eta emakumezkoak, berriz, %41. Bistan da emakumeek zientzia ibilbidea abiatzeko zituzten zailtasunak apurka gaintitu dituztela; desparekotasunak, aipatu den moduan, ibilbide zientifikoa aurrera egiteko garaian edota egonkortzeko unean dituzte batik bat. Ikerbasqueren *Zientzia Euskadin Txostena 2021* azterketak nabarmendu du, esaterako, azken hamarkadan tesiak defendatu dituzten gizonen eta emakumeen kopuruak parekoak direla. Hala eta guztiz ere, horrek ez du ikerketa populazioaren genero-etena murriztu. Unibertsitatean arduraldi osoko baliokidetasunean aritzen diren langileen artean, emakumeak %35 dira. Emakume eta gizonen arteko arrakala, gainera, nabarmenagoa da maila altueneko postuetan: gorakada izan bada ere, katedradunen artean emakumezkoen ehunekoa ez da %25era iristen. Hainbat ikerketak beirazko sabaia agerikoa dela nabarmendu dute; beste batzuk jarroa duen hodia mintzatu dira, emakumeek, zientzia ibilbidean aurrea egin ahala, jarduera uzteko duten joera irudikatzeko.

Zientzia eta emakumea binomioa aztertzeke egin diren ikerketak asko eta askotarikoak izan dira. Ez soilik karguetan, zientzia produkzioan ere aldeak nabarmendu dira, zientzialarien generoak ikerketaren kalitatean eta lortzen duen inpaktuan eragina duelako. Fenomeno hori agerian geratu da, esaterako, COVID-19aren krisian. Zientziak eta jardun horretan aritzen diren profesionalak inoizko oihartzunik handiena lortu dute, baina emakumeen eta gizonen produkzioan ondorio desberdinak izan ditu pandemiak (Andersen *et al.* 2020). Zientzia aldizkariak ohartarazi dute, izan ere, emakumeek igorritako artikulu kopurua nabarmen murriztu zela osasun-krisiaren lehen hilabeteetan. Batik bat tradizionalki emakumeei egotzi zaizkien zaintza lanek izan duten eragina nabarmendu dute ikerketek, ordaindutako lana eta erreprodukzio lana uztartzeko zailtasunak aipatuta.

Beste ikerketa lerro oparoa zientzian diharduten gizonen eta emakumeen inguruan irauten duten estereotipo sozialen ingurukoa da. Gizonak lidertzat hartzen dira, analitikoagotzat, lehiakorragotzat eta independenteagotzat; emakumeak, berriz, gehiago lotzen dira adeitasunarekin, berotasunarekin, ulermenarekin eta erabilgarritasunarekin (Carli *et al.* 2016: 245), eta, bistakoa denez, egungo zientzia paradigmak ezau-garri maskulinoak lotzen dira gehiago zientzia jarduerarekin.

Estereotipo eta gizarte irudikapenari lotuta, interesgarria da David Wade Chambersek 1983an egin zuen ikerketaren ondorioei erreparatzea. Bost eta hamaika urte bitarteko 4.807 haurri zientzialari bat marrazteko eskatu zien. Bere helburua gaztetxoek zientzialariek zituzten uste eta irudikapenak ezagutzea zen, baina, generoari dagokionean, emaitza argigarriak plazaratu zituen: izan ere, soilik 28 ikaslek marraztu zuten emakumezko zientzialari bat. Esperimentu hura hainbat ikerketa lanek errepikatu dute, eta frogatu da zientzialariek dagoen irudia aldatu dela, baina hori ez dela inondik ere egun emakumeek zientzian duten errealitatearekin ezkontzen.

Irudikapen sozial honetan, noski, kultur adierazpen desberdinen papera garrantzitsua da. Erpin ugariko gaia izanik, eremu eta ikuspuntu desberdinak jorratu dira. Lan batzuek testuliburuetan agertzen diren protagonistak aztertu dituzte; baina, noski, fikzio lanen edota komunikabideen bitartez zabaltzen den mezuak ere arreta erakarri du.

Hedabideek, oro har, emakumeen inguruko iruditeria soziala eraikitzean zeresana dute, eta hala ondorioztatu dute 70eko hamarkadaz geroztik egin diren ikerketek. Emakume zientzialarien kasuan, agian, are garrantzitsuagoa izan daiteke haien jarduna, kontuan hartzen bada herritar gehienek ez dutela zientzia jardura gertutik ezagutzeko aukerarik, eta

komunikabideak direla, beren mezuen bidez, ezagutza eta zientzialarien inguruko errealitatea eraikitzeko baliatzen diren iturri nagusiak.

Handi-handika, emakume zientzialariak azpierrepresentatuak daude komunikabideetan, eta horien inguruan zabaltzen den mezua estereotipatua da (García-Nieto 2013). Hala ondorioztatu dute gaiaren inguruan egin diren hainbat

ikerketak. Emakume zientzialariak gizonezkoek baino aukera gehiago dute itxura fisikoaren eta janzkeraren arabera deskribatuak izateko (Attenborough 2011), eta familiaren inguruko aipamenak ere sarriago aipatzen dira horien inguruko testuetan. Era berean, zientzia eremuan izandako zailtasunak nabarmentzeko joera ere atzeman da (Mitchell eta McKinnon 2019), emakume ikertzaileen irudia ezohikotasun mezuaren baitan eraikita. Horrek guztiak, noski, eragina du horien inguruan igortzen den mezuan: emakume rola eta zientzialariarena parez pare jartzen direlako eta, sarritan, bat egin ezin duten bi eremu gisa aurkezten direlako.

Hainbat ikerketa galdera proposatu dira: zein da emakume zientzialariak duten tokia? Zein dira horiek agertzen diren testuen ezaugarriak? Zein gairi lotuta ageri dira emakume horiek?

Azken sasoian, hedabideen jarduna aztertzen duten ikerketek Interneten eta haren aterkipean sortutako komunikaziorako baliabide berrietan jarri dute arreta. Sareko kazetaritza sortu zenean, izan ere, itxaropentsu agertu ziren aditu asko, komunikazio eredu berri bat zekarrela eta iturri eta ahots berriek lekua izango zutela aurreikusi zutelako; beraz, hasiera batean, genero desparekotasunak murrizteko baliabide izan zitezkeela pentsatu zen. Egin diren azterketek, ordea, gezurtatu egin dituzte uste horiek, emakumeen inguruan zabaltzen diren mezuak urriak direlako eta ohiko komunikabideetako jarduna errepikatzen dutelako sareko komunikabideek (López-Pérez eta Olvera-Lobo 2015).

Testuinguru honetan, ikerketa honen helburua zientzian aritzen diren emakumeek *Berria* egunkariaren webgunean duten ikusgarritasuna eta horien inguruan eskaintzen den irudia aztertzea da. Hain zuzen ere, lan honek emakume zientzialariek Euskal Herriko ziberhedabideetan duten presentzia eta irudia aztertzeke egin den azterketa zabalago batean du jatorria.

Emakume zientzialarien identifikazioa

Aipatutako helburuari erantzuteko, hainbat ikerketa galdera proposatu dira: zein da emakume zientzialariek duten tokia? Zein dira horiek agertzen diren testuen ezaugarriak? Zein gairi lotuta ageri dira emakume horiek? Zein da *Berria*-n ageri diren emakume zientzialarien profila?

Ikerketa lagina 2014 eta 2018 urteen artean argitaratutako kazetaritza edukiek osatu dute; bost urte aztertu dira, beraz. *Mynews* bilatzailearen bitartez eta zientzialari eta ikertzaile gako-hitzak erabilita topatu dira ikerketa unitateak. Zehaztu dezagun beharrezkoa izan dela bilaketaren ostean galbahe lan sakona egitea, identifikatutako eduki guztiek ez zioten-eta emakume ikertzailearen bati erreferentzia egiten. Bi izan dira laginetik kanpo uzteko arrazoi nagusiak: testuan agertutako zientzialari guztiak gizonezkoak izatea, edota

zientziari lotutako gaia ez izatea. Egokitze lanaren ostean, 205 emakume zientzialari identifikatu dira; beraz, lagina 205 ikerketa unitatek osatu dute. Kasu honetan, aurretik egin diren ikerketa gehienetan ez bezala, emakume zientzialarien azterketa ez da STEM (*Science, Technology, Engineering and Mathematics* ingelesezko hitzen akronimoa) edota zientzia gogor gisa jo diren diziplinetara mugatu. Izan ere, jakintza arlo guztiak kontuan hartuta, profesional horiek komunika-bideetan duten presentziaren eta horien inguruan zabaltzen den mezuairen analisi osoagoa egin daiteke.

Azterketarako metodo modura, eduki analisia baliatu da, gizarte zientzien alorrean eta, batik bat, komunikazioaren esparruan sarri erabilitako teknika. Gainera, genero ikerketan baliagarritasun handia ezagutu zaio, baita zientzia kaze-taritzaren azterketan ere. Ikerketa teknika horrek mezuan dauden ezaugarriak identifikatzeko aukera eskaintzen du, eta, datuetatik abiatuta, testuinguruan aplika daitezkeen in-ferentzia baliagarriak eta erreproduzitu daitezkeenak adieraz daitezke (Krippendorff 1990).


Aztertu diren aldagaiei dagokienean, bi eremu nagusitan bana daitezke: artikuluairen ezaugarriak zehazteko balio izan dutenak, hots, argitalpen data, edukiaren luzera, sekzioa edota kazetariaren generoa; eta emakume zientzialarien in-guruan zabaltzen den irudia xehatzeko baliagarriak direnak, hots, profilari lotutakoak eta profesional horien inguruan eskaintzen diren datuak aztertu dituztenak.

Zenbatetan eta nola?

Gero eta gehiago, baina non eta nola?

Lagina osatu duten ikerketa unitateen urtez urteko analisiak (1. grafikoa) *Berria*-n agertzen diren emakume zientzialarien kopuruak goranzko joera izan duela erakutsi du. Ez da lineala izan: 2018an aurreko bi urteetan baino ikertzaile gutxiago agertu dira; baina bost urteko bilakaeraren azterketak joera bistarazteko balio du.

1. grafikoa. Laginaren urtez urteko banaketa




2015 eta 2016 urte artean nabarmendu da, batez ere, igoera; bat egin du, beraz, Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Egunaren izendapenarekin, 2016ko otsailean ospatu baitzen estreinakoz. Efemerideak, beraz, balio izan du gaia komunikabidearen agendan sartzeko, bai administrazio eta zientzia erakundeek egindako ekimenen estaldura eginda, bai apropos landutako gaien bidez. Hala, ikertu diren kazetaritza edukien gaiak aztertuta, emakume zientzialarien inguruko hiru erreportaje topatu dira, guztiak 2016az geroztik argitaratuak.

Baina nola eta zein motatako testuetan ageri dira profesional horiek? Argitaratutako testuen analisiak erakutsi du, kasurik gehienetan, emakume zientzialariak beste ikertzaile batzuekin batera aurkeztu direla; izan ere, gai baten inguruan sakontzea helburu duten edukietan ageri dira, batez ere, eta ez lehen mailako protagonismoa emango lieketen ikerketa baten aurkezpenaren berri ematen duten testuetan. Datu gisa, ikertu diren argitalpenetan 205 emakume zientzialari agertu dira, eta 421 gizonezko zientzialari edota ikertzaile identifikatu dira; beraz, gizonen presentzia emakumeenaren bikoitza baino handiagoa da. Ikerketa honek fokua emakume zientzialarien inguruan jarri du; alta, aurretik egin diren azterketek ondorioztatu duten moduan, *Berria*-ren kasuan ere, zientzialari gizonen presentzia esanguratsuagoa dela iradoki dute datuek.

Zientzialariek komunikabideetan duten agerpena, egiazki, oso lotuta dago informazio iturri gisa duten paperarekin, kontuan hartu behar baita, zientzia aurkikuntzak eta jardun zientifikoa bera ulertzeko eta azaltzeko, kazetariak ezinbesteko dituztela aditu horien hitzak. Gainera, adierazpen horien bidez, ikertzaileek gizarteari igortzen zaion zientziaren inguruko mezua egituratzeko modua dute. Horrenbestez, ahotsa duten edo ez aztertzea interesgarria da komunikabideek egotzen dieten rola ezagutzeko. Ikerketa honi dagokionez, 114 emakume zientzialariren aipuak aurkitu dira, hau da, komunikabide horretako webgunean agertutako emakume ikertzaileen %55,6ri eman zaie hitza. Gainerakoan, aipamen gisara aurkeztu dira profesional horiek kazetaritza testuetan, batik bat sari banaketa edota zientzia ekimen desberdinetan parte hartu dutelako, edota historian zehar ibilbide zientifiko esanguratsua izan duten emakume modura.

Bistan da titularrek balio dutela horietan agertzen diren datu edota norbanakoak nabarmentzeko, are gehiago ziberkazetaritzaren testuinguruan, irakurketa azkar eta azalekoak indarra hartuta, irakurleen arreta erakartzeko ahaleginak handiagoa izan behar baitu. Beraz, lehenez gainera, komunikabideetako titularrak ikusgarritasunerako baliabide erabilgarri eta funtsezkoak dira sarean. Ikerketa honen laginari dagokionean, tituluetan 25 emakume zientzialari aipatu dira, eta 146, berriz, testuaren hasieran edota erdi paretik gora.

2. grafikoa. Emakume zientzialarien kokapena testuan zehar




59 emakume zientzialari, beraz, testuen azken paragrafoetan aipatu dira. Horren haritik, ordea, beharrezkoa da zehaztaper bat egitea. Emakume gehienak bederatzigarren paragrafotik

gorako testuetan ageri dira; beraz, testuaren erditik gora koka-tzeak ez du, bere horretan, haren ikusgarritasuna bermatzen, webguneetan egiten den irakurketa sarri sarrerara eta lehen bi paragrafoetara mugatu ohi delako.

Titularrak ez ezik, argazkiek ere badute irakurlearen arreta erakartzeko eta baliabide grafiko horietan ageri diren pertso-na eta elementuak ikusgarri egiteko gaitasuna. Aztertutako laginean, 41 emakume zientzialari agertu dira argazkietan, %20 hain zuzen; 23 bakarrik eta argazkiaren protagonista modura agertu dira, eta taldean, berriz, 18. Bakarkako ar-gazkiak, batez ere, elkarrizketen kasuan argitaratu dira.

Kokapenari dagokionez, *Gizartea* saila da, nabarmen, ema-kume zientzialarien plaza nagusia; bertan agertu dira, izan ere, lagina osatzen duten emakumeen erdia baino gehiago (%51,7). *Bizigiro* saila da ondoren pisurik handiena duena (%21), eta atzetik kokatu dira *Ekonomia*, *Kultura* eta *Iritzia*, baina alde esanguratsuarekin edozein kasutan. Aipa dezagun *Bizigiro* sailean badela zientziari tartea egiten dion atala; be-raz, sail espezifikorik izan gabe, bertan kokatutako hainbat eduki zientzia-albiste modura sailkatzeko ahalegina suma daiteke. Edozein kasutan, emakume zientzialariak agertzen diren testuetan, zientzia eta haren ekarpenak gizarte ikus-pegitik landuak daudela esan daiteke.

3. grafikoa. Emakume zientzialariak *Berria*-ko sail desberdinetan



Iturria: Egilea.

Testuen egileen generoari erreparatzen bazaio, agerikoa da kazetari gizonetzkoen nagusitasuna; izan ere, emakume zientzialari gehienak (%51,2) haiek sinatutako testuetan ageri dira, eta %36,1 emakume kazetariak sinatutakoetan. Gainerakoak inizialak erabilita edota egunkariaren sinadura orokorra erabilita argitaratuko edukietan agertzen dira. Zentzu horretan, aipa daiteke *Berria*-k ez duela albiste agentzien sinadura erabiltzeko joerarik, testuak euskaratu, aberastu eta kazetariak sinatzeko ohitura duelako. Beraz, eta datu horiei erreparatuz gero, ezin da esan emakume kazetariak iturri femeninoak erabiltzeko joera handiagoa dutenik, aurretik egindako ikerketa batzuek hala ondorioztatu duten arren.

Zein emakume ageri dira?


Kazetaritza testuen ezaugarriak xehatuta eta zenbakietan k tramilatu gabe, behar-beharrezkoa da *Berria*-ko webgunean agertzen diren emakume profesionalen nolakotasunari eta horien inguruan eskaintzen diren datuei erreparatzea, zientzialari eta ikertzaile gisa duten estatusa, agerpenari ez ezik, mezuari lotua baitago zuzenean.

Zientzia eginkizunean ari diren pertsona horien profilari helduta, zein jakintza arlotan aritzen diren aztertu da lehenik. Metodologia atalean aipatu den moduan, ikerketa honetan, diziplina guztietan aritzen diren emakume zientzialariak hartu dira aintzat. Emaitez erabaki metodologikoa berresteko balio izan dute; izan ere, giza eta gizarte zientzien alorrean ari diren emakumeak %40,1 dira, 84, hain zuzen. Ez dute %50eko langa gainditzen, baina ehunekoa kontuan hartzeko modukoa da.

Emakume zientzialariak zein diziplina zehatzetan aritzen diren aztertzeko, Unescoren kodean jasotako jakintza arloak baliatu dira eta horien arabera bereizi dira edukietan agertzen diren pertsonak. Natur zientzia eta teknologia eremuan egiten dute lan *Berria*-n agertu diren emakume ikertzaile gehienek, bizitzaren zientzien esparruan batzen diren arloetan

batik bat (4. grafikoa). Osasun zientzietan aritzen direnak bost baino ez dira, baina kontuan izan behar da bizitzaren zientzien esparruan asko direla biomedikuntzaren alorrean lanean ari direnak. Beraz, kasu honetan ere, ezin da guztiz alboratu hainbat ikerketak nabarmendutako zientzia albisteek medikalizaziorako joera. Gainerakoan, kimikan, fisikan edota astronomian ari diren emakumeak dira ugarietak.

4. grafikoa. Diziplina bakoitzean aritzen den lagineko emakume kopurua




Iturria: Egilea.

Giza eta gizarte zientzien eremuan sailkatu diren emakumeen ia erdia, *Berria*-ren kasuan, giza zientzien alorrean ari dira. Datu hori guztiz lotuta dago euskararen ikerketa

eta linguistikak egunkari horretan duen pisuarekin, baita historian aritzen diren emakumeei emandako tartearekin. Aipatutakoez gain, komunikazio zientziak, ekonomia zientziak eta soziologia dira gehien errepikatzen direnak.

Ikasketa mailari dagokionean, berriz, aztertutako 40 emakumeren kasuan egin zaie erreferentziaren bat protagonisten ikasketei. Ondorengo grafikoan ikus daitekeenez, doktoreak aipatu dira gehien.

5. grafikoa. Aipatutako ikasketak, mailaren arabera bereizita



Iturria: Egilea.

Izen-abizenak aipatzeaz harago, emakume zientzialarien inguruan eskaintzen diren datuak esanguratsuak izan daitezke, zientzia eremuko subjektu gisa duten estatusa indartu baitezakete. Hori dela eta, ikerketan testuinguru datuen presentzia aztertu da eta, aipatzen duten eremuaren arabera, hainbat kategoria finkatu dira. 64 emakumeren kasuan argitaratu dira testuinguru datuak; gainerakoetan, izen-abizen zein karguak baino ez dira argitaratu. Kasurik gehienetan, ibilbide akademikoari lotutako erreferentziak ageri dira: aurretik egin dituzten lan eta argitalpenak, jorratzen duten ikerketa eremua... Datu horiek baliagarriak dira protagonisten zientzialari rola nabarmentzeko eta iturri modura duten legitimotasuna indartzeko.

Baina badira emakume horiei zuzenean lotutako bestelako datuak ere. Gehien errepikatzen direnak zientzian dituzten zailtasunen ingurukoak dira; testuinguru datuak dituzten emakumeen %26an ageri da halako erreferentziaren bat. Zortzi emakume zientzialariren kasuan, berriz, ezohikotasunaren inguruko aipamenak egin dira, eta beste zortzitan familiari edota zaintzari lotutako datuak eskaini dira. Aipagarria da

Berria-ren kasuan ez dela itxura fisikoari edota janzkerari lotutako aipamenik ageri. Aurretik egin diren ikerketek nabarmendu dute, izan ere, zientzian aritzen diren emakumeak sarri ageri direla halako aipuei lotuta, eta, kasu batzuetan, gainera, sexualizaziorako joera atzeman da (Attenborough 2011). Hala ere, eremu honetan egin diren azken azterketek nabarmendu dute agerikoenak diren estereotipoak murrizten ari direla. *Berria*-ren kasuan, joera hori berrets daiteke.

Zailtasunaren eta ezohikotasunaren inguruko mezuei erabat lotuta, kontuan hartzea merezi duen beste elementu bat ere nabarmendu da: aztertutako emakume zientzialarien %31,7 tradizionalki emakumeari lotutako gaietan edota emakumeen

diskriminazioa jorratzen duten edukietan ageri dira; giza eta gizarte zientzietan aritzen diren emakumeen kasuan, batik bat, ikerketa gaia dute hori. Badi-ra, ordea, esperientzia pertsonalean oinarritu eta emakume zientzialarien diskriminazioa ahotan hartu duten ikertzaileak; kasu horretan, emakumeak, zientzia iturri modura baino, zientzian duten espe-

Aztertutako emakume zientzialarien %31,7 tradizionalki emakumeari lotutako gaietan edota emakumeen diskriminazioa jorratzen duten edukietan ageri dira

rirentziaren inguruko iturri modura irudikatu dira. Hain justu, zailtasunaren mezuak duen pisuaren erakusle dira gehien aipatu diren hiru ikertzaileen izenak: Marta Macho (6), Maria Curie (5) eta Maria Jose Iriarte (5). Lehen bi kasuetan, bistakoa denez, zientzia eremuko genero desberdintasunak izan dira testuaren bizkarrezurra.

Interakzioa eta eztabaida

Nola eragiten dute mezu horiek irakurleengan? Zein da erantzuna mezu horien aurrean? Interes handia eragin duen eremua da komunikabideek hartzaileengan duten eraginarenean.

ingurukoa, baina baliabide asko eskatzen ditu eta konplexutasun handia du.

Ikerketa honetan, emakume zientzialariak agertzen diren testuek irakurleen aldetik izan duten atxikitzea aztertu da, interakzioa ziberhedabideen ezaugarri nagusietakoa izanik, irakurleek gaiarekiko duten iritzia ezagutzeko lagungarriak izan daitekeelako. Orotara, aztertutako emakumeen artean 70 agertu dira sare sozialetan zabaldu diren edukietan. Atxikitze maila, gainera, ez da altua izan. Denera, 126 Twitter atsegite, 371 banatze, 858 Facebook atsegite eta 686 banatze zenbatu dira. Errepikapenak kenduta, sare sozialetan 47 testu agertu dira, eta Twitterren 80 atsegite eta 289 banatze eta Facebooken 391 atsegite eta 369 banatze zenbatu dituzte.

Zenbakiez harago, interesgarria da interakzio handiena lortu duten hiru artikuluei erreparatzea. Gaiak askotarikoak dira: interakzio gehien torturaren inguruko txosten baten aurkezpenak izan du. Atzetik kokatu dira, berriz, mendiko arropan PFC gai toxikoa ezabatzeko saialdien inguruko testu bat eta Mileva Maric zientzialariaren inguruko erreportajea.

Interakzioari dagokionez, hori ez da iritzi emate edota eztabaida mailan gauzatu, irakurleak sare sozialetan atsegitteak ematera edota testuak banatzera mugatu direlako eta ez dutelako egunkariaren webgunea baliatu edukiei iruzkinak egiteko. Beraz, kasu honetan, ezinezkoa da irakurleek arreta zein elementutan jarri duten aztertzea eta horien iritzien inguruko inferentziak egitea.

Ondorioak

Berria egunkarian agertu diren emakume zientzialarien azterketatik erator daitekeen lehen ondorioa ikerketa epean horien presentziaren goranzko joera da. Hori, batez ere, 2016tik aurrera nabarmendu da, Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna estreinakoz ospatu zen urtetik aurrera. Ordutik aurrera atzeman dira, batez ere, gaia modu sakonean aztertzeke ahaleginak, hainbat erreportaje argitaratu baitira.

Beraz, esan daiteke Nazio Batuen Erakundeak adostutako erabakiak eta haren ondotik administrazio eta zientzia erakundeek abiatutako dinamika desberdinek testuinguru aproposa eskaini dutela jada unibertsitateetako sail desberdinetan gorpuztutako ikerketa eremu hau bistarazteko. Horrenbestez, gaia egunkariaren agendan sartu da, bai apropos landutako edukiak landuta, bai erakunde desberdinek antolatutako ekimenen estaldura eginda.

Presentzia handitu den arren, tituluetan agertzen diren emakumeen kopurua murrizta da gaur-gaurkoz. Bost urtean 25 eduki baino ez dira identifikatu. Datu hori kontuan hartzekoa da ikusgarritasuna aztertzerakoan, ziberhedabideen testuinguruan tituluek, lehenez gainera, balioa hartu dutelako. Gauza bera esan daiteke baliabide grafiko eta irudien inguruan. Azken batean, irakurketa azkarrak eta kasu askotan mugimenduan gauzatzen denak ahalegin gehigarria eskatzen die komunikabideei irakurlearen arreta erakartzeko.

Gizartea sailean agertu dira, batik bat, emakume zientzialariak, eta horrek zientzia jardueraren ikuspegi sozialari emandako lehentasuna nabarmendu du. Giza eta gizarte zientzietan ari diren emakumeen presentzia ere esanguratsua da (%40,1). Ikerketa honetan baliatutako ikuspegia berretsi du, horrenbestez, datu horrek, eta mahaiaren gainean jarri du emakume zientzialarien irudiaren azterketa osoagoa egiteko komenigarria dela giza eta gizarte zientzietan aritzen diren profesionalak kontuan hartzea. Izan ere, orain artean, emakumearen eta zientziaren arteko harremana aztertu duten ikerketa gehienek STEM diziplinetara mugatzeko joera izan dute, baita komunikazio arloan egin direnek ere. Zientzia-kazetaritzaren ikerketa gizartean, oro har, zientzia denaz eta ez denaz dagoen pertzepzioari erabat lotuta garatu da. Emakume zientzialarien kasuan, gainera, bada beste arrazoi bat muga hori ezartzeko: goi-mailako ikasketetarako sarbideari erreparatuta, emakume eta gizonen artean dagoen arrakala ingeniarietza eta teknologiarik lotutako eremuetan bistaratu da batez ere, eta horietan zein zientzia gogortzat jotako eremuetan jarri da

arreta horregatik. Azken batean, komunikabideek emakume zientzialarien inguruan eskaintzen duten irudia zientzia bo-kazioen ikuspuntutik aztertu da.

Bestetik, lagineko emakume zientzialarietako askok ez dute ahotsik, eta aipamen gisara agertzen dira testuetan, ekimen edota sari-banaketaren batean parte hartu dutelako; ez dute, beraz, zientziaz gizarteari bideratzen zaion mezua egituratzeko ahalmenik. Orobat, emakume zientzialariak komunikabideetan duten ikusgarritasuna iturri gisa duten lekuari lotuta dago, hark ematen dielako legitimotasuna zientzia subjektu gisa.

Azken kontzeptu horri oso lotuta daude, hain zuzen, kaze-tariak edukien subjektuak aurkezteko baliatzen dituzten for-mulak eta horien inguruan eskaintzen dituzten datuak. Kasu

Emakume zientzialariak
dituzten zailtasunak
agerian jartzea
beharrezkoa da, noski;
baina, ikertzaile zehatzen
inguruan eskainitako datu
modura baino, sakonean
eta arrazoi desberdinak
bistaratzen dituzten
lanak argitaratuta egitea
komeni da

honetan, testuinguru datuak 64 kasutan identifikatu dira, hau da, lagina osatzen duten emakumeen %31,2an. Kasu-rik gehienetan, ibilbide akade-mikoa aipatzen dute, eta hori lagungarria da zientzialari gi-sa duten rola nabarmentzeko. Baina badira zailtasunak eta ezohikotasuna nabarmentzen dituzten aipua; hain zuzen ere, testuinguru datuak dituz-ten emakumeen %26an ageri da halako aipameneren bat, eta zortzi kasutan ezohikotasuna-ren inguruko erreferentziak

egin dira. Horien bidez, emakume izaeraren eta zientzia jardueraren arteko talka irudikatzen da, eta zientzialari es-tatusari kalte egin dakioke.

Horren haritik, esanguratsua da emakume zientzialariak neurri handi batean tradizionalki emakumeari lotutako gaietan edota emakumeen diskriminazioa jorratzen duten

edukietan ageri direla. Aipatu den moduan, kasu batzuetan, giza eta gizarte zientzietan aritzen diren emakumeen kasuan batik bat, ikerketa gai gisa jorratu dituzte eduki horiek. Baina badira esperientzia pertsonalean oinarritu eta emakume zientzialarien diskriminazioa ahotan hartu duten ikertzaileak; azken kasu horietan, emakumea, zientzia iturri modura baino, emakumeek zientzian duten egoeraren iturri bilakatuta ageri da. Fenomeno hori nabarmen geratu da edukietan gehien errepikatzen diren emakumeak aztertuta.

Emakume zientzialariek dituzten zailtasunak agerian jartzea beharrezkoa da, noski; baina, ikertzaile zehatzen inguruan eskainitako datu modura baino, sakonean eta arrazoi desberdinak bistaratzen dituzten lanak argitaratuta egitea komeni da. Gainerakoan, emakumeek zientzia subjektu modura duten estatusa murriztu eta eremu horretan lanean ari diren ikertzaileen lana desitxuratzeko arriskua dago.

Ikerketaren mugei dagokienez, interesgarria litzateke, batetik, mezu horiek irakurleengan duten eraginaren azterketan sakontzea eta, era berean, genero analisia osatzeko, gizonezko zientzialariei ematen zaien tratamendua aztertzea. Edozein kasutan, lan honek frogatu du *Berria*-k baduela emakume zientzialarien eta horien egoeraren inguruko ardura eta dituzten zailtasunak mahaiaren gainean jartzeko borondatea. Hala eta guztiz ere, emakume horiek iturri gisa duten legimitatea hobetzeko aukerak identifikatu dira: batetik, horien ikusgarritasuna nabarmendu eta titulu eta argazkietan toki gehiago emanda; eta, bestetik, zientzia subjektu gisa duten legimitotasuna areagotuta, hitza emanda eta zientzialari gisa duten rola indartuta. 🍷

Bibliografia

- Andersen, Jens; Nielsen, Mathias; Simone, Nicole; Lewiss, Resa; Jagsi, Reshma (2020): 'Meta-Research: COVID-19 medical papers have fewer women first authors than expected', *eLife* 9 (<https://doi.org/10.7554/eLife.58807>).
- Attenborough, Frederick (2011): 'Complicating the sexualization thesis: The media, gender and 'sci-candy'', *Discourse & Society* 22(6), 659-676 (<https://doi.org/10.1177/0957926511411693>).
- Carli, Linda; Alawa, Laila; Lee, YoonAh; Zhao, Bei; Kim, Elaine (2016): 'Stereotypes About Gender and Science: Women $\neq$ Scientists', *Psychology of Women Quarterly* 40(2), 244-260 (<https://doi.org/10.1177/0361684315622645>).
- García-Nieto, María Teresa (2013): '¿Son invisibles las mujeres científicas?', *Estudios sobre el mensaje periodístico* 19, 783-792.
- Krippendorff, Klaus (1990): *Metodología de análisis de contenido. Teoría y práctica*, Bartzelona, Paidós.
- López-Pérez, Lourdes; Olvera-Lobo, María Dolores (2015): 'Tratamiento de la información científica en las ediciones digitales de los periódicos españoles', *El profesional de la información* 24(6), 766-777 (<http://dx.doi.org/10.3145/epi.2015.nov.08>).
- Mitchell, Madeline; McKinnon, Merryn (2019): 'Human' or 'objective' faces of science? Gender stereotypes and the representation of scientists in the media', *Public Understanding of Science* 28(2), 177-190 (<https://doi.org/10.1177/0963662518801257>).

LIBURUAK

75 Euskal liburugintza 2020
Xabier Eizagirre Gesalaga

Euskal liburugintza 2020

Xabier Eizagirre Gesalaga

Filosofian lizentziaduna eta JAKINEko erredakzio burua

2020an pandemiak harrapatu gintuen bete-betean. Osasun krisi larriaz gain, gure bizitza eredia, munduaren erritmoa, kolokan jarri ziren. Zer esanik ez, ekonomiak, industriak, merkataritzak... behera egin zuten. Liburu ekoizpenak ere ez zion ihes egin olatu erraldoi horri: gure inguruko erreferentzia bat ematearren, Espainiako zein Frantziako estatuetan liburuen ekoizpena %9 inguru jaitsi zen 2019tik 2020ra (erants dezagun jaitsiera hori paperezko liburuari dagokiola osorik, bieran liburu digitalak gora egin baitzuen).

Euskarazko liburugintzak, berriz, nabarmen egin zuen gora tarte berean, bai analogikoak, bai digitalak –bereziki–: 2019an baino %11,4 titulu gehiago (262, zehazki). Hona hemen zifra gordinak: pandemiaren lehen urtean, 2.569 liburu argitaratu ziren euskaraz, 2019ko 2.307 tituluak erraz gaindituz.

Ekin diezaiozun, bada, 2020ko euskal liburugintzaren azterketari, Joan Mari Torrealdaik 1976an abian jarritako euskal liburugintzaren azterketa lerroari segida emanez.

Metodologia eta bibliografia

Informazioaren bilketa

Urtero egin ohi dugun liburu ekoizpenaren azterketak egitura eta metodologia bera du beti.

Lehenengo eta behin, liburuen katalogoa osatzen dugu.

Eta, horretarako, liburuen bilketari ekiten diogu. Dirudiena baino nekezagoa da liburuen informazioa inguratzea. Guk aurrena informazioaren gune zuzenera jotzen dugu, editorialera, eta gero sare pelagikoaz baliatzen gara. Ez pentsa euskal argitaletxe guztiek informazioa eskura ematen digutenik. Eta, tamalez, kanpoko argitaletxeekin areagotu egiten da bilketarako zailtasuna.

2020ko gure informazio iturriak hauek izan dira:

- Argitaletxe eta argitaratzaileak zuzenean: %26,9.
- Liburutegiak, Koldo Mitxelena Kulturunea eta Donostiako Udal Liburutegi Nagusia: %18.
- ISBN (*International Standard Book Number*), ELSN (Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionale) eta EIPS (Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea) arakatuz lortua: %53,8.
- Bestelako bideak (Internet, *Biblioteca Nacional* espainiarra...): %1,3.

2019an bezala, argitaletxeetatik zuzenean jasotzen dugun informazioa gutxitu egin da aurreko urteetatik, %26,9raino. Informazio iturri fidagarri eta seguruena den heinean, jaitsierra hori ez da seinale ona; areago, liburutegietatik jasotakoa ere %18ra jaitsi dela aintzat hartzen badugu. Bi iturrioren artean %45era bakarrik iritsi gara; duela bospasei urte, ordea, %60ra iristen ginen. Gure ustez, kopuru horietara itzultzea litzateke ideala, datuen fidagarritasunean irabaztearren. Sare pelagikoekin lortzen dugun informazioak beti du nahasi eta heterogeneoagoa izateko arriskua.

Informazioa ahalik eta zehatzen bildu eta gero, liburu bakoitzaren fitxa bibliografikoa osatzen dugu, dozena bat datu edo ezaugarriren inguruan: titulua, autore, itzultzailea, elebitasuna, argitalpen maila, moldatzailea, argitaratzailea, koedizioa, herria, neurriak, orrialde kopurua, gaia.

Jaso eta bilatzen dugun informazioari esker fitxa bibliografiakoak osatu ondoren, urteko katalogo osoa gure webgunean jarri dugu kontsultagai. Gainera, azterketarako erabili ditugun

tituluak baino gehiago daude webguneko zerrendan: eduki aldetik interesgarriak diren eta arrazoren batengatik ISBN gabe argitaratu diren batzuk ere eransten dizkiogu ISBNdunen zerrendari. 2020ko katalogoak 2.780 titulu biltzen ditu guztira: ISBN duten 2.569 titulu eta ISBN gabeko 211.

2013 urtetik, bitan banatuta eman ohi dugu azterketa hau. Eskuetan duzu paperezko bertsioa, azterketaren zati mami-tsuena. Baina, hau osatzeko, webguneko bertsio digitalera jo behar da (artikulu honen amaieran dator QR kodea): han daude informazio osagarriak, zehatzagoak, luze-zabalagoak. Katalogoa ere hortxe aurki dezakezu, hau da, 2020ko titulu guztien fitxa bibliografikoa.

Azterketa hiru ataletan

Informazioa bildu ondoren, hiru ataletan banatzen dugu azterketa: ekoizleak eta ekoizpena, eskaintza editoriala eta ekoizpen tematikoa.

1. *Ekoizleak eta ekoizpena*: iturri desberdinen arabera titulu kopuru desorekatua, ekoizle kopurua, hamar argitaletxe nagusien ekoizpena, argitaratzaileen tipologia eta tipologiaren arabera produkzioa.
2. *Eskaintza editoriala*: tituluak zenbat diren, horien artean zenbat diren nobedade eta zenbat berrargitalpen, zenbat diren jatorrizko eta zenbat itzulpen.
3. *Ekoizpen tematikoa*: urteko ekoizpena –aurtengo 2.569 tituluak, kasu- nola banatzen dira gai eremutan? Horri erantzuteko, sei gai eremu nagusi bereizten ditugu: hezkuntza eta irakaskuntza liburua, haur eta gazteentzako liburua, giza eta gizarte zientzietako liburua, helduen literatura, zientzia eta teknika alorrekoa eta aisia liburua.

Aurtengo azterketaren atarian

Honako hauek dira 2020ko liburugintzak eman dituen datu kuantitatibo esanguratsuenak:

- *Argitaratzaileei dagokienez*, 281 izan dira 2020an: ekoizleen kopurua ez da urtetik urtera modu esanguratsuan aldatzen, 300 inguru dabil aspaldi; baina egia da, orobat, azken urteetan pittin bat murriztu dela. Jakina, ekoizle ugari horien artean denetik dago: argitaletxeak eta argitaratzaileak, txikiak eta handiak, profesionalak eta amateurrak, bertakoak zein kanpokoak, publikoak eta pribatuak, izaera askotarikoak.

- *Eskaintza editorialari dagokionez*, 2020ko ISBNdun tituluaren kopurua 2.569 da, horietatik %72,6 bertsio analogikoan (paperean) eta %27,4 digitalean.

Iaztik hona 262 titulu gehiago argitaratu da. 2019an bezala, digitalean izan da gehikuntza ia osoa (225 titulu); liburu analogikoak 37 titulu bakarrik egin du gora.

Nobedadeak %73,5 dira, 1.889 titulu, iaz baino 169 gehiago. Berrargitalpenen kopuruak, 680 titulu, 109 unitate irabazi ditu iaztik, eta %26,5 dira aurtan.

- *Gaiei dagokienez*, hezkuntza eta irakaskuntza liburuak erraz eutsi dio lehen tokiari, 1.110 titulurekin (ekoizpen osoaren %43,2, iaz baino ia zazpi puntu gehiago).

Haur eta gazteentzako liburua dator bigarren tokian, 644 titulurekin (%25,1, iaz baino puntu eta erdi gutxiago).

Giza eta gizarte zientzietako liburua bere ohiko hirugarren tokian dago, 330 titulurekin (%12,9).

Helduen literatura, aldiz, laugarrenean dator (296 titulu, %11,5).

Bosgarren tokia aisia liburuari dagokio (98 titulu, %3,8), eta seigarrena zientzia eta teknika alorreko liburuari (70 titulu, %2,7).

Ekoizleak eta ekoizpena

Iturri estatistikoak

Urtero konparatu ohi ditugu iturri estatistiko ezberdinek liburugintzari buruz egindako azterketetan eskaintzen dituzten

datuak. Izan ere, datuen arteko aldea esanguratsua da oso: aski da ondoko taulak erakusten duen bost urteko lagin hori ondorio berberera iristeko, hau da, zein den handia batzuen eta besteen emaitza desberdintasuna eta, batez ere, beste biekin alderatuz gurea.

Urtea / Iturria	PEEL	Precisa / Conecta	Jakin
2016	1.644	1.790	2.257
2017	1.430	1.958	2.341
2018	1.116	1.842	2.186
2019	1.254	1.847	2.307
2020	—	2.055	2.569

Konbentziturik gaude guk ere besteen informazio iturriak eta besteen metodologia erabiliko bagenu emaitza berdintsu-tara iritsiko ginatekeela. Oro har, Espainiako Kultura Ministerioaren *Panorámica de la edición española de libros* (PEEL) azterketa lege-gordailuz hornitzen omen da (2020ko datua falta zaigu, azterketa hau burutzean urte horretako txosten-a ez baitute oraindik argitaratu). Euskadiko Editoreen Elkartearentzat eta Espainiako Editoreen Elkartearen Federazioarentzat lan egiten duen Conecta etxeak, aldiz, editoreei egin ohi dien kontsulta du informazio iturri. Guk ere, informazio iturri bakartzat argitaletxeak hartuta, jasotako informazioaren %26,9 bakarrik izango genuke esku artean. Horren jakitun, jarrera proaktiboa dugu, ahalik eta informazio gehien jasotzeko. Batean eta bestean jasotzen dugun informazioak ez duela fidagarritasun bera pentsa dezake norbaitek, baina ISBNk ematen du ziurtasun zigilua.

2020an, izan ere, Conectaren datuetatik are gehiago urrundu dira guk lortutakoak: 2019an 460 titulu gehiago katalogatu bagenituen, 2020an 514 gehiago izan dira. Ondoren egiten

Urtero konparatu ohi ditugu iturri estatistiko ezberdinek liburugintzari buruz egindako azterketetan eskaintzen dituzten datuak. Izan ere, datuen arteko aldea esanguratsua da oso

diren azterketa guztiak jasotako datu gordin horietan oinarritzen direnez, nabaria da bakoitzaren irismena eta balioa zein izan daitekeen.

Ekoizle ugari

Lehen atal honetan hainbat ezaugarri gurutzatuko ditugu: eragile argitaratzaileen izaera, noski, baina baita horien jarduna eta jatorria ere.

<i>Tituluak</i>	<i>Argitaratzaileak</i>
1	153
2-4	67
5-9	27
10-19	9
20-29	7
30-39	5
40-49	1
50-59	3
60-69	2
80-89	1
100-150	2
150etik gora	4
<i>Guztira</i>	281

Guztira, 281 dira 2020an libururen bat plazaratu dutenak. Aurreko urtean baino bederatzi argitaratzaile gutxiago egon da aurten; gorabehera handirik ez, beraz.

Sarritan azpimarratu izan dugu 281 horiek ez direla argitaletxeak, edizioaren profesionalak. Ezta hurrik eman ere. Okasiozko asko eta asko dago, eta noizbehinkariak ez direnak ere, gehien-gehienak, ahulegiak dira liburu politika bat markatzeko.

281 horietatik erdia eta gehiago dira (%54,4) titulu bakarra argitaratu dutenak. Hamar titulutik behera publikatu dutenak ez dira bat edo bi, ez horixe: 247 dira (%87,9). Areago: %78,3 dira lau titulu edo gutxiago ekoitzi dituztenak. Horiek guztiak argitaratzaileak dira, ez argitaletxeak.

Aurreko urteetan azpimarratzen genuen bezala, urteko 20 tituluko neurriak ezar dezake editoreen arteko ekoizpenaren

langa garrantzitsua. 2020an, bada, editoreen %8,9k bakarrik ekoitzi dute 20 titulutik gora, 25 editorek. Beste guztiek -256 argitaratzaile, %91,1- 20 titulu baino gutxiago atera dute. Urtero azpimarratu izan dugu ekoizleen atomizazioa dela euskal produkzioaren ahulezietako bat.

Ekoizleen panorama hori ezagututa, tipologiaren arabera-ko bereizketa aztertzen dugu. Ez baita berdin, ez produkzio mailan, ez liburuek jorratzen dituzten gaiei dagokienez, argitaletxe komertzial peto-petoa izan, edo izan unibertsitate, udal edo kirol elkarte, adibidez.

Argitaletxe nagusien ekoizpena: 1.433 titulu

<i>Argitaletxea</i>	<i>Nobedadeak</i>	<i>Berrargitalpenak</i>	<i>Titulu kopurua</i>	<i>%</i>
Santillana-Zubia	304	0	304	11,9
Elkar	76	202	278	10,8
Edelvives-Ibaizabal	210	8	218	8,5
Anaya-Haritz	90	72	162	6,3
Erein	53	53	106	4,1
Ikaslar	41	63	104	4,1
Edebé-Giltza	37	46	83	3,2
Ikaslar; Ikastolen Elkartea	0	69	69	2,7
Ttartalo	41	16	57	2,2
Ikasmina	46	6	42	2,0
<i>Guztira</i>	<i>898</i>	<i>535</i>	<i>1.433</i>	<i>55,8</i>

Hamar argitaletxe, handienak eta komertzialak, daude zerrenda honetan. Bada hemen agertzen direnak baino gehiago ekoitzi duenik – Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 55 titulurekin, hamargarren legoke zerrendan-, baina komertzial eta pribatua ez denez, ez dugu aintzat hartu.

Hamar handien indarra igo egin da, bai kopuru absolutuan (1.433 titulu), bai ekoizpen osoarekiko ehunekoa (%55,8, 2019an baino bi puntu gehiago), duela bospasei urteko balioetara itzuliz.

Hamar gorenak izanda ere, lau ez dira ehun titulura iristen, eta bi ozta-ozta. Bestela esanda, indartsuenak ere ez dira horren handi.

Bertakoak baino indartsuagoak dira kanpokoak hamar nagusien ekoizpenaren barruan: %57,2 vs %42,8. Argi ikus daiteke kanpokoek itzala haziz doala

Gure kasuan, beti errepara-tzen diogu argitaletxeen jatorri geografikoari. 2020an, aurreko urtean bezala, bosna dira bertako eta kanpoko. Hori bai, bertakoak baino indartsuagoak dira kanpokoak hamar horien ekoizpenaren barruan: %57,2 vs %42,8. Ekoizpen orokorrarekiko, aldiz, zortzi puntuko aldea ateratzen die-te kanpoko bost nagusi horiek bertako bost nagusiei: %31,9 vs %23,9. Azken urteotako da-tuei begiratuz, argi ikus daiteke kanpoko argitaletxeen itzala haziz doala.

2020an ere, bertako eta kanpoko argitaletxeen artean al-derik handiena berrargitalpen politikan dago: bertakoek %75,3ko indarra dute berrargitalpenaren baitan, eta kan-pokoek, orotara titulu gehiago ekoitzi arren, %24,7koa ba-karrik. Datuak egiazkoak balira, hortaz (Santillana-Zubiak 0 berrargitalpen?, Edelvives-Ibaizabalek 8?) guztiz esangu-ratsua litzateke diferentzia hori. Izan ere, berrargitalpenak egonkortasuna ematen dio produkzioari, gure ustez.

Argitaratzaileen tipologia

Argitaratzaile mota	Ekoizleak	Ekoizpena	%
Bertako argitaldari pribatu komertziala	66	988	38,5
Kanpoko argitaldaria	73	1.120	43,5
Irakaskuntza + unibertsitatea	12	149	5,8
Elkartea, taldea, fundazioa, erlijio-etxea...	72	126	4,9
Argitaldari publikoa	38	120	4,7
Besterik	20	66	2,6
Guztira	281	2.569	100,0

Argitaratzaileen unibertsoa heterogeneoa da. Bertan dau-de bertakoak eta kanpokoak; argitaratzaile komertzialak eta ez-komertzialak; pribatuak zein publikoak; handiak eta

txikiak; irakaskuntzakoak; talde, elkarte, fundazioak. Gure azterketan, horiek denak bost multzoko tipologian ordenatu ohi ditugu.

Bertakoak eta kanpokoak testuliburuaren merkatuan

Testuliburuaren merkatua aztertzeke ere, hamar ekoizle handien unibertsoan jarraitzen dugu.

Bertako eta kanpoko editorialen bereizketa geografikoak berebiziko garrantzia du ekosistema industrial eta kulturalan, ekoizpenaren erabakigunea nork duen eta non dagoen adierazten baitu, bereziki hezkuntza curriculumari lotutako arloan. Izan ere, hezkuntza edo irakaskuntzako liburu produktio handiena ez dago euskal editorialen esku, baizik eta Espainiako Estatuko argitaletxeetan.

Batzuek eta besteek ekoizpenean duten gradua ez da urtero bera izaten, baina kanpokoen esku hartzearen emaitza urtero da handia, ikasmaterialetan ekoizpenaren erditik gorakoa. Hona azken urteotako emaitzak hamar argitaletxe nagusien artean:

	<i>Ekoizle nagusien pisua irakaskuntzan</i>		
<i>Urtea</i>	<i>Bertakoak</i>	<i>Kanpokoak</i>	<i>Gainerakoak</i>
2016	22,7	74,3	3,0
2017	32,3	61,7	6,0
2018	30,0	64,8	5,2
2019	23,5	72,0	4,5
2020	21,2	75,5	3,3

Garrantziaren handia kontuan hartuta, hiru taula baliatuz azalduko dugu jarraian bi ekoizle mota horiek, alegia, kanpoko argitaletxeek edo bertako argitaletxeek, argitalgintzan duten portaera. Bereiziki curriculumara arakaturik ere, adierazgarria eta esanguratsua da gainerako gai eremuetan duten ekarpena ere aztertzea. Horrenbestez, taula bakoitzean gai eremu guztiak daude zerrendatuta.

Taula bakoitzak bost zutabe dauzka: lehenean gaia agertzen da, eta hurrengo hiruretan ekoizleak: bertako, kanpoko eta

gainerakoak. Bertako eta kanpoko diogunean, argitaletxe profesional-komertzial-pribatuez ari gara soilik, aurreko atalean aipatu ditugun bestelako ekoizleak (publikoak, elkarteak, irakaskuntza alorrekoak...) aintzat hartu gabe.

Lehen taulan, zifra absolutuak agertzen dira, eta horiei esker ikus daiteke zein den edizio mota bakoitzaren pisu kuantitatiboa.

	<i>Balio absolutuak</i>			
<i>Gaia/Ekoizlea</i>	<i>Bertakoak</i>	<i>Kanpokoak</i>	<i>Gainerakoak</i>	<i>Guztira</i>
Ekoizpen osoa	988	1.120	461	2.569
HI	235	838	37	1.110
HG	394	216	34	644
GG	61	19	250	330
HL	242	13	41	296
AL	46	15	37	98
ZT	7	18	45	70
Besterik	3	1	17	21

Ekoizpen osoaren baitan, oro har, Euskal Herrian argitaratzen diren liburuak dira nagusi, bai bertako editore komertzialek argitara ematen dutena (988 titulu) eta bai elkarte, talde, fundazio, argitaldari publiko eta enparauek argitaratzen dutena (461 titulu); 1.449 titulu dira guztira (ekoizpen osoaren %56,4).

Gai eremuak banaka begiratzuz ere, bertakoen zifrak altuagoak dira sailez sail kanpokoek baino, salbuespen nabarmen batekin: hezkuntza eta irakaskuntza liburuan oso goitik daude kanpokoak, 838 vs 235. Iaz desoreka ia bikoiztu egin bazen, 2020an are gehiago hazi da oraindik; urtetik urtera, kanpokoek nagusitasuna gero eta nabarmenagoa da liburu mota horretan.

Bigarren taulak alderaketaren ikuspegia proposatzen du. Ezker-eskuin, etzanean irakurri behar da taula, gai eremu bakoitzean kanpokoek eta barnekoek indarra zein den neurtzeko.

Ekoizpen osoa aintzat hartuz, bertako eta kanpoko argitaletxeak antzeratsu dabilta (%38,5 vs %43,6). Hezkuntza eta irakaskuntza liburuaren lerro horizontalean, aldiz, alde handiz dira nagusi kanpokoak, bertakoekiko 54 puntuko

alde nabarmenarekin. Alde horren neurria argiago atzema-
tearren, aintzat har dezagun duela bi urte 30 puntukoa zela
bien arteko tartea.

	% horizontalak			
<i>Gaia/Ekoizlea</i>	<i>Bertakoak</i>	<i>Kanpokoak</i>	<i>Gainerakoak</i>	<i>Guztira</i>
Ekoizpen osoa	38,5	43,6	17,9	2.569
HI	21,2	75,5	3,3	1.110
HG	61,2	33,5	5,3	644
GG	18,5	5,8	75,7	330
HL	81,8	4,4	13,8	296
AL	46,9	15,3	37,8	98
ZT	10,0	25,7	64,3	70
Besterik	14,3	4,8	80,9	21

Bien arteko konparaketa horretan, argi ikusten da aurten
ere kanpokoek ekoizpen sinbolikoa dutela bestelako gaietan:
ia esku hartzerik ez dutela helduen literaturaren eta giza eta
gizarte zientzietako liburuen alorretan. Hau da, kanpoko
editorialak haur eta gazteen eta eskola liburuen merkatura
mugatzen dira, besterik gabe.

Hirugarren taula, azkenik, zutikakoa edo bertikala da, zu-
tabe bakoitza goitik behera irakurtzekoa. Editorial mota ba-
koitzaren baitan ekoizpena non mamitzen den adierazteko
balio du, edizio mota bakoitzaren indargune eta ahulguneak
non dauden erakutsiz.

	% bertikalak	
<i>Gaia/Ekoizlea</i>	<i>Bertakoak</i>	<i>Kanpokoak</i>
Ekoizpen osoa	100,0	100,0
HI	23,8	74,8
HG	39,8	19,3
GG	6,2	1,7
HL	24,5	1,2
AL	4,7	1,3
ZT	0,7	1,6
Besterik	0,3	0,1

Irakurketa bertikala benetan esanguratsua da editorialen
filosofia aurkezteko: argitaldari espainiarren ekoizpena haur
eta gazteentzako eta hezkuntza liburuetan zentratzen da

kuantitatiboki (%94,1); eta, bereziki, hezkuntzakoa (%74,8). Beste esparruetan ez dute ia ezer ekoizten.

Aurreko lau taulen irakurketa bateratuak begien bistan uzten du arazoaren mamia: alde batetik, kanpoko argitaletxeek hezkuntzaren muinari heltzen diote, euskal curriculumari; helburu nagusi eta bakarra horixe dute, Euskal Herriko eskoletan kanpoan sorturiko curriculum egokitua sartzea. Beste aldetik, euskarazko hezkuntza proiektu gehienak Euskal Herritik kanpo diseinaturikoak dira, beste eta bestelako curriculum proiektuen arabera landuak. Jatorri horren markak nonahi agertzen dira: geografian, historian, oraingo zatiketa administratibo-politikoan, ikuspegi euskaltzalean... 2020an ez gaude zentzu horretan aurreko urteetan baino hobeto, inola ere.

Eskaintza editoriala


Kanpoko argitaletxeek hezkuntzaren muinari heltzen diote, euskal curriculumari; helburu nagusi eta bakarra horixe dute, Euskal Herriko eskoletan sorturiko curriculum egokitua sartzea

Azterketaren bigarren atalean, argitaratzaileen emaitza material eta kuantitatiboez jardungo dugu. Hainbat ezaugarri arakatuko ditugu jarraian: titulu kopurua, liburuen egiletza kronologikoa eta linguistikoa. Eta hori guztia ez soilik aurtengo datuekin, 2000tik gaur arteko bilakaerari ere begiratu baizik. Izan ere, eskaintzaren azterketari buruzko gure ekarpen nagusia, beharbada, emaitza bakoitza bere testuinguru kronologikoan ematea da; gure ustez, urteko informazio soilak ez du, isolaturik, interpretaziorako biderik irekitzen.

2020ko eskaintza editorialaren datu nagusien laburpen txiki batekin hasiko gara. Aurtengo titulu kopurua igo egin da: 2.569 titulu izan dira aurtengo, horietako %72,6 bertsio

analogikoan atereak eta %27,4 digitalean. 1.889 titulu nobedade edo lehen edizio dira (%73,5), aurreko urtean baino 156 gehiago. Berrargitalpenen kopurua ere hazi da: 680 titulu (%26,5), 2019an baino 106 gehiago. Nobedadeen barruan, euskaraz sorturikoak 1.278 izan dira (%69,9); itzulpenak, hortaz, 611 titulu (%30,1).

2.569 titulu



2000tik honako ibilbidean, 2020ko ekoizpena orain arteko bi puntu gorenak ziren 2008ko eta 2015eko gailurrei –2.702 eta 2.639 titulurekin, hurrenez hurren– gehitu zaie. Horrenbestez, azken bi hamarkadetako batezbestekotik dezente gora igo da aurtengo emaitza, 2019an baino 262 titulu gehiagorekin.

Urtea / Liburu mota	Analogikoa	Digitala	Guztira
2008	2.586	116	2.702
2009	2.196	236	2.432
2010	2.016	257	2.273
2011	2.161	244	2.405
2012	2.062	178	2.240
2013	1.691	184	1.875
2014	1.719	526	2.245
2015	1.928	711	2.639
2016	1.778	479	2.257
2017	1.834	507	2.341
2018	1.897	289	2.186
2019	1.827	480	2.307
2020	1.864	705	2.569

Aurreko laukian, aldiz, ekoizpen hori bitan banatua dator, analogikoa eta digitala, biak elkarren arteko alderaketan. Ikus daitekeenez, ekoizpen digitalak hartu du urteko igoe-raren zatirik handiena, 225 tituluz emendatu baitu aurreko urtekoa. Paperezkoak ere gora egin duen arren, 37 titulu bakarrik hazi da.


Nobedadeak eta berrargitalpenak

<i>Urtea</i>	<i>Nobedadea</i>	<i>Berrargitalpena</i>
2000	65,7	34,3
2001	71,8	28,2
2002	70,9	29,1
2003	71,2	28,8
2004	73,9	26,1
2005	71,3	28,7
2006	68,0	32,0
2007	69,7	30,3
2008	69,6	30,4
2009	69,7	30,3
2010	70,9	29,1
2011	71,9	28,1
2012	68,3	31,7
2013	67,9	32,1
2014	74,0	26,0
2015	80,9	19,1
2016	75,0	25,0
2017	74,5	25,5
2018	71,2	28,8
2019	75,1	24,9
2020	73,5	26,5
<i>Batez beste</i>	<i>71,7</i>	<i>28,3</i>

Gurean, liburugintza, haztekotan, nobedadeei esker hazten da. Horixe da gure joera, urtez urte, hamarkadaz hamarkada. 2020an ere, lehen edizioak ekoizpenaren lautik hiru inguru hartu du: zehazki, %73,5.

Berrargitalpena lautik bat hartzera baizik ez da iritsi, %26,5. Leku apala hartzen du edizioan. Seinale ona litzateke haziko balitz, liburugintza merkatu berrietara hedatzen dela esan nahiko bailuke. Beti pentsatu izan dugu berrargitalpenak

indar handiagoa beharko lukeela; izan ere, berrargitalpenaren ahulezia euskal liburugintzaren izaera diglosikoaren sintoma bat gehiago da, gure ustez.



Ekoizpen tematikoa

Argitaletxeen jardunaren emaitza aztertu ondoren, edizioaren muinari helduko diogu: ekoizpen tematikoari. Izan ere, bibliografoaren ikuspegitik harago, ekoizpenaren zenbatekoa bera baino gehiago interesatu izan zaigu beti ikuspuntu soziologikoa: euskaraz zer argitaratzen den, eta argitaratzen den hori non eta nola txertatzen den euskal kulturaren.

Urteroko ekoizpena, beraz, zortzi gai sailetan sailkatu ohi dugu, nazioartean erabili ohi diren ereduaren arabera. Eta sailkaturiko eremu bakoitzean ikuspegi ebolutiboa aplikatzen dugu, bost urteko erreferentzia bederen eduki dezagun.

Hona hemen zortzi gai sailak:


1. Hezkuntza eta irakaskuntzako liburuak.
2. Haur eta gazteentzako liburuak.
3. Giza eta gizarte zientzietako liburuak.
4. Helduen literatura.
5. Zientzia eta teknika alorreko liburuak.
6. Aisiako liburuak.
7. Orotarikoak.
8. Erlijio liburuak.

Zortzi arlo horietatik lehenengo seiak bakarrik aztertu ohi ditugu, urterik urte ekoizpen osoaren %99 biltzen baitute.

Aurtengo emaitzaren ezaugarri esanguratsuenak aipatzearen, esan dezagun arloen hurrenkera kanonikoari erantzun diola: hezkuntza eta irakaskuntza liburuak ia beti gorde ohi duen lehen lekuari eutsi dio ekoizpen orokorrean, igoera azpimarragarriarekin, gainera (1.110, %43,2), haur eta gazteentzako liburuaren aurretik (644, %25,1). Ikusten denez, aurtengoan ere nabarmena da haur eta gazteei zuzendutako liburuaren produkzioa (%68,3), kontuan hartu behar baita bai irakaskuntza eta bai haur eta gazteentzako liburua adin tarte berera zuzentzen dela.

Bi multzo horiek kenduta, gainerakoen itzala gehiegi arintzen da: hurrengo giza eta gizarte zientzietako liburua da (330, %12,9), eta oso gertu helduen literatura (296, %11,5). Askoz atzerago datoz aisia liburua (98, %3,8) eta zientzia eta teknikari buruzkoa (70, %2,7).

Liburu sail horiek banan-banan arakatuko ditugu, baina, lehenik, ikuspegi globala emanaz hasiko gara. Helburu hori dute hurrengo grafikoak eta laukiak; bakoitzak bere modura, errealitate bera erakusten digute: urteko ekoizpen osoa babilio absolutuetan eta erlatiboetan. Laukian beste erreferente bat sartu ohi dugu, 2000. urtea, mende honetako lehen urtearekiko nola gauden, zerk egin duen gora eta zerk behera adierazteko asmotan.



<i>Gai multzoa</i>	<i>Zenbaki absolutuak</i>	<i>%</i>	<i>2020/2000</i>
Hezkuntza/Irakaskuntza	1.110	43,2	+81,4
Haur eta gazteentzako liburuak	644	25,1	+73,6
Giza eta gizarte zientziak	330	12,9	+14,2
Helduen literatura	296	11,5	+2,8
Aisia	98	3,8	—
Zientzia/Teknika	70	2,7	-28,6
Besterik	21	0,8	—

Ekoizpen tematiko sailkatura igaro aurretik, ohar bat: gai sail bakoitzean, informazioz betetako taula bat ageri da. Gaiari dagokion laburpen osoa biltzea du xede: azken bost urteotako eboluzioa kontzeptu guztietan, hala nola tituluetan, ekoizpen osoarekiko ehunekoan, urtetik urterako eboluzio alderatuan, itzulpenaren eta berrargitalpenaren urte bakoitzeko pisuan, urteko orrialde kopuru orokorrean eta liburu bakoitzeko orrialde kopuruan.

Hezkuntza eta irakaskuntza: 1.110 titulu

	2016	2017	2018	2019	2020
<i>Hezkuntza/Irakaskuntza</i>	840	786	667	847	1.110
Ekoizpenaren %	37,2	33,6	30,5	36,7	43,2
Urtetik urtera %Δ	-28,4	-6,4	-15,1	27,0	31,1
Itzulpenen % (1. edizioan)	27,2	26,7	34,0	21,0	24,7
Berrargitalpenen %	27,9	33,2	39,3	30,9	27,5
Orrialde kopurua	103.311	69.226	61.157	78.283	78.503
Orrialde kopurua liburuko	123,0	88,1	91,7	92,4	70,7

Liburu mota honek 2019an berreskuratutako lehen postuari eutsi dio, eta ez nolanahi gainera: titulu kopuruan izugarri hazi da, 1.110 aleraino (2019an baino 263 gehiago), eta ekoizpen osoaren %43,2 biltzera heldu da. Egin kontu 2018an %30ean geratu zela (aurten baino 443 titulu gutxiagorekin); datu horrek erakusten du azken bi urteotan izan duen gorakada. Hitz bakarrean esanda: urteko ekoizpen orokorrak izan duen gorakada (262 titulu gehiago) liburu mota honek jan du osorik.

Liburu analogikoaren eta digitalaren indarrak honela banatzen dira: 596 titulu analogiko (%53,7) –2019an baino 18 titulu gehiago– eta 514 digital (%46,3). Digitalak, ikus

daitekeenez, indar handia du hezkuntza eta irakaskuntzako liburuan: urte bakarrean bikoiztu egin du titulu kopurua (269tik 514ra), eta ia analogikoaren neurrira iritsi da.

Itzulpenaren pisua zerbait berreskuratu da 2019tik, %21etik %24,7ra. Dena den, egia esan, ez zaigu datu guztiz fidagarria iruditzen, konbentziturik baikaude egiazko itzulpena askoz ere altuagoa dela testuliburuaren esparruan; izan ere, argitaletxe batzuetan ahalegin handia egiten da itzulia edo birmoldatua izan dena nobedadea balitz bezala agertzen.

Liburu mota honen berrargitalpen mailari dagokionez, %27,5ean geratu da; azken urteotan herenaren inguruan egonkortzen ari zela zirudien arren, ostera ere laurden aldera jaitsi da.

Barne sailkapena

Didaktika. Pedagogia. Orientabideak. Hezkuntzaren antolakuntza..	4,6
Eskolaurrea. Haur eskola.....	10,6
Lehen Hezkuntza.....	51,6
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.....	30,7
Besterik.....	2,5
	%100,0

Barne sailkapenean argi ikusten denez, LH eta DBH dira, beti bezala, sail hornituenak. Hurrengo taulan, bi horien balioak sei urteko perspektiban bildu ditugu.

Urtea	LH	DBH
2015	65,0	26,9
2016	28,6	53,7
2017	27,7	40,1
2018	43,9	28,8
2019	71,8	14,5
2020	51,6	30,7

Taulan ikus daitekeenez, galga jarri zaio LHko liburuak iaz izandako gorakadari, eta DBHko liburua aurreko urteetako ehunekoetara hurbildu da berriro. Beti diogun bezala, esparru honetan eskola materialen egutegi propioa eta politika editorialak gurutzatzen direnez, ez dugu uste irakurlegoaren

profilaren edo hezkuntza politikaren alorreko azalpenak bilatu behar direnik.

Haur eta gazteentzako argitalpenak: 644 titulu

	2016	2017	2018	2019	2020
<i>Haur/Gazte</i>	608	699	732	613	644
Ekoizpenaren %	26,9	29,9	33,5	26,6	25,1
Urtetik urtera %Δ	-7,5	15,0	4,7	-16,3	5,1
Itzulpenen % (1. edizioan)	68,5	73,3	69,5	65,6	60,8
Berrargitalpenen %	37,3	32,5	35,5	35,1	40,1
Orrialde kopurua	38.048	52.577	48.675	44.968	43.693
Orrialde kopurua liburuko	62,6	75,2	66,5	73,4	67,8

Haur eta gazteentzako liburua dator bigarren lekuan, ohi-koa den bezala. Duela bi urteko gailurraren ondoren, 2019ko antzeko zenbakietan geratu da, bai kopuru absolutuan, bai ehunekoan: 2019an baino 31 titulu gehiago, baina puntu eta erdi gutxiago.

Aurreko urteetan bezala, sail honetako ia liburu guztiak analogikoan argitaratu dira (629 titulu, %97,7), eta 15 ba-karrik digitalean (%2,3).

Liburu mota honetan itzulpenak beti izan duen garrantzia zertxobait apaldu da 2020an, %60,8an geratu baita. Berrargitalpenak, berriz, gora egin du azken urteekin alderatuta, %40raino iritsiz. Liburu mota honen izaera eta helmuga kontuan izanda, aurrerantzean ere goranzko joera hori in-dartzea albiste pozgarria izango litzateke.

Giza eta gizarte zientziak: 330 titulu

	2016	2017	2018	2019	2020
<i>Giza/Gizarte</i>	323	330	290	335	330
Ekoizpenaren %	14,3	14,1	13,3	14,5	12,9
Urtetik urtera %Δ	3,2	2,2	-12,1	15,5	-1,5
Itzulpenen % (1. edizioan)	33,8	27,6	33,5	30,2	24,5
Berrargitalpenen %	8,4	7,9	7,2	7,0	7,4
Orrialde kopurua	58.310	61.042	51.732	58.457	50.899
Orrialde kopurua liburuko	180,5	185,0	178,4	174,5	154,2

Giza eta gizarte zientzietako liburuak 2019an berreskuratutako hirugarren lekuari eutsi dio 2020an ere, helduen literaturaren aurretik eta haur eta gazteentzako bi liburu moten ondoren.

Alor honetako sail guztietarako 330 titulu argitaratu dira: kopuru absolutua iazkoaren oso antzekoa den arren, ekoizpen orokorraren igoeraren testuinguruan, emaitza eskasa dela esan genezake: argi ikusten da hori, izan ere, liburu mota honen ehunekoaren jaitsierari erreparatuz: %14,5etik %12,9ra.

Analogikoaren zein digitalaren kopuruak pittin bat aldatu dira, digitalaren alde: zehazki, liburu analogikoa %76,1 da (251 titulu), eta digitala %23,9 (79). Alegia, 2019tik analogikoak hamar puntu behera egin du, digitalak gora egin duen neurri bera.

Itzulpenaren pisua jaitsi egin da berriro, bigarren urtean jarraian: 2018ko %33,5etik 2020ko %24,5era erori da bi urtetan.

Liburu mota honek gizarte esparru handia hartzen du bere baitan: filosofiatik hasi eta geografia edo historiaino, soziologia, etnologia edo hizkuntzalaritzatik barrena. Eta hori guztia elikatzeko, 330 titulu dauzkagu euskaraz. Eta urtero ia titulu guztiak berriak dira, argitalpenaren indarra oso txikia baita (%6,4). Ez du lur hartzen, ez errorik sakontzen argitalpen mota honek. Diagnostika urterokoa da: gure diglosia kulturalaren beste adierazle baten aurrean gaude.

Barne sailkapena

Filosofia. Psikologia.....	3,9
Soziologia. Estatistika. Politika. Ekonomia.....	33,9
Zuzenbidea. Administrazioa.....	7,9
Etnologia. Etnografia.....	3,3
Artea. Hirigintza.....	18,2
Filologia. Hizkuntzalaritza.....	15,8
Geografia. Historia.....	17,0
	%100,0

Liburu mota honek bere baitan biltzen duen gaitegi zabala erakusten du zerrenda horrek. Eta hori guztia elikatzeko, 330

titulu soilik. Gure kulturaren eta liburugintzaren erretratu ezin fidelagoa eskaintzen digute datu horiek.

Helduen literatura: 296 titulu

	2016	2017	2018	2019	2020
<i>Helduen literatura</i>	276	285	316	311	296
Ekoizpenaren %	12,2	12,2	14,5	13,5	11,5
Urtetik urtera %Δ	-7,1	3,3	10,9	-1,6	-4,8
Itzulpenen % (1. edizioan)	23,6	22,3	26,4	30,9	19,3
Berrargitalpenen %	24,6	24,6	24,4	21,9	28,4
Orrialde kopurua	47.111	43.793	51.685	39.219	46.314
Orrialde kopurua liburuko	170,7	153,7	163,6	126,1	156,5

Helduen literaturaren multzoko 296 tituluen pisua %11,5 da ekoizpen orokorrean: jaitsi egin da 2019tik, bai kopuru absolutuan (15 titulu gutxiago), bai, bereziki, ekoizpen osoarekiko ehunekoan (bi puntu gutxiago). Izan ere, azken hamarkadako ehunekorik apalenaren aurrean gaude.

Multzo honetan 249 titulu argitaratu dira analogikoan (%84,1), 2019an baino 27 titulu gehiago; digitalean, aldiz, 47 soilik kaleratu dira (%15,9): 2019an baino 42 titulu digital gutxiago atera dira, beraz.

Nobedadeetan itzuli diren literatur liburuak %19,3 bakarrik izan dira (41 titulu), aurreko urteetako balioetatik behera. Berrargitaratutako liburuak, aldiz, %28,4ra igo dira (84 titulu), azken urteetatik gora. Berrargitalpenen datua igotzea beti iruditzen zaigu ekoizpen eta kontsumo osasuntsuagoren adierazle.

Generoka

Eleberria. Ipuina.....	54,4
Olerkia.....	17,9
Antzerkia.....	2,0
Herri-literatura. Bertsoa.....	2,4
Miszelanea. Kronika. Saioa.....	17,6
Literatur teoria eta kritika.....	5,7
	%100,0

Narratibaren nagusitasuna aurreko urteetako neurri bertuan errepikatu da 2020an ere: %54,4, gainerako generoak urruti utziz. Olerkiak, bere aldetik, iazko beherakadari buelta eman dio, %14,2tik %17,9ra igoz.

Gainerakoak

Zientzia eta teknika: 70 titulu

	2016	2017	2018	2019	2020
<i>Zientzia/Teknika</i>	107	134	63	85	70
Ekoizpenaren %	4,7	5,7	2,9	3,7	2,7
Urtetik urtera %Δ	2,9	25,2	-53,0	34,9	-17,6
Itzulpenen % (1. edizioan)	27,2	19,8	15,0	17,1	10,3
Berrargitalpenen %	3,7	6,0	4,8	3,5	2,9
Orrialde kopurua	8.937	11.190	7.551	9.574	7.389
Orrialde kopurua liburuko	83,5	83,5	119,9	112,6	105,6

Zientzia eta teknika alorreko liburuak ez du burua altxatzen: behera egin du berriro kopuru absolutuan (70 titulu eskas bakarrik, 2019an baino 15 titulu gutxiago), baina, batez ere, ekoizpen osoarekiko ehunekoan: %2,7 besterik ez du eman. Mende honetako ehunekorik apalenaren aurrean gaude! Behin baino gehiagotan esan izan dugu: euskal liburugintzaren eta euskalgintzaren beraren ahuleziaren adibide bat gehiago dugu begien aurrean.

Zientzia zehatzak. Natur zientziak.....	27,1
Medikuntza.....	41,5
Ingeniaritza. Teknologia.....	15,7
Zientzia eta teknika aplikatuak. Industria.....	15,7
	%100,0

Aisia liburuak: 98 titulu

Musika.....	7,1
Argazkia.....	11,2
Jolasa. Jokoa. Kirola.....	16,3
Ikuskizunak (antzerkia, zinema.....)	8,2
Kiosko literatura.....	57,2
	%100,0

Aisiako liburua iazko kopuruaren inguruan geratu da, 98 titulurekin. Baina liburu mota honek arazo kuantitatibo eta kualitatibo larriak ditu: titulu gutxi, itzulpenak eskas, berrargitalpenik batere ez. Modernitatearen ikur den aisiak euskaraz ez du erakarpen handirik, dirudienez. Diglosiaren beste seinale bat: liburu mota hori ere erdaraz kontsumitzen dugu, antza. 🐼



2020ko LIBURUAK: GAI SAILKAPENA

Sailak	Zenb. abs.	%
0. OROTARIKOAK	724	28,2
— Zientzia eta kulturaren oinarri orokorrak. Bibliografia.		
Katalogoak. Bibliotekonomia. Entziklopediak. Kazetaritza.		
Museoak	24	0,9
— Haur eta gazteentzako argitalpenak	700	27,3
1. FILOSOFIA	13	0,5
— Metafisika. Ontologia. Estetika. Filosofia sistemak. Psikologia.		
Logika. Etika	13	0,5
2. ERLIJIOA. TEOLOGIA	8	0,3
— Berezko teologia. Biblia. Kristologia. Mariologia. Teologia morala.		
Liturgia. Pastoral teologia. Eliza. Kristauez besteko erlijioak	8	0,3
3. GIZARTE ZIENTZIAK	1.261	49,1
— Soziologia. Estatistika. Demografia. Politika. Ekonomia.		
Zuzenbidea. Herri administrazioa. Gizarte laguntza. Etnologia	151	5,9
— Hezkuntza. Irakaskuntza. Heziketa. Pedagogia	1.110	43,2
5. ZIENTZIA ZEHATZAK ETA ZIENTZIA NATURALAK	18	0,7
— Matematikak. Astronomia. Fisika. Kimika. Geologia. Metereologia.		
Paleontologia. Biologia. Botanika. Zoologia	18	0,7
6. ZIENTZIA APLIKATUAK. MEDIKUNTZA. TEKNIKA	49	1,9
— Medikuntza. Ingeniaritza. Teknika. Nekazaritza. Basogintza.		
Zooteknia. Etxeko ekonomia. Industria. Zenbait industria eta lanbide.		
Eraikuntza. Sukaldaritza	49	1,9
7. ARTEA. JOLASAK. KIROLAK	100	3,9
— Artea. Estetika. Hirigintza. Arkitektura. Eskultura. Marrazketa.		
Margogintza. Argazkigintza. Musika	78	3,0
— Jostaldiak. Ikuskizunak. Jolas eta jokoak. Kirolak	22	0,9
8. FILOLOGIA. LITERATURA	340	13,2
— Hizkuntzalaritza. Filologia	44	1,7
— Literatura. Literatur generoak	296	11,5
9. BIOGRAFIA. HISTORIA. GEOGRAFIA	56	2,2
— Biografia	20	0,8
— Historia. Geografia	36	1,4
GUZTIRA	2.569	100,0

EGUNEN GURPILEAN

101 Kultura
Guri bost
Ikusmena
Ukimena
Dastamena
Usaimena
Entzumena
Maialen Akizu Bidegain

108 Glocalia
Ni puztuak edo ni hauskorrak?
Selfie-ak argazkiak ote dira?
Nartisoren heriotza eta *selfie* hiltzaileak
Iñigo Martinez Peña



Kultura

Maialen Akizu Bidegain

Guri bost

Egongo da azalpenen bat, ikerketa, liburu edo autore dontsurren bat, zergatik bost –eta ez bi, hamaika koma hiru, edo hogeita sei– ditugula azaltzen duena, baina, hori beste baterako gai; kontua da sinistuta gaudela bost zentzumen ditugula, eta adostuta dago zein diren bostak: ikusmena, ukimena, usaimena, dastamena eta entzumenena. Zentzumenen bidez kanpo munduaren berri izan eta erantzunak emateko kapaz gara, eta, hargatik, erabat lotuta daude zentzumenak kulturarekin. Kulturaren eta naturaren dikotomia setatsua hemen ere bai: ikusten, ukitzen, gustatzen zaigunak zenbat du gorputzaren erreakziotik, eta zenbat, ikasita ditugun premisa horietatik? Hori ere beste baterako.

Gaurkoan, hilabete hauetan jasotako inputak zentzumen batekin lotu nahi ditut. Jakitun begiek belarriak behar dituztela ikusteko, eta sudur-zuloak mingainaren maitale betierekoak direla. 7 eskale musika taldea «zentzurik ez daukaten gauza denen zale» zen; zentzua izatea posible balitz moduan.

Ikusmena

Arantza Santesteban mugitzen nauen ahots bat da. Bere esan, enkontru edo irakurritakoek oihartzun egiten didate gerora ere. Oroitzen dut nola irakurri nion *burujabetza* terminoak karranka sortzen ziola; berriz ere, gorputza albo utzi eta buuruan jartzen genuelako fokua. Ordutik, eztabaidatu izan dut zein beste kontzeptu izan daitekeen ordezeko. Proposamenik izanez gero, bota lasai.

Apirilaren lehen igandean, aukera izan nuen Santestebanen 918 *gau* filma ikusi eta Tabakaleran eskainitako ondorengo solasaldian egoteko. Igande sargoria eta barrura sartzeko nagirik ez. Pelikularekiko espektatibak erlatibizatzea kostatzen ari zitzaidan. Iaz estreinatu zen film horrek nazioartean sari garrantzitsuak lortu ditu: DocLisboako Nazioarteko Film Onena, Torino Film Festibaleko Nazioarteko Dokumental Onena eta Pontevedrako *Novos Cinemas-en Latexos* saria.

65 minutuko tartean, ikuslea begira egotera baino, behatzera gonbidatzen du pelikulak. Narratiba zuzenik ez dago; irudiak erakusten dira, teknika ezberdinen bidez hausnarketa proposatu, iradoki, galdetu. Pelikularen osteko kolokioan prozesu kaotikoa eta zaila izan dela zioen Santestebanek. Bere militantzia esperientzia du ardatz, baina helburua ez da izan *Euskal Gatazka* deiturikoaren errelatua osatzea; gehiago nahi izan du errelatu hori zein egungo ulerkera politikoak oinarri dituzten logika bitarrak zalantzan jarri: zer gara, heroiak ala traidoreak? Noiz gara bakoitza? Norentzat? Ezkerra ala eskuina? Non kokatzen gara «iraultza ala hil», «aberria ala hil» diogunean?

Kepa Matxainek elkarrizketa bikaina egin zion Santestebani *Argia* aldizkarian. Bertan kontatzen zuen, ikuspuntu subjektibotik egindako pelikula izan arren, ez zuela pelikula *intimista* bat egin nahi; kolektibotasunak norbanako arduratsuak behar ditu, eta berak xede horrekin ondu du lana. Pentsamenduaren inguruan pentsatzeko beharra aldarrikatzen du Santestebanek, hausnarketari leku egitea, abstrakzioari, deskribapenari. Erakuts dezagun, azaldu beharrean. Erakutsi kartzelaren barruak, kanpotik jasotzen diren irudiak, betikotuta ditugun leloak, gutaz hitz egiteko imajinario berriak. Artea ez dagokio *zerbaiti* bakarrik; *zerbait* ere bada. Artelan bat *gauza bat* da munduan, eta ez munduari buruzko testu edo iruzkin bat bakarrik.

Tabakalerara bertaratu ginen lagunok bukaeran ikusitakoa konpartitzeko hitzak bilatu ezinda ibili ginen. Ulermenaren kodeetan deszifra ezin genezakeen obra bat zen hura,

noraeza sortu eta mugitu gintuena. Zerbeza baten bueltan deigarri egindako eszenak atera ziren, bukaerak sortutako haustura, musikaren efektua, kameraren tekniken erabilera. Ez genekien ondo interpretatzen jaso genuena, baina, horixe da kontua, edo? Saiatzen gara aurretik genituen eskema eta kaxoietan kokatzen jasotzen duguna, edukiari heltzen; gus-tatzen zaigu eta lasaitzen gara hala bada, arraro edo inuzente sentitu bestela gertatzen denetan. Elkarrizketan Santesteba-nek zioen: «gustatzen zait jendea uztea ikusi duenarekin zer egin oso ongi ez dakiela». Gu geu halaxe utzi gintuen. Eta beste zerbeza erronda bat eskatu genuen arratsaldeko zor-tzietan hori delako egiten dena.

Ukimena

Piarres Xarritoni irakurri nion behinola Iparraldean ‘hunkitu’ Hegoaldeko ‘ukitu’-ren parekoa dela, ez besterik. Hegoaldeko egodunok, baina, azken urteotan ñabardura berri bat erantsi omen diogu: hunkigarria da bihotzean ukitzen (hunkitzen) gaituen hori.

Gainerako zentzumenetan giza aberea ezdeusa da beste ani-maliekkin konparatuz gero; ukimena, ordea, espezie honetan, bereziki garatu da. Ukimena, gainera, beste zentzumenak ez bezala, derrigorrean da alde bikoa: beste zer edo zer ukitzeak zerbait horrek zu ere ukitzea dakar. Ukimena da plazera, intimitatea zein lotura sozialak lortzeko bide, eta beroriek suntsitzekoa ere bai; torturek, bortxaketek, azala izaten dute laztura eta sufrimendu jo-puntu gehiengan.

Ukitzea jotzea ere izan daiteke, baina jotzeak ez du beti min ematea esan nahi. Larrua *jo* egiten dugu, baita musika ere. Orain artean, musika jotzeko, gutxienez, instrumentua, ikas-kuntza eta gaitasuna behar ziren; gaur egun, instrumenturik ukitu ere egin gabe jotzen dugu musika. Zakurraren biolina!

Halaxe eman zuten kontzertua Ines Osinaga, Olatz Sal-vador, Itziar Garaluce eta Lorea Argaratek maiatzaren 14an

Galdakaon, bigarren urtez antolatu den Sormene egitasmoaren barruan. *#Mauriziakezdauinorhil* izenarekin, Mauriziaren kantak oinarri hartu eta, trikitia eta musika elektronikoa uztartuz, bestelako kopia zein kanta berriak eskaini zituzten. Ni neu tamainan harritu eta sobera mesfidatu izan nau oholtzetan estu-estu kabitzen ziren bateria, gitarra, baxu, trikiti eta enparauak bitrozeramika itxura hartzen diodan mahai batera sinplifikatzeak, baina aldatu zaizkit tamainak eta soberak.

Teknologiaren eta kulturgintzaren arteko harremana historikoki izan da gatazkatsua, eta alferrik desiratuko dugu hala ez izatea. Musika sortu, ekoitzi eta entzuteko moduak aldatu egin dira, eta, ezinbestean, musika ulertzeko eta ukitzeko moduak ere bai: instrumentu eta farandulak ukitzeari muzin egin gabe, akaso hobe musikak Iparraldeko adieran ukitzen bagaitu.

Dastamena

Duela gutxi irakurritako ipuin bat.

Animaliak buru-muinak idortuta zebiltzan gauero begira izaten zuten ilargia nola dastatu pentsatzen: zer izango zen, gazia edo geza? Gozoa ala garratza? Biguna ala gogorra? Egun batean, dortoka txikia inguruko mendirik altuenera igo zen, besoak eta lepoa luze-luze egin, baina alferrik, ezin ilargira heldu. Orduan, elefantea deitu zion: «Elefante, elefante, etorri hona eta igo nire oskol gainera, ea horrela ilargira heltzen garen». Ilargiak jolas bat zela pentsatu eta, elefantearen tronpa gerturatzean, ieup, jauzi txiki bat eginda tartea handitu zuen. Etsitzeko asmorik gabe deitu zieten animaliek jirafari, lehoiari, azeriari, tximinoari. Bata bestearen gainean jarri eta ahaleginak eta bi egin zituzten, baina ilargia salto eta zapart. Saguari deitzea bakarrik falta zen, eta halaxe igo zen sagu txikia kideen bizkar gainetara. Ilargia jolasarekin aspertuta zegoen ordurako. Sagu txikiak ez zion arriskurik

iradoki, eta zegoen lekuan gelditu zen, kieto. Saguak, brinko handi bat eman eta, ñan-ñan, ilargiari zatitxo bat kendu zion.

Lagunen artean banatu zuten ilargiaren zatia. Ilargiaren zaporea ezin izan zuten adostu; bakoitzak gehien gustatzen zitzaion zaporea hartu zion ilargiari: sagutxoak gaztarena, elefanteak kakahuetearena, tximinoak platanoarena.

Usaimena

Hiru urteko itxaronaldiaren ostean, 2022ko martxoaren 31n abiatu zen Amurriotik Donostiara hogeita bigarren Korrika. *Hitzekin* izan da edizio honen leloa, eta Karmele Jaio idazleak irakurri zuen amaierako mezua. Hainbat ertzetatik hel diezaiokegu Korrikaren fenomenoari, baina, artikulu honetan zentzumenak hizpide, 2022ko Korrikaren ikus-entzunezkoa aipatu nahi nuke. Edizio honetarako Txakur Gorria sormen kolektiboak egin du lana. Ane Labaka Mayozen kolektiboko ki-dearen hitzetan, leloaren bi zatiak izan zituzten dokumentala osatzeko abiapuntu: «hitz» eta «ekin». Euskararen errealtate linguistiko eta emozionalaren argazki bat erakusten duten bederatzi lagunak hitzak biltzen dituzte, eta, segidan, hitzek mundua eraikitzeke duten gaitasunaz hausnarketa egiten da Korrikako irudi zaharrekin lagunduta Lorea Agirreren ahotsean.

Dokumentala sarean dago eta ikustera gonbidatzen zaituztet, baita proposatzen duten ariketa poetiko-politiko egitera ere; galderak erantzutera, alegia. Koloreak dira lehen galdera-gai: *Zein koloreekin lotzen duzu euskara?* Urliak dio kolore asko dituela gure hizkuntzak, Sandiak harrien kolorea jartzen dio, Berendiak laranja, eguzkiaren kolorea laranja delako. Galde egiten dute musikaz ere: *Zein musika edo soinuarekin lotzen duzu?* Herri-musikarekin lotzen duenik bada, euskalkiekin eta isiltasunarekin lotzen duenik ere bai. *Eta zein usain du euskarak?* Elkarrizketatuek etxeko janaria, baratzeko lur eta belar bustia, egunsentiko ihintza, amaren

eta aitaren larruaren usaina hartzen diote euskarari; bada belardi batetik behorak pasa direla antzematen den usaina atxikitzen dionik ere. Batek, irrika, galdera hori oso zaila dela eta ez dakiela erantzuten dio. Nik ere arrastorik ez.

Izan ere, ukitzen duguna deskriba dezakegu esanez lakarra dela, oliotsua, segaila; dastamena oinarritzko bost zaporetan banatzen da: gazia, gozoa, mingotsa, garratza eta umamia; entzuten duguna ere esan genezake grabea dela, arina, bortitza. Baina, usainak, nola deskribatu usainak? Euskarak ba al ditu bere usainak? Non dago kiratsaren eta lurrinaren muga?

Entzumena

Maite dut ibilian ibiltzea. Neure kasa joaten naiz gehienetan, baina aitortzen dut, aspaldian, bidean soilik egoten kosta egiten zaidala. Gure bizimoduaren penitentzia bada hori: gauza bakarra ezin, beti lau egin nahi. Kaskoak jarri eta irratia edo podcastak entzuten ditut, txorien kantuak bereizteari amore emanda.

Euskarazko podcasten artean bada non aukeratua. Gustura entzuten ditudanen artean dago *Barruan gaude* podcasta. Oier Aranzabalek gidatzen duen podcast hori ez da estudioan grabatzen; gonbidatu bat izaten du atal bakoitzean, eta haren etxean izandako solasaldia eskaintzen da tarteko soinu zein interferentziak disimulatzen saiatu gabe. Berrogeita zazpigarren atala Xabier Erkizia lesakarraren etxean grabatutakoa da: soinuaren, zarataren eta entzumenaren inguruko ordu eta erdiko argizaria.

Erkizia txikitatik liluratu du zaratak. Oroitzen du aitonak beti bizkarrean irratia zahar bat izaten zuela eta dialean munduko hainbat herrialde zeudela idatzita; erruleta biratu eta «Paris». Irratiaren karranka Parisen entzuten ari zena izatea sekulakoa zitzaion mutikoari.

Mota askotako lanak egin ditu lesakarrak, eta, bilduta dituen soinuen antzera, bera ere ez da erraza kalifikatzen.

«Berandu iristearen artea» omen da berea; soinuak harrapatzen du bera, ez berak soinua. Mikrofonoarekin kalera atera eta grabatzeko botoia sakatzen baduzu, soinu bat helduko da zuregana; baina soinu hori hor zegoen jada, zu zara ondoren iritsi dena.

2022ko otsailean estreinatu zen Erkiziaren lehen film luzea, *O gemer (Intziria)*. Filmaren akuilua, aitonak kontatutakoa: gerra garaian gurdien soinuek ba omen zuten bi aldeen momentuko su-etena iragartzeko soinu bat. Idi-gurdietan eraildakoak baldin bazetozen egiten zuen soinu hori gurdiak; gorpuak ez baitauka bandorik. Victor Hugoren *Idi-orgaren karranka* bidai kronika liburuan irakurtzean ere ohartu zen gurdi-soinuek kodeak zituztela garai hartan, eta motorrak eta industriak erabat aldatu zutela hiriaren soinua.

Entzumena da gizakiok gureganatzen dugun lehen zentzumena, eta azkena galtzen duguna ere berori omen da; hil ondotik ere funtzionatzen du entzumenak. Horregatik hilda-koari belarrira azken xuxurla egiteko ohitura edo gorpuaren bueltan isiltasuna mantentzeko eskaria. Eider Rodriguezen *Eraikuntzarako materiala* eleberriak hala dio: «Ez nengoen konturatuta: *isiltzen*-ek ere *hiltzen* darama barruan». 🍷



Ni puztuak edo ni hauskorrak?

Zergatik bihurtu da hain ohikoa *selfie*-ak egitea gure eguneroko bizitzan? Ekintza horren oinarria aztertu nahi izan du Matthew Frost zinemagileak *Bi minutu Kirsten Dunstekin edo modan jarritako selfie-en ergelkeria* film laburrean. Paseoan Kirsten Dunst ikusi, *Melankolia* filmeko protagonista, autoa gelditu eta berarekin argazkiren bat ateratzea eskatzen diote bi gaztek. Antzezle ospetsua harrituta dago ateratako argazki kopuruarekin. Bata bestearen atzetik, klik eta klik entzuten da, gazteek aurpegietan hainbat keinu probatzen dituzten bitartean. Kirsten Dunstek, deseroso, galdera bereziren bat edo bere ibilbide profesionalari buruzko jakin-minik ba ote daukaten galdetzen die. Eta hauxe da kezka bakarra: «Zurekin ateratako argazkiak gure sare sozialetara igo ditzakegu? Horretarako baimena ematen diguzu?». Baiezkoa jaso eta arin egiten dute alde, Dunst aho bete hortz utziz. Zelako fan motak dira horiek? Film laburraren amaieran, autoan doazela, gazte baten oihua entzuten da: «Dagoeneko 15 *like* jaso ditut!».

Selfie-ekin batera doa *like*-ak jasotzeko beharra? *Like* eta jarraitzaile kopuruaren arabera gure nia puztu edo hustu egiten da? Errekonozimendu berri horrek lan itzela eta konexio etengabea eskatzen du. Identitate 'likido' eta hauskor baten seinale? Identitate likido eta hauskorragoen garaian, irudia helduleku nagusi bilakatu zaigula ematen du. Arazoa da helduleku gisa higikorregia dela, ez dela batere sendoa. Horren adierazle dugu psikiatrian deskribatutako ispiluaren sintoma: psikosi batzuetan, subjektua ispiluaren aurrean jartzten da behin eta berriz, bere irudiak berdin jarraitzen duela konprobatzeko, identitatea galtzearen beldur.

Zerikusia dauka horrek mugikorrari behin eta berriro begira egotearekin? Zerbait galtzearen beldur gara etengabe? Hori ere identitate digital hauskorrari eusteko modu bat izan daiteke... oso nekagarria bada ere. Batez beste, datuen arabera, 251 aldiz begiratzen dugu mugikorra egunero. Nerabe gehienek altxatu eta bost minutura jada lehenengo begirada egiten diote. Eta, gau erdian esnatuz gero, mugikorra begiratzten dute: mezu berriren bat heldu ote da? Inkosten arabera, Instagram dute aplikaziorik gustukoena, testua baino gehiago irudia delako nagusi. Bereziki Snapchata jarraitzen dute: bertan, argazkiek, desagertu aurretik, ordu batzuk baino ez dute irauten ikusgarri. Mugikorrari adi ez bazaude, ez duzu argazki hori ikusiko, eta, esan bezala, kontua ezer ez galtzea da. Deskonexiorik gabeko arreta etengabea! Afari batean, adibidez, mugikorra mahai gainean jartzeak eragin zuzena omen dauka afariko solasaldian. Mugikorraren zurrumbiloan jarritako arreta dela medio, hitz egiteko gai gutxiago bururatuko zaizkigu: mutu egoteko joera berria.

Baina, zer ote da galduko genukeena? Zer da argazkietan aditzera ematen dena? Ez dira, egia esan, kontu oso bereziak. Batez ere gure egunerokotasuneko argazkiak partekatzen ditugu: lagunekin kopa bat edaten, hondartzatik paseatzen, jatetxeko mahai gainean pizza eta pastel zatia jateko prest... Badirudi, finean, guk ere disfrutatzen badakigula adierazi behar dugula, kontsumoaren munduko biztanleak garela erakutsi. Hauxe litzateke Descartesen formula berriztua: «Gozatzen ikusten naute, beraz existitzen naiz». Ni hemen, ni hor, ni han... Nia edonon! Tokia, ia-ia, gutxienekoa da. Lagun bat, adibidez, Parisko Louvre museora joan zen Mona Lisa ikustera. Eta, kontatzen zidanez, zer egiten zuen mundu guztiak ilara luzean itxaron ondoren? Koadroaren aurrean buelta eman eta, margolana begiratu beharrean, Mona Lisaren aurrean *selfie*-ak atera. Badirudi «hemen egon naiz!» dela adierazi beharreko mezu bakarra.

Edozein une izan daiteke aproposa autoargazki bat ateratzeko, hileta bat bada ere. Egia esan, modan jarri dira hiletetako

selfie-ak, hildakoaren edo hilkutzaren aurrean egindakoak. Polemika piztu dute, jarritako aurpegi estereotipikoek egotzari beharrezko duintasuna kentzen diotelako. Zein dira, hileta batean zein etxeko egongelan izan, *selfie*-etarako jartzten diren aurpegiak? Badira errepikatutako keinu zehatzak: mingaina ateratzea, bekaina igotzea edo muxu bat bidaltzea. Horiek izaten dira ohikoenak. Baina, bada ahoa arrain edo ahate forman (*duck face*) jartzeko ohitura duenik ere, edo, are gehiago, gorputzen zati berezi batzuen *selfie*-ak: *helfie* edo ilearen autoargazkia; *belfie* edo ipurdiarena... Eta badi-ra *selfie*-en bertsio bereziak ere: adibidez, *drElfie* deitu zaio mozkortuta ateratakoari; *bookshelfie* liburuekin ateratakoari edo *groufie* taldean egindako autofotoari.

Mota guztietako argazkiak partekatzen ditugu, gure identitate iheskorren berri emateko... Baina, argazkiak eta *selfie*-ak gauza bera al dira? Bien arteko bereizketan sakondu du Byung-Chul Han pentsalariak.

Selfie-ak argazkiak ote dira?

Pentsa genezake teknologia berri baten bidez lortutako argazkiak baino ez direla *selfie*-ak. Pentsalari batzuek, ordea, ez dute bien arteko jarraitutasunik edo garapenik ikusten, eta haustura bat azpimarratu nahi izan dute. Askotarikoak dira aipatutako desberdintasunak; besteak beste, irudia eskuratzeko moduan dagoena: autoargazkietan ez dago argazkilariarekin harremanik, norberak bere buruaren irudia lortzen baitu. Ekintza autoerotikoa da. Freudek autoerotismoa bere buruari musu ematen dion aho batekin irudikatzen zuen. Oraingoan, ahoa beharrean, begia da nabarmentzen dugun gorputzaren atala, baina autoerotismoaren paralelismo bera egin genezake. Argazkilaririk ez egoteak, gainera, erabat kentzen die izaera artistikoa *selfie*-ei. Artearena baino, produkzio industrialaren eta kantitatearen logika merkantilista jarraitzen dute. Aurpegi estandarizatuek iragarkien estiloa

jarraitzen dute, merkantziaren itxura daukate. Gainera, ‘zaratatsuak’ izan nahi dute, denak oso antzekoak egiten zaizkigu eta denbora gutxi irauten dute merkatuan...

Argazkien eta *selfie*-en arteko bereizketari kapitulu bat eskaintzen dio Byung-Chul Hanek *Ez-gauzak* liburuan. Eta oro digitalizatzearen ondorioak aztertzen eta kritikatzeko ditu bertan: gurea materialik gabeko mundua da, informazioz betea. Gauzarik ez dago jada, eta, gauzen ordean, informazioak inguratzen gaitu. Izan ere, berez, zer da *selfie*-a? Daturik betetako errealtate digitala. Ez da gauza bat, euskarri materialik gabeko informazioa baizik. Horixe dugu irudi digitalen benetako izaera: zenbakien segida bihurtutako arria, informazio hutsa. Horrek kentzen die sakontasuna, eta aurarik gabeko aurpegiak erakustera eramaten gaitu. *Selfie*-en poztasun digital arinari edertasun malenkoniatsua falta zaio.

Bereizketan sakondu daiteke, Roland Barthesek argazkiei atxikitako ezaugarri bati helduz. Haren ustez, argazkiek lotura daukate norberaren barne mundu animikoarekin, norberaren sekretuekin. Gordetako oroipenak dira argazkiak: jabearentzako sakratuak. *Selfie*-ak, berriz, gaurkotasun hutsa dira, ez daukate oroitzapenekin zerikusi handirik. Horren adibide dugu aipatutako Snapchata: irudiak segundo gutxitan ezabatzeko aplikazioa. *Selfie*-ek, modu horretan, sare sozialen abiadura bizia daramate, eta gaurkotasun zein abiadura hori ez dator argazkien izaerarekin bat. Bestelako metafisika bati buruz ari gara. Argazkien kasuan, garrantzitsua da horien data, biografia batekin lotzen baitugu. Eleberrien izaera literarioa atxiki diezaiekegu. *Selfie*-ek, aldiz, ez daukate historiarik, momentua era ludikoan goraiatu baino ez dute egiten. Logika narratiboaren ordean, logika adiktiboa nagusitu zaigu, Byung-Chul Hanek bere analisisan esan bezala. Eta logika adiktibo horrek agerian jartzen du irudien iheskortasuna, gero eta azkarrago desagertzen baitira. Horregatik, *selfie*-en bidezko identitatea bereziki helezina da. Oraina etengabe ikusarazi behar dugu! Hortxe bere exigentzia exhibizionista

eroa, denboraren jario amaigabea... Orainen bilduma geldiezinean nortasunaren segida bat ikusarazi behar ote da?

Nartzisoren heriotza eta *selfie* hiltzaileak

Aipatzekoa dugu Danny Bowmanen kasua: egunero berrehun autofoto baino gehiago egitera heldu zen. Egunero, era berean, hamar ordu ematen zituen bere *selfie*-en inguruko aipamenak irakurtzen, sarean. Hamabost urte zeuzkan eta, apurka-apurka, ikasketak utzi, elikatzeari utzi... eta *selfie* perfektua lortzea ezinezkoa zitzaiola ikusita, bere buruaz beste egiten saiatu zen hemeretzi urterekin. «Selfieadikto» gisa diagnostikatu zuten. Muturreko kasua da, ados, baina muturreko kasuek 'normaltasunaren' berri ere ematen digute.

Selfie-ak, horrenbestez, argazkiak ordezkatu ditu. «*Phono sapiens*-ak» ere «*Homo sapiens*-a» ordezkaturiko ote du? Gure identitate hipermodernoaren gure mugikorrean badago, hil ala bizikoa zaigu sarean egotea, bertan existitzea. Hil ala bizikoa.

2008 eta 2021 urteen artean 400 pertsona inguru hil ziren munduan *selfie* harrigarri eta berezi bat lortzeko ahaleginetan, gehienak gizonezkoak eta gazteak. Egia esan, istripu ugari suertatu dira irudi bikainaren bila arriskuak hartzeagatik: etxe orratzetan, garabietan, zubietan, lakuetan, mendi tontorretan edo animalia arriskutsuekin batera irudia ateratzerakoan. Hildakoen kopurua murrizteko, «*selfie*-entzako eremu debekatuak» sortzea proposatu dute Ameriketako Estatu Batuetan; edo, modu berean, nerabeei zuzendutako «Milioi bat *like*-k ez dute giza bizitza bat balio» kanpaina jarri zuten abian Errusiako agintariek.

Kasu gordin asko gertatu dira. 2019ko maiatzean, adibidez, 16 urteko gazte batek bere buruaz beste egin zuen Malaysian, bere Instagrameko jarraitzaileen artean galdetegi bat pasatu ondoren: «Hil egin beharko nuke?». Noa Pothovenen heriotzari «bai» sakatu zioten jarraitzaileen %69k, eta neskatoak

online egin zuen bere buruaz beste. Nartzisismoa edo niaren erabateko hauskortasuna irakur daiteke gertaera horietan?


Badirudi ahaztu egiten zaigula irudien atzean gorputz erreal bat dagoela, ebakuntzen bidez *selfie*-etara moldatu nahi bada ere. Ebakuntza mota horri, nola ez, izen bat jarri diote Bostoneko Medikuntza Unibertsitatean: Snapchateko dismorfia. Oso argia egiten da, horrelako izenekin, buruko gaixotasunen eta gizartearen arteko lotura. Psikologia indibiduala bada psikologia soziala ere; diagnostikoak historikoki eta sozialki aztertu behar dira.

Egun, gorputzaren ordez, haren irudiak hartu du erabateko lehentasuna? Nor da, orduan, bizi dena: nire gorputza edo nire irudia? Batetik, irudien garrantzia dugu, eta, bestetik, autolesioen gorakada. Txanpon beraren bi aldeak? Horrela interpretatzen ditu autolesioak Byung-Chul Hanek *Gizarte aringarria* liburuan. Zauriek irudiek eztanda egitea bilatzen dute, irudien airea eta ezereza gainditzea, *selfie*-ak zulatu, zeharkatu eta behingoz gorputzean zerbait sentitzea. Gorputzari existentzia eman nahi diote, etsipenez beteriko errebel-dia isilean. Autolesioak *selfie*-en atzealde odoltsua lirake.

Dena den, badira beste bide batzuk *selfie*-en ondorio hiltzaileak aztertzeko, hain nabariak ez badira ere. Adibide gisa, Argentinako hondartza batean gertatutakoa. Bainulari batek izurde txiki bat aurkitu zuen urertzean; uretatik jainko txiki bat aterako balu bezala, izaki eder eta ñimiño hura eskuetan hartu eta ingurukoei erakutsi zien. Hara non, ehunka lagun hurbildu zitzaizkion izurdetxo ferekatzera eta animaliarekin *selfie*-ak egitera. Izurdea, bitartean, itotzen ari zen eta halaxe hil zen, inor konturatu gabe. Inori ez zitzaion burutik pasatu uretara bueltatzea berarekin *selfie*-ak egiten zituzten bitartean. Ateratako ehunka *selfie*-ak partekatzen joan ziren gero denak.

Datu harrigarria: sare sozialetan irudi bat partekatzearen gastu energetikoa hogeita lau ordutan lau bonbilla piztuta mantentzea adinakoa da. Naturaren irudi miresgarriak biltzen ditugu eta horrek natura bera suntsitzen laguntzen

du. Horixe da Rebecca Giggsen diagnostikoa *Fathoms. The World in the Whale* liburuan. Naturaren zelako irudi ederra eskaintzen digun gure ordenagailuak pizten dugunean! Badirudi pantailaren barruan gorde nahi dugula natura, haren suntsipenaren eta irudien distiraren arteko kontrastea. 🐳



 **euskadi
irratia**
gertu

JAKIN 2020

Jakin 236

AMURIZA, Miren: *Xabier Amurizari elkarriketa*

RUBIO, Miren: *H. Cano, E. Rodriguez eta K. Uribe autonomia literarioaz eta konpromisoaz Egunen gurpilean*: UGARTE, Itziar; ALTUNA, Jaime; GARMENDIA, Alba

Jakin 237-238: Joxe Azurmendi. Pentsamenduaren ur-jauzia

ZULAIKA, Joseba: *Arbola beltzaren poema*: Azurmendi, euskal mende hautsiaren lekuko

ESKISABEL, Idurre: *Feminismotik naziogintzara hurbilketa bat* Azurmendi bidelagun

APODAKA, Eduardo: *Mamu, momia eta zonbiak*. Bizi osteko biziak

SARRIONANDIA, Joseba: *Azurmendiren inguruko sei-zazpi ideia eta galdera*

OLARIAGA, Andoni: *Nola pentsatu etika orain eta hemen?*

CUGNO, Agnès: *Indarkeria eta identitate politikoa*

SOTO, Iñaki: *Don't Think of 'Foro de Ermua'*

CASADO, Antonio: *Pentsamenduaren marruskadura*: etika eta praktika komunitateak

NEREKAN, Maitane; YARZA, Itsaslore: *Heriotzarekin bizitzen ikastea*

ZAPIAIN, Markos: *Bizitzaren zentzuaz*

ETXEBERRIA, Arantza; PZ. IGLESIAS, J. Ignacio: *Gizaberea, eboluzioa eta kooperazioa*

URDANGARIN, Mikel: *Gizabere kooperatiboa krisian bizitzeko mito gisa*

EIZAGIRRE, Andoni: *Pertsona burujabea Arizmendiarrietaren asmoan eta egitean*

AZKARATE, Miren: *Azurmendi: euskara batuaren bilbe eta irazki*

MARTINEZ, Elena: *Hizkera filosofikoa hizkuntza gutxiagotu baten testuinguruan*

GARMENDIA, Elixabete: *Zegamatik Arantzazura, pentsalariaren lehen paisaiak*

Egunen gurpilean: UGARTE, Itziar; ALTUNA, Jaime; GARMENDIA, Alba

Jakin 239: Pandemiak, distopiak eta mundu berriak

ZUBIAGA, Mario: *Politika biluzik birusaren garaian*

ETXEBERRIA, Arantza: *Mikro-bioa, gaitza eta natura*

AZKARRAGA ETXAGIBEL, Joseba: *Ekodistopia prospektiban, EHkopia perspektiban*

ZUBIA, Irati: *Egia-ostea ziurgabetasun garaian*

GABILONDO, Joseba: *Pandemiaren arrazoiak: konspirazioa, paranoia eta negazionismoa*

CANO, Harkaitz: *Hirugarren oldearen osteko txostena (2024)*

Egunen gurpilean: UGARTE, Itziar; ALTUNA, Jaime; GARMENDIA, Alba

Jakin 240: Torrealдай: euskara herri

AGIRRE, Lorea: *Maratoia korritzera atera gara*. Joan Mari Torrealдай Joseba Intxausti,

Joxe Azurmendi eta Paulo Agirrebaltzategiren bihotz-begietan

ANAUT, Dabid: *Torrealдай: izena eta izana, euskaigintzari emana*

ARRULA, Garazi: *Zerrendero batekin solasean*

MURUA URIA, Imanol: *Torrealдай eta prentsa*

OTAEGLI, Lourdes: *Torrealдай, euskal liburuaren zentsuraren aztertzaile*

JUANENA, Agurtzane: *Biblioteca Nazionalaren ametsa XXI. mendean*

Egunen gurpilean: UGARTE, Itziar; ALTUNA, Jaime; GARMENDIA, Alba

Jakin 241: Euskal kultura 2020

AGIRRE, Katixa: *Hekatonbearen urtea: kultura, automaitasuna eta polimaitasuna*

BARANDIARAN, Alberto: *Sortuz ta sortuz bizitzen gera*

OSA, Olatz: *Ezpatat dantzatik soka dantzara*

LANDABIDEA, Xabier: *2020ko Durangoko Azoka Immateriala*

FANO, Dani; EIBAR, Eider; JOSEVISKY; UNANUA, Nerea: *Kulturaren urtea marrazkitan*

UGARTE, Itziar: *Pandemiaren urtea kulturgintzan*. Edurne Azkarate, Igor Elortza,

Xabier Gantzarain, Katti Pochelu eta Castillo Suarez

EIZAGIRRE, Xabier: *Euskal liburutegintza 2018*

JAKIN 2021

Jakin 242

RUBIO, Miren: *Pilare Baraiazarrari elkarriketa*
GURRUTXAGA, Alexander: *Ihesa zilegi balitz: Xabier Lete eta trantsizioko poetikak*
Egunen gurpilean: AKIZU, Maialen; ALTUNA, Jaime; MARTINEZ PEÑA, Iñigo

Jakin 243: Gazteak eta politika

LARRINAGA, Ane; IRAOLA, Iker; ODRIOZOLA, Onintza; AMURRIO, Mila;
ZABALO, Julen; EPELDE, Maddalen: *Oraingo gazteak axolagabe? Gazteen eta politikaren arteko harremanak aztergai*
OLARIAGA, Andoni: *Garai baten mugetan*
BARANDIARAN, Ander: *Konpromisoa krisi garaiotan. Aitana Agirre, Iñigo Etxezarreta, Izar Hernando, Unai Martinez eta Naiara Rodriguez*
Egunen gurpilean: AKIZU, Maialen; ALTUNA, Jaime; MARTINEZ PEÑA, Iñigo

Jakin 244

LEKUONA, Ane: *Arteak euskal identitate bati forma eman zionean. Kultur politikak, artearen historia eta generoa*
ARRUTI, Nerea: *Traumaren ondoren: gehiegizko oroimena eta ahanzturak euskal literaturan*
ARANGUREN, Gaizka: *Zoparen Teoria Orokorra. Identitatearen atarietan*
GOROSTIDI, Juan: *Lekeitio Lemoizen da*
Egunen gurpilean: AKIZU, Maialen; ALTUNA, Jaime; MARTINEZ PEÑA, Iñigo

Jakin 245-246: Krisi ekosoziala: desazkundera irtenbide?

PASCUAL, Unai: *Klima eta biodibertsitatearen krisi bikoitzari aurre egiteko gobernantza eraldatzailearen aldeko aldarria*
BEGIRISTAIN, Mirene: *Ekofeminismoaren txirikordak*
ELOSEGI, Arturo: *Euskal Herriko ingurune naturalen etorkizuna*
ZABALETA, Ane; ANTIGUEDAD, Iñaki: *Ur berdearen garrantzia klima-krisiaren aurrean*
AUSEJO, Belen: *Uraren kudeaketa Nafarroan: gatazkak eta proposamenak*
FLORES, Lorea: *Abeltzaintza industrialaren ajeak. Nafarroako kasua*
ENDARA, Sabine; HARLUXET, Xabier: *Bizi!, larrialdi klimatikoaren, metamorfosi ekologikoaren eta justizia sozialaren haritik borrokatzen*
AZKARATE, Aitor: *Esne-behi gutxiagorekin bizi daiteke?*
GALLEGO, Sergio; JERÓNIMO, Cristina: *Non daude gure basoak?*
GOIKOETXEA, Ibon: *Usurbil Atez Ate. Hondakinen desazkunderaren bidetik*
MURGOITIO, Eider: *Energia berriztagarriak. Euskal Herrian badugu alternatiba propioa*
Egunen gurpilean: AKIZU, Maialen; ALTUNA, Jaime; MARTINEZ PEÑA, Iñigo

Jakin 247: Euskal kultura 2021

MANTEROLA, Ismael: *COVID edo postCOVIDaren urtea?*
URIEN, Ainhoa: *Euskal kultura segurua da?*
BARANDIARAN, Alberto; TXAKUR GORRIA; FANO, Dani; ARBELBIDE, Nora;
GURRUTXAGA, Amagoia; AGIRREAZKUENAGA, Irati; GARTZIANDIA, Maitane; ZUMALABE, Maddi; BASAGUREN, Jon; EZKERRA, Estibalitz; AXPI; ARANDIA, Izaskun; JOSEVISKY; AGIRRE, Manex; CABALLERO, Maite;
LARRAIOZ, Mikel; MIMENZA, Libe: *Euskal kultura 2021*
EIZAGIRRE, Xabier: *Euskal liburugintza 2019*

Sailaren arduraduna: Joxe Azurmendi

- 1 URIBARRI, Ibon: *Immanuel Kant: bizitza eta filosofia*
- 2 GALPARSORO, Jose Ignacio: *Betiereko itzulera Nietzscheren pentsaeran*
- 3 KANT / HEGEL: *Kant eta Hegel: gerra eta bakeaz gogoetak*
- 4 DUCHET / MARQUARD: *Gizakiaren filosofia ilustratutik antropologia filosofikora*
- 5 LEIBNIZ, Gottfried Wilhelm: *Metafisikako diskurtsoa*
- 6 ADORNO, Theodor W.: *Musikaren filosofia*
- 7 MARX / ENGELS: *Alderdi Komunistaren Manifestua*
- 8 FOUCAULT, Michel: *Gizakiaren heriotzaz*
- 9 FREUD, Sigmund: *Ilusio baten etorkizuna*
- 10 LEYTE, Arturo: *Heidegger: Hermeneutika eta Funtsezko Ontologia*
- 11 PLATON: *Sokratesen Defentsa*
- 12 BACON, Roger: *Unibertitate eta Zientzia Erdi Aroan*
- 13 PORTALIS, J.E.M.: *Frantziako Kode Zibilaren lehen proiektua: Atariko hitzaldia*
- 14 BENGOTXEA, Juan Bautista: *Filosofia eta Zientzia. Vienako Zirkulua*
- 15 WITTGENSTEIN, Ludwig: *Etika, zientzia eta antropologia*
- 16 PLATON: *Ion*
- 17 URIBARRI, Ibon: *Kanten ezagutzaren teoria*
- 18 GARATE, Jenaro: *Gizakia maitagogo da (Nire aitorpen filosofikoa)*
- 19 RILKE, Rainer Maria: *Poeta gazte bati idatziak*
- 20 BENTHAM, Jeremy: *Panoptikoa*
- 21 ARRIETA URTIZBEREA, Agustin: *Zertaz dihardu filosofiak?*
- 22 PLATON: *Sinposioa*
- 23 DOMAT, Jean: *Legeen Tratatuak*
- 24 BENGOTXEA, Juan Bautista / EIZAGIRRE, Xabier: *Dogmak zientzian?*
- 25 ARREGI, Xabier: *Descartes*
- 26 NIETZSCHE / FREUD: *Nietzsche eta Freud, filosofian eragile*
- 27 ALVAREZ SANTA CRISTINA, Jose Luis: *Etikaren oinarrien bila*
- 28 GROTIUS, Hugo: *De iure belli ac pacis. Gerra eta bakearen zuzenbidea. Testuak*
- 29 Aiestaran, Ignazio (arg.): *Kant eta modernitatearen iraultza*
- 30 ZABALETA GORROTXATEGI, Iñaki: *W. von Humboldt: hezkuntza eta hizkuntza*
- 31 ITURRIOTZ, Ander: *Giza abere heroikoa kultura homerikoan*
- 32 ARRIETA URTIZBEREA, Agustin: *David Hume: ekintzak, sentimenduak, balioak*
- 33 ZAPIAIN, Markos: *la guztiaren funtsaz. Kojève globalizatzaile*
- 34 ITURRIOTZ, Ander: *Lehen filosofia Heladen*
- 35 PUFENDORF, Samuel: *De officio hominis et civis juxta legem naturalem libri duo*
- 36 ZABALETA GORROTXATEGI, Iñaki: *Paideia eta hizkuntza: euskal hezkuntza*
- 37 AGUIRRE, Javier: *Aristoteles Metafisikari sarrera*
- 38 INSAUSTI, Xabier / ARRIETA, Idoia: *Hic Hegel, hic saltus*
- 39 FOUCAULT / BENAÏD: *Historiaz mintzo*
- 40 JIMENEZ, Jon / OLARIAGA, Andoni: *Modernitatearen auziaz*
- 41 SUAREZ, Francisco, S. J.: *Tractatus De legibus ac Deo legislatore*
- 42 ZABALETA GORROTXATEGI, Iñaki: *Hizkuntzaren zientziak hizkuntzaren pedagogian*
- 43 AZURMENDI, Joxe (arg.): *Filosofia eta poesia*
- 44 INSAUSTI, Xabier / OLIDEN, Irati: *Konpromisorik gabeko filosofia. Alain Badiou*
- 45 ARRIETA URTIZBEREA, Agustin: *Arimak eta balioak*
- 46 ETXARTE, Hedoi: *Wagner auziaz. Wagermée, Clément, Žižek, Badiou*
- 47 AZURMENDI, Joxe: *Gizabere kooperatiboaz*
- 48 SARTRE, Jean-Paul: *Begirada*
- 49 URDANGARIN IRASTORZA, Mikel: *Simone de Beauvoir, norbanakoa eta burujabetza*

IZAN ZAITEZ JAKINKIDE

Harpidetuz

- ☐ Euskal Herria **60 €**
- ☐ Europa **75 €**
- ☐ Mundua **85 €**

Nola jaso nahi duzu?

- ☐ Paperean bakarrik
- ☐ Digitalean bakarrik
- ☐ Paperean eta digitalean

Harpidetuz gero, %30 aurreztuko duzu.

Babesle izanez

120€ ordainduz, Jakinen proiektu berria sustatuko duzu eta paperezko aldizkaria eta aldizkari digitala jasoko dituzu etxean.

Ekarpena eginez

Nahi duzun kopurua

EROSI

Aldizkaria

PAPERA

- ☐ Euskal Herria **14 €**
- ☐ Europa **17,50 €**
- ☐ Mundua **20 €**

DIGITALA

- ☐ **14 €**

3 urtetik gorako zenbakiak DOAN eskaintzen dira DIGITALEAN.

Artikuluak

DIGITALA

- ☐ Jakinkide bazara **Doan**
- ☐ Jakinkide ez bazara **3 €**

3 urtetik gorako artikuluak DOAN eskaintzen dira DIGITALEAN

Liburuak

PAPERA

- Jakinkide bazara ☐ **10 €**
- Jakinkide ez bazara ☐ **12 €**

DIGITALA

- ☐ **4 €**
- ☐ **7 €**



Izena

Abizenak

Helbidea

Herria Posta kodea

Telefonia

Posta elektronikoa

[illegible]

Kontuaren jabea



Jakin *eus*
herria kultura hizkuntza

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
Tel. 943 218092
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus





Jakin • *eus*
herria kultura hizkuntza

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
Tel. 943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus

